Partiendo de una postura razonable, los poderes estatales deben esforzarse en establecer medios para alentar a este pueblo. Es inminente la necesidad de llevar a cabo la negociación entre la organización armada ETA y los poderes del Estado en base a la alternativa KAS, teniéndose que derivar de ello la aceptación, por parte del Estado, de los derechos democráticos de Euskal Herria, porque ése es el deseo de la mayoría. Estén seguros de que la mayoría de este pueblo espera con ilusión e inquietud ese momento. Para conseguir la paz y para garantizar que el pacto entre los poderes del estado y Euskadi se va a cum-

tsuen defendatu dutenek eta gure eskubideak ukatu dizkigutenek, hots, Estatuko botere faktikoak, hau da, ejerzitoa eta abar, eseri eta akordioa lortzea, Euskadiko berreskurapen nazionala ardiestea garantizatzen duen akordio baikorra sinatzea.

plir es necesario que los que más firmemente han defendido la liberación nacional de nuestro pueblo y los que nos han negado nuestros derechos, es decir, los poderes fácticos del Estado, es decir, el ejército, etc., se sienten y logren un acuerdo, que firmen un acuerdo positivo que garantice el logro de la recuperación nacional de Euskadi.

Somos partidiarios de la negociación polftica, y lo somos porque entendemos que es la única fórmula que existe de alcanzar la normalización polftica de Euskadi, que, en este marco jurfdico-polfico actual, es imposible pueda producirse.

Politika-itunebideketaren alde gaude, hori baita gure ustez egungo lege eta politika-esparru honetan ezinezkoa den Euskadiren politika mailako arauzkotzea lortzeko dagoen bide bakarra.

Entendemos que ETA debe ser parte en esta operación polftica porque interviene directamente en la contienda. Porque es la que más decididamente ha defendido la necesidad de cambio de marco polftico. Porque todos sabemos que cuenta con un gran respaldo popular, a pesar de algunos. Porque defiende un programa democrático. ¿O acaso lo que era democrático en el 78 ya no lo es?

Gure ustez ETA-k partaide izan behar du, politika-jardun honetan artez eskuhartzen bait du. Politika-esparrua aldatu beharra bizikienik aldeztu bait du. Denok bait dakigu haren atzean herriaren zati haundi bat dagoela, zenbaiten kaltetan bada ere. Egitarau demokraziaduna aldezten bait dute. Ze, ez al da orain demokraziadun 78.ean demokraziadun zena?

Y, por la otra parte, en representación de este Estado represor para con el pueblo vasco, deben sentarse representantes del Ejército español. Y debe participar en la negociación dicha representación no porque sea capricho de ETA, ni mucho menos deseo de Herri Batasuna, sino precisamente por imposición de ustedes. Sf, sf, no se extrañen de lo que estoy diciendo: son ustedes mismos los que están obligando a que sean los representantes del Ejército los que tienen que negociar en nombre del Estado, porque en el artfculo VIII de la Constitución asf se les reconoce. Si es el Ejército español el garante último de la unidad patria, es evidente que sólo un acuerdo con ellos da estabilidad y futuro a esa nueva configuración de Estado que con tanta fuerza reivindicamos. No se rasguen, pues, sus vestiduras, señores parlamentarios, cuando nosotros defendemos la negociación entre ETA y los poderes del Estado, porque no hacemos más que tener en cuenta los interlocutores que ustedes mismos han nombrado.

Eta bestalde, herriarekiko zanpatzaile den Estatu honen ordezkari legez, Gudaroste espainiarraren ordezkariek eseri behar dute. Eta aipatutako ordezkaritzak itunebideketa horretan parte hartu behar du ez ETA-ren apetakeria delako, eta are gutxiago Herri Batasunaren nahia delako, baizik eta zuek ezartzen duzuelako hain zuzen ere. Bai, bai, ez harritu esaten ari naizenagatik. Zeuok ari zatzaizkiote bide ematen Estatuaren izenean Gudarostearen ordezkariak itunebideak egin behar izateari, Konstituzioaren VIII atalak horrela aitortzen bait du. Aberri-batasunaren azken bermatzailea Gudaroste espainiarra bada, argi dago hain hertsiki eskatzen dugun Estatuaren antolamendu berri horri iraunkortasun eta etorkizunik ez diola haiekingo akordioak baino ematen. Ez itzazue, beraz, jantziak urra, guk ETA eta Estatuko aginteen arteko itunebideketa aldezten dugunean, zeuok izendatutako solaskideak kontutan hartu besterik ez bait dugu egiten.

Y se debe negociar la paz para nuestro pueblo en base a la Alternativa KAS porque dicha alternativa no tiene otro origen sino las reivindicaciones que defendfais los que aquf estáis sentados, contra el franquismo. Vosotros parecéis haber olvidado estas reivindicaciones, pero el pueblo no. Y es que el pueblo todavfa está en las cárceles, le siguen apaleando en la calle, tiene más

Eta gure herriarentzako pakearen itunebidea KAS aukeran oinarrituta egin behar da, aukera horrek ez bait du hemen eserita zaudetenok frankismoaren aurka aldezten zenituzten eskabideak bste jatorririk. Zuek ahaztu egin dituzue, dirudienez, eskabide horiek, bainan herriak ez. Herria oraindik gartzeletan bait dago, kalean oraindik egurra ematen bait diote, ekono-

problemas económicos y sociales, sigue exigiendo un Estatuto nacional con soberanía política y para todo Euskadi Sur, sigue exigiendo que se vayan. Y todo ello requiere una solución democrática.

mia eta gizarte-arazo gehiago bait ditu, eta politika-burujabetasunezko eta Euskadi osorako nazio-estatutoa hertsiki eskatzen bait du oraindik, joan daitezela eskatzen bait du oraindik. Eta guzti horren demokraziazko irtenbidea eskatzen du.

Todo intento en retrasar la negociación, por desgracia, no llevará sino a prolongar el conflicto, y el tiempo además viene demostrando que esta estrategia, lejos de alcanzar sus objetivos, lo único que logra es obligar a este pueblo a tener que entregar muchos de sus hijos en la lucha por la libertad de Euskadi.

Itunebideketa atzeratzeko edozein ahaleginek, tamalez, ez du auzia luzatu besterik egingo, eta gainera, denborak frogatzen digunez, estratejia honek, bere helburuak lortu beharrean, herri hau Euskadiren askatasunaren aldeko borrokarako hainbat seme ematera behartzea baino ez du lortzen.

Como decía nuestro inolvidable Monzón, "todavía estamos a tiempo, mañana puede ser demasiado tarde". Todos los que amamos a este pueblo, todos los demócratas estamos obligados a poner todo lo que esté en nuestras manos, todos los medios para que se haga realidad el deseo y la exigencia de la mayoría de nuestro pueblo.

Gure Monzon ahantzezinak zioenez, "oraindik garaiz gabiltza, bihar beranduegi izan daiteke". Herri hau maite dugun guztiok, demokraziazale guztiok gaude gure esku dagoen oro jartzera, gure herriaren gehiengoaren gogo eta eskabidea egia bihur dadin baliabide guztiak jartzera behartuta.

Zuen aurrean ari naiz hizketan, tribuna honetan eta legebiltzar antzeko solairu honetan, baina gure herriaren legebiltzarra izatez ez dena. Ez zen Legebiltzar honetan Lemoiz gelditzearen aldeko erabakirik hartu, gure herriak eskatu arren. Legebiltzar honek ezin du defendatu gure herriak OTAN-en sartzearen aurka hartutako erabakia; ezin ditu erabaki ekonomiko nagusiak hartu, etab.; eta are gutxiago gure autodeterminazioaren eskubidea bideratu. Horregatik salatzen ditugu Legebiltzarrean hitza daukagula esaten dutenak. Zapalkuntza ematen deneko Legebiltzar honek ezin duelako nahi duena erabaki eta gutxiago lurralde guztietan. Legebiltzar honek ez duelako subiranotasunik bere zereginetan eta gutxiago lurralde guztietan. Eta hor dago gakoa!

Estoy hablando ante ustedes en esta tribuna y en este supuesto parlamento, pero que de hecho no es el parlamento de nuestro pueblo. En este Parlamento no se tomó el acuerdo de paralización de Lemóniz. Este Parlamento no puede, aunque lo pida el pueblo, defender la decisión tomada por nuestro pueblo de no entrar en la OTAN; tampoco puede tomar decisiones económicas importantes, etc., y mucho menos canalizar nuestro derecho a la autodeterminación. Por eso denunciamos a los que dicen que podemos expresarnos en el Parlamento. Porque este Parlamento en el que se da la explotación no puede decidir lo que quiere y menos en todos los territorios. ¡Y ése es el "quid" de la cuestión!

Eta Euskal Herrian askok eskatzen ditugun nahiak bideratzeko ahalmenik ez dagoenean, Euskal Herria herri bezala bazter guztietatik estutzen duen indarkeria-egoera jatsaten ari da.

Y mientras no existen en Euskal Herria competencias para canalizar los deseos reclamados por muchos, Euskal Herria, como pueblo, está padeciendo una situación de violencia que le aprisiona por todos los lados.

¿Por qué, si no, se elevan tantos gestos de impotencia desde esta institución ante reivindicaciones populares importantes? ¿No es acaso necesario reconocer expresamente la incapacidad política que tienen las actuales instituciones para acometer reformas importantes y necesarias? ¿No hay también falta de sensibilidad ante muchos de estos problemas, y, por tanto, no os merece la pena, por dichos problemas, poner en entredicho la actual situa-

Zergatik sortzen dira, bestela, erakunde honetatik hainbeste ezintasun-aztarna herriaren eskabide garrantzitsuen aurrean? Ez ote da onartu behar argi eta garbi egungo erakundeek eraldaketa garrantzitsu eta beharrezkoei aurre egiteko duten politika-ezintasuna? Ez al dago, berebat, sentiberatasunik eza arazo hauetariko askoren aurrean, eta ez al zaizue komeni, beraz, aipatu arazoegatik egungo politika-egoera zalantzatan jartzea?

ción polîtica?

Por eso, señores y señoras parlamentarios, aunque podáis alegar la falta de capacidad polîtica para abordar ciertos problemas, en la medida en que no se lucha por denunciar esa situación, os volvéis cómplices de la misma, independientemente de si existen competencias o no. Porque aceptáis y contribuîs al mantenimiento de la situación tal y como está hasta el momento.

Herri Batasuna no quiere ser cómplice, pues, de esta situación, y creemos que la forma más adecuada de llevar la denuncia a cabo es mediante nuestra ausencia de esta institución. Ausencia que no significa ignorar vuestra existencia, porque nos tenéis y vais a tener en vuestros talones denunciando el reparto de prebendas y puestos que tan afanosamente habéis repartido estos dîas. La solución pasa por la paz y la libertad de Euskadi, no por la sumisión y los intereses creados.

Quiero terminar mi exposición expresando mi profundo agradecimiento a los trabajadores, jóvenes y sectores de mi pueblo que han expresado su solidaridad por mi presencia en esta Cámara. Quizá mi intervención no se ajuste a la ortodoxia parlamentaria a que están acostumbrados, pero tampoco era mi intención agradar sus oîdos, sino expresarme en el lenguaje llano y directo que es en realidad el que los trabajadores y capas populares entienden, pues a ellos me he dirigido en este discurso.

Una vez terminado este acto, ustedes se irán a sus hogares, o a celebrar el pacto que han suscrito a espaldas de nuestro pueblo. Pues bien, señores, yo seré conducido esposado a la prisión de Herrera de la Mancha, donde me esperan mis compañeros. Pero, créanme, me voy satisfecho, más bien orgulloso de haber podido representar en esta Cámara, durante hora y media, la dignidad de un pueblo que no claudica, y con la seguridad de haber hecho un acto de servicio a la causa de nuestro pueblo, contribuyendo a la clarificación y presentando las lîneas maestras de un programa que supone un compromiso hacia la reconstrucción nacional de Euskal Herria.

He explicado un programa polîtico de recuperación económica, sociolingüîstica y de identidad nacional. Un programa para la paz que conlleva la negociación polîtica entre ETA y los poderes del Estado. Un programa, en definitiva, de reivindicación, de lucha y de solidaridad con todos los

Horrexegatik, legebiltzarkide jaun-andereok, zenbait arazori aurre egiteko politika-gaitasunik eza lepora badezakezue ere, egoera hau salatzeko borrokatzen ez den heinean, beronekin bat egiten duzue, ahalmenik dagoenentz alde batera utziz. Egoera oraino dagoen bezalaxe onartu eta bere horretan iraun-arazten bait duzue.

Herri Batasunak ez du, beraz, egoera honekin bat egin nahi, eta gure ustez salaketa burutzeko modurik egokiena gu erakunde hauetan ez egotea da. Ez egote honek ez duelarik zuei ezikusia egitea esan nahi, zuei orpoz orpo bait gauzkazue eta izango bait gaituzue egunotan hain lehiatsuki banatu dituzuen mauka eta postuen banaketa salatuz. Irtenbidea Euskadiren pakea eta askatasuna dira, eta ez buru makurtze eta sortutako onurak.

Ni Biltzarre honetan egoteagatikako elkartasuna adierazi duten nere herriko langile, gazte eta alorrei nere eskerrik sakonena emanez amaitu nahi dut nere azalpena. Beharbada nere mintzaldia ez da entzuten ohituta zaudetenak bezalakoa, halabaina nere asmoa ez zen zuei atsegin ematea, hizkuntza soil eta apalean mintzatzea baizik, hori bait da langile eta alor herrikoiek ulertzen dutena, eta nere mintzaldi hau haientzako bait zen.

Ekitaldi hau amaitzen denean, zuek zeuon etxeetara joango zarete, jaunok, edota gure herriari bizkar emanez izenpetu duzuen hitzarmena osapatzera. Ni, aldiz, eskuloturik Herrera de la Mancha-ko presondegira eramango naute, han nere kideak zain bait dauzkat. Bainan, sinets iezadazue, asebeterik noa, harro, hobeki esan, Biltzarre honetan ordu ta erdiz amorerik ematen ez duen herriaren duintasuna ordezkatu ahal izanagatik, eta ziur nago gure herriaren gogoari zerbitzu egin diodala, argibideak ematen lagunduz eta Euskal Herriaren nazio-berreraikuntzarako hitzarmena den egitarauaren bide nagusiak aurkeztuz.

Ekonomia eta soziolinguistika aldetik berreskuratzeko eta nazio-nortasunezko politika-egitaraua azaldu dut. Bere baitan ETA eta Estatuko aginteen arteko politika-itunebideketa daraman pakearen aldeko egitaraua. Eskatzezko, borrokazko eta gurea bezala askatasunaren alde borrokan ari

pueblos que como el nuestro luchan por su libertad. He explicado un programa basado en la Alternativa KAS, que, por más que les pese a algunos de los presentes, cada vez cala más hondo en nuestro pueblo. Porque es un programa vivo, que recoge las más profundas aspiraciones de nuestro pueblo.

diren herri guztiekiko elkartasunezko egitaraua, azken buruan. Hemengo zenbaiten gogoz beste izanik ere, gure herrian gero eta sakonkiago errotzen ari den KAS aukeran oinarritutako egitaraua azaldu dut. Gure herriaren gogorik sakonenak jasotzen dituen egitarau bizia baita.

Quiero finalizar mi exposición con un mensaje optimista y real. Un mensaje de esperanza para mis compañeros de cárcel, para los exiliados y deportados, y para todo el pueblo, porque, a pesar de la represión sistemática, el movimiento de liberación nacional avanza constantemente. Me voy con la seguridad de que nuestra causa está en constante crecimiento. Vuelvo a la cárcel con el profundo convencimiento de que el futuro es nuestro. Por ello, me voy tranquilo a unirme a mis compañeros de prisión, con la conciencia clara de haber hecho un acto de servicio al futuro de una Euskadi solidaria, justa y soberana. Está claro que, paso a paso, Euskadi avanza para conseguir su soberanía. Está claro que la victoria está cerca.

Nere azalpena mezu baikor eta egiazko batez amaitu nahi dut. Nere espetxekideentzako, atzerriratu eta erbesteratuentzako itxaropen-mezuaz, besterik gabeko zapalkuntza eta guztiz ere, nazio-askapenerako mugimendua aurrera bait doa etengabe. Gure borroka-zioa etengabe hazten ari denaz ziur noa. Etorkizuna gurea denaz guztiz jabeturik noa berriro espetxera. Hortaz, lasai noa nere espetxekideekin bat egitera, Euskadi elkargarri, zuzen eta burujabearen etorkizunari zerbitzu egin izanaz guztiz jabeturik. Argi dago Euskadi, urratsez-urrats, aurrera doala bere burujabetasuna lortzeko. Argi dago garaipena hurbil dagoela.

Jaun andreak eta, batez ere, zuek, nire lagun guztiak: Gartzelatik nakarte eta gartzelara naramate. Ez da toki ederra, baina bai poltrona zikin hauek baino dinagoa. Bide gogorra hartu dugu, baina gaurkoa aurrerakada haundia izan da. Asko gara eta gero eta gehiago izango gara.

Señoras y señores y sobre todo vosotros, todos mis amigos: Me traen de la cárcel y me llevan a la cárcel. No es un lugar agradable, pero sí más digno que estas sucias poltronas. Hemos elegido un camino duro, pero el de hoy ha sido un gran avance. Somos muchos y cada vez seremos más.

Nik esan dudanarekin Euskadirik gehiena dago konforme. Gaur isilean baietza ematen digutenek laster emango digute botoa ere. Gero eta gutxiago falta zaigu. Ez gara damutuko! Ez gara makurtuko! Zuek kanpoan eta gu barruan, aurrera jo ta ke, irabazi arte! Gora Euskadi askatuta! (Aplausos y gritos de "¡Gora!" entre el público y los parlamentarios de Herri Batasuna.)

La mayoría de Euskadi está de acuerdo con lo que yo he dicho. Los que hoy nos apoyan en silencio pronto nos darán el voto. Cada vez nos falta menos. ¡No nos arrepentiremos! ¡No claudicaremos! Vosotros desde fuera y nosotros desde dentro, duro y adelante, hasta la victoria! Gora Euskadi askatuta! (Txaloak eta "Gora" ohiuak jendeartetik eta Herri Batasunako legebiltzarkideen artetik.)

El Sr. **PRESIDENTE:** Continuando con el orden del día, tiene la palabra José Antonio Ardanza Garro. Larogei eta hamar minutu dauzkazu.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Gai-zerrendari jarraituz, Jose Antonio Ardanza Garro da hizpidearen jabe. Tiene noventa minutos.

El Sr. **ARDANZA GARRO:** Lehendakari jauna, legebiltzarkide jaun-andreok, herri honen historia, aldatz gorakoa eta benetan zaila izan da mendeetan zehar. Guztiok dakigu, Euskadiren azken urteotako aurrerabidea malkartsua izan dela. Eta badakit azken hilabeteok garratzak eta gorriak izan direla zuentzako eta niretzako, inola-

**ARDANZA GARRO** Jaunak: Señor Presidente, señoras y señores parlamentarios, la historia de este pueblo a través de los siglos ha sido una continua cuesta arriba y dificultosa de verdad. Todos sabemos que el proceso de Euskadi de estos últimos años ha sido escabroso. También sé que estos últimos meses han sido amargos y

ko irtenbiderik aurkitzen ez zelako Gobernu berri bat osatzeko. Baina, zorionez, badugu Jaurlaritza berria eta, nire ustetan, oso fruitukorra eta emankorra izango dena gainera. Inork ezin lezake ukatu, une historiko eta Euskal Herriarentzeko azkengabeko garrantzia duen aldian aurkitzen garela, gure abertzale-nahi horiek egia bihurtzeko eta gauzatzeko aurkera berria eta gure artean ezezaguna den bidea eskaintzen zaigulako.

Lehendik gainean genituen autonomia, ekonomia eta elkarbizitza-mailako arazoei, aginte-instituzioetan biztanlegoak fedea galtzea edo, behintzat, horiengan, lehen herriak zuen usteona ahultzea, arriskuan daude. Hori horrela izanik, ezinbestekoa eta derrigorrezkoa genuen Gobernu seguru, iraunkor eta jator bat herriari eskaintzea. Egiatan diotsuet, ez dela bide erraza izan, ez dugula arrosa-biderik aukeratu.

Berria da, gure artean orain arte esperimentatu ez dena; baina, jakin ezazue itxaropentsu nagoela, ilusio beroa dudala barnean, esperientzia aberaskorra eta emaitz oparoz betetakoa izango den segurantza osoa dudala bihotzean. Asko sufritu behar izan dugu guztiok azkenaldi honetan, egun eta gau latzak pasa behar izan ditugu; baina lortu dugu elkarrekin bidea egiteko modua, elkarrizketak bere fruitu baikorrak eman ditu oraingoan ere, eta bideari ekiteko giro egokian aurkitzen gara.

Akordioa lortu dugula esan dut, eta itune hori sozialistekin izan da gainera. Baiezko honek ba du bere edukin berezia, eta, batzurentzako zalantzabide denez, honako ideia hauek utzi nahi nizkizueke argi eta garbi zuen buru-bihotzetan. Itune bat, bi alderdiren artean egiteak, ez du esan nahi bakoitzak bereari uko egiten dionik; alderantziz, halako edo holako programa batzuk burutzeko xedez, puntu batzutan ados jartzea besterik ez da.

Euzko Alderdi Jeltzaleak, sozialistekin gobernu-itunea izenpetzea, ez da geurea uztea edo baztertzea, uztarri berean, akordioaren bidez, lan egiteko hitza ematea baizik. Berdin gertatzen zaie sozialistei gurekiko. Koalizio-gobernu bat sortzeak, ez darama bere baitan bakoitzak duen nor-

duros tanto para ustedes como para mí como consecuencia de que no se hallaba ninguna solución para la formación de un nuevo Gobierno. Pero, felizmente, tenemos ya un Gobierno nuevo que, en mi opinión, además va a ser muy fructífero y fecundo. Nadie puede negar que nos hallamos en un momento histórico y en una etapa que para el País Vasco tiene una importancia ilimitada, ya que, a fin de ver convertidos en realidad esos anhelos nacionalistas, y para materializarlos, se nos ofrece una nueva oportunidad y una vía desconocida entre nosotros.

A los problemas autonómicos, económicos y sociales que de antes tenemos encima, están en peligro la pérdida de la credibilidad de los ciudadanos en las instituciones de poder o al m enos el debilitamiento de la confianza que los ciudadanos tenían puesta en ellas. Siendo eso así, era necesario e imprescindible ofrecer al pueblo un Gobierno seguro, estable y auténtico. De verdad les digo que no ha sido camino fácil, que no hemos elegido un camino de rosas.

Es nuevo, algo que hasta ahora no ha sido experimentado entre nosotros; pero sepan que estoy esperanzado, que tengo una fuerte ilusión interior, que tengo la seguridad absoluta de que será una experiencia enriquecedora y llena de frutos fecundos. Todos hemos tenido que sufrir mucho en estos últimos tiempos, hemos tenido que pasar días y noches duros; pero hemos encontrado el modo de caminar juntos, el diálogo ha dado sus frutos positivos también en esta ocasión, y nos encontramos en un clima adecuado para iniciar el camino.

He dicho que hemos conseguido un acuerdo, y ese pacto además ha sido con los socialistas. Esta afirmación tiene especial contenido y, como para algunos es motivo de dudas, quisiera dejar ante sus mentes y corazón claras las siguientes ideas: el hecho de llegar a un pacto entre dos partidos no significa que cada uno tenga que hacer dejación de lo suyo; justo al contrario, es un ponerse de acuerdo en unos puntos, con el fin de llevar a cabo unos programas concretos.

El que el Partido Nacionalista Vasco haya firmado un pacto con los socialistas no significa que hayamos hecho dejación o abandono de lo nuestro, sino el compromiso de trabajar unidos por el acuerdo. A los socialistas les ocurre lo mismo respecto de nosotros. La creación de un gobierno de

tasuna alde batera uztea, ezta gutxiagorik ere. Egia hutsa honako hau da: alde bakoitzak, bere helburu eta printzipioei eutsiz, lan politikoa burutzeko adostasun puntu batzutan bat etortzea eta ez besterik.

Jaurlaritza iraunkorra, programa bat oinarritzat duen Gobernua behar genuela esan da behin eta berriro, eta entzun da alde guztietatik. Hori nahi genuen, horren alde egin dugu borroka, hori behar genuen eta, zorionez, badugu; itunea izenpetuta dago. Gutxiengoaren Jaurlaritza berria osatzeko gertu zeuden kideengandik, lankidetza eta ardura eskatzen zitzaigun duela egun gutxi.

Dei bera egiten dut nik gaur: laguntzeko, sujerentziak emateko, mintzakor izateko; kritika egiteko, baina ez apurtzeko xedez, izan ere, inoiz baino beharrezkoagoa bait dugu orain guztion partaidetza. Zori larria gainditu dugu, badugu Jaurlaritzarako alternatiba berri eta aurrerakoia, lagun diezaiogun eta ez dezagula kontra egite hutsagatik oposizioa egin, aberri hobe eta euskaldunagoa lortzeagatik baizik.

Elkarrizketarako gertu naukazue, ez diot sekula bide horri muzin egin eta ez egingo ere. Dialogoak, ezinezko ziruditenak posible bilakatzen ditu; zail eta eskura-ezinezko zirenak, biderakoi. Gertu, oso gertu duzue lekuko bat, Nazionalisten eta Sozialisten arteko itunea, alegia. Duela egun batzuk ezposibletzat jotzen zena egia bihurtu da.

Eztabaida, positiboa eta emankorra da, eta Herri honek dituen funtsezko arazoei buruz hitz egin behar dugu une garrantzitsu honetan. Mintza gaitezen gobernu-alternatibez, programez eta ez axaleko arazoez. Burutzea gura dugun programa honek, hiru zutabe ditu laburki esateko:

1. Autonomia finkatzea eta autonomiari aurrera eragitea, gure biztanlegoari estabilitatea emateko eta Herriarengan esperantza eta ilusioa sortzeko.

2. Langabeziaren aurkako etengabeko borroka indartsu eta komentsua egitea, enpresa berriak sortuz euskaldunen nahia oinarritzat hartuz.

3. Euskadirekiko begirunea mundo osoan zehar sortu izan duten giza-balore eta jarrera moralak defendatzea eta suspertzea. Tolerantziaren eta askatasu-

coalición no conlleva la dejación de la personalidad de cada uno, ni mucho menos. La única verdad es que, manteniendo cada parte sus objetivos y principios, coinciden en unos puntos de acuerdo para llevar a cabo la labor política, y nada más.

Se ha reiterado en multitud de ocasiones, y se ha dejado oír por todas partes que necesitábamos un gobierno estable basado en un programa. Eso era lo que queríamos, hemos luchado por conseguir eso, eso era lo que precisábamos y, felizmente, lo tenemos ya; el pacto está firmado. Hace pocos días se nos pedía colaboración y responsabilidad por parte de los miembros que estaban dispuestos a formar el nuevo Gobierno de la minoría.

Yo hago el mismo llamamiento hoy, que den sugerencias, que sean dialogantes; que critiquen, pero no en plan destructivo, ya que hoy más que nunca nos es imprescindible la participación de todos. Hemos superado un trance difícil, tenemos una alternativa nueva y progresista de gobierno; ayudémosle y no hagamos oposición únicamente por llevar la contraria, sino por conseguir una nación mejor y más vasca.

Me tienen dispuesto al diálogo, nunca he rechazado ni rechazaré esa vía. El diálogo hace posible lo que parecía imposible; viable lo que era difícil e inalcanzable. Muy cerca de ustedes tienen un testimonio, el pacto entre los nacionalistas y socialistas. Lo que hace unos días se daba por imposible, se ha convertido en realidad.

El debate es positivo y fructífero, y en estos momentos importantes tenemos que hablar de los problemas fundamentales que tiene este pueblo. Hablemos de las alternativas de gobierno, de los programas y no de cuestiones superficiales. Este programa que queremos llevar a cabo, dicho resumidamente, tiene tres pilares:

1.- Asentar la Autonomía y avanzar en la autonomía, con el fin de dar estabilidad a nuestros ciudadanos y crear esperanza e ilusión en el pueblo.

2.- Lucha sin cuartel vigorosa y valiente contra el paro, creando nuevas empresas tomando como base la voluntad de los vascos.

3.- Defender e impulsar los valores sociales y actitudes morales que han solido crear por todo el mundo el respeto hacia Euskadi. Luchar en favor de la

naren alde borroka egitea, pertsonarekiko errespetoa eta gainontzekoekiko solidaritate-giroa sortzen ahaleginik beroenak eta sutsuenak gauzatzea.

Señor Presidente, señoras y señores parlamentarios, me resulta del todo punto obligado comenzar este discurso haciendo referencia a la muerte de un político, de un parlamentario y fundamentalmente de un gran vasco y de una gran persona. El fallecimiento de Jesús María de Viana nos ha producido un enorme dolor, que estoy seguro habrá sido compartido por todos los que tuvieron la suerte de conocerle, sea cual sea su ideología. Su lealtad, su simpatía y fundamentalmente su honestidad quedarán, estoy seguro, en la mente de todos. Estoy convencido de que toda la Cámara considerará un honor haber tenido entre nosotros a nuestro amigo Viana. Ruego a sus compañeros de partido, a los parlamentarios aquí presentes, transmitan a su familia y a la ejecutiva de su partido el sentimiento más sincero de este candidato y del partido que representa.

Si difícil ha sido el caminar de la reciente andadura de la etapa autonómica, nadie me negará que hoy nos encontramos en uno de esos momentos en los que se marcan pautas decisivas a la hora de construir el futuro que todos anhelamos. A los problemas que todos conocemos en el campo autonómico, económico y de convivencia en general, hoy tenemos que añadir, desgraciadamente, un cierto problema de falta de credibilidad institucional, no ya sólo entre los vascos que rechazan explícitamente el entramado que democráticamente hemos elegido, sino incluso entre los ciudadanos que se han sentido identificados con el Estatuto de Gernika, con la democracia y con la vía del diálogo y la negociación como método para resolver los problemas fundamentales con los que se enfrenta nuestro pueblo. Era, por tanto, imprescindible ofrecer una solución sólida, estable y digna. Esta es la labor con la que mi partido y yo mismo nos hemos enfrentado desde el día siguiente a las elecciones, y que, tras casi tres meses de celebradas, felizmene, hoy podemos ofrecer.

Se ha hablado mucho, y criticado también, a propósito de la actitud mantenida por los diferentes partidos políticos a la hora de formar Gobierno de Euskadi. No pretendo eludir ninguna responsabilidad. El ciudadano habrá podido observar una enorme cautela por parte de todos ellos antes de comprometerse en decisiones que con posterioridad hubieran podido tener un de-

tolerancia y de la libertad, poner en práctica los esfuerzos más encarecidos y ardientes y un clima de solidaridad para con los demás.

Lehendakari Jauna, legebiltzarkide jaun-andreok, hitzaldi honi hasiera emateko ezinbesteko zait politikari, legebiltzarkide eta batipat euskaldun bikain eta nor bikaina izandakoaren heriotzaren aipamen egitea. Jesus Maria de Vianaren heriotzak oso samindurik utzi gaitu, eta gizon hori ezagutzeko aukera izan zuten guztiei ere, bakoitzaren pentsakera dena dela, berdin gertatuko zitzaien, noski. Haren leialtasuna, haren adeitasuna eta haren jatortasuna bereziki, ziur naiz, denon gogotan geratuko dira. Viana gure laguna gure artean ibili izana Legebiltzar osoak ohoretzat hartuko duela sinistuta nago. Haren alderdikide izan eta hemen dauden legebiltzarkideei hau eskatzen diet: adierazi diezaietela haren familikoei eta haren alderdiko batzorde eragileari Lehendakari gai honen eta beronek ordezkatzen duen alderdiaren saminagurrik zintzoena.

Autonomia-bidearen azken-aldiko aurrerabidea zaila izan bada ere, inork ez dit denok nahi dugun geroa egiteko orduan berebiziko eragina duten aribideak finkatzen diren une horietako baten aurkitzen garenik ukatuko. Autonomia, ekonomia eta gizarte-alorretan denori ezagunak zaizkigun arazo guztiez gainera, gaur, zoritxarrez, beste bat gehiago jarri behar dugu, iraskundeenganako halako sinisgarritasunik eza, alegia, eta, hori, ez demokrazia-bidez aukeratu dugun egitura berariz arbuiatzen duten euskaldunen aldetik bakarrik, baita, beren buruak Gernikako Estatutoarekin, demokraziarekin, eta bidearekin gure herriak aurre egin beharreko arazorik nagusienei aterapide emateko bidetzat joz elkarrizketa eta itunebidearekin bat egin duten herritarren aldetik ere. Irtenbide sendoa, iraunkorra eta jatorra eskaintzea, beraz, ezinbestekoa zen. Lantegi honi ekin gintzaizkion nere alderdia eta neu ere hauteskunde-biharamonetik bertatik, eta haiek izan zirenetik ia hiru hilabetera, hona, zorionez, eskaini dezakeguna.

Politika-alderdi bereziek Euskadiko Jaurlaritza osatzeko orduan izandako jarrerak direla eta ez direla, hitz asko esan da, baita jorraketa ugaririk egin ere. Ez dut ene erantzukizunari itzuri egiteko asmorik. Herritarrek ikusi ahal izango zuten, noski, alderdi guztiek, gerora hautesleen aldetikako halako kontu-eskatzea izan zezakeen erabakirik hartzera jo baino lehen

terminado coste electoral. Es evidente que han primado en exceso los meros intereses de partido, pero también quisiera decir con absoluta sinceridad que el problema con el que nos enfrentábamos no era, en ningún modo, de fácil solución. En ocasiones, como es bien sabido, es más fácil criticar que dar respuestas. Y lo cierto es que todos sabíamos que caminábamos hacia una experiencia absolutamente novedosa en este país como es un Gobierno de coalición, lo que significaba un nuevo modo de actuar, de trabajar en política y de dirigir el país.

En una sociedad sin la necesaria experiencia democrática, la tarea no podía ser fácil. Es explicable, por tanto, la cautela de los partidos políticos ante el gran reto que se imponía. Baste, pues, esta explicación para apelar a la generosidad de las gentes en aras a comprender con una mayor perspectiva y frialdad lo que aquí ha sucedido. En cualquier caso, esta crisis ha significado, como decíamos, un detrimento palpable de la credibilidad institucional, lo que ha de empujarnos a efectuar un esfuerzo especial en aras a superarlo.

Creo que no falto a la verdad si digo que todos estamos de acuerdo en que es necesario un Gobierno estable, sólido y basado en un programa, con el apoyo parlamentario necesario, y con unos objetivos programáticos acordados como elemento fundamental de actuación del nuevo Gobierno. Este era el objetivo por el que todos hemos pugnado. Dicho esto, cabe constatar un hecho: unos lo han logrado, otros no. Y, del mismo modo que desde los componentes de otra alternativa, aunque minoritaria, a Gobierno, se pedía colaboración para ellos, hoy pido a todos el mismo tratamiento: la responsabilidad de los partidos políticos es más necesaria que nunca.

Hemos superado un mal momento. Existe un alternativa de Gobierno. Critiquémosla si es necesario, pero no tratemos de derrumbarla. No ejerzamos la oposición por la mera oposición. Estamos en un momento difícil. Entre todos podemos superarlo. Ofrezco desde aquí la mano tendida a todos los partidos políticos. Tenemos que iniciar una nueva etapa de diálogo abierto y de colaboración. Hemos de reconocer que todos tenemos responsabilidades en la posible incomunicación del pasado. Me ofrezco desde hoy a mantener un clima de cercanía y diálogo entre todos, y, del mismo modo que lo planteo, espero también la necesaria

zuhurtasun osoz jokatu dutela Alderdi bakoitzari onari baino ez begiratuzko joerak gehiegizkoak izan direla garbi dago, baina beste hau ere bene-benetan esan nahi nuke, aurrean genuen arazoa ez zela, inola ere, batere irtenbide errezekoa, alegia. Batzutan, jakina, maisiatzea erantzunak ematea baino errezagoa izaten da. Eta egia hau da, herri honetan sekula egin gabeko (batasun-Jaurlaritza horixe bait da) bidea egitera gindoazena ba genekien denok, eta horrek politika-alorreko ihardunerako, lanerako eta herria jaurtzeko beste era batera jokatu beharko zela esan nahi zuen.

Behar hainbateko demokrazia-azturarik gabe gizartean, lantegia ezin izan samurra. Ulertzekoa da, beraz, politika-alderdiek aurrean zuten enpadaren aurrean zuhurtasunez jokatu izana. Azalpen hau aski bedi, beraz, eta hemen gertatu dena ikuspegi zabalagoaz eta odol hotzagoaz ulertu ahal izateko jendeari esku-zabala izateko eskea egiten diot. Nolanahi ere, genionez, larrialdi honek, ondorioz, iraskundeenganako sinisgarritasunaren galera nabarmena ekarri du; horrek gauza bere oneratuz gainditzeko berarizko ahalegina egitera eraman behar gaitu.

Jaurlaritza iraunkor, sendo eta egitarau bat oinarri duen Jaurlaritza behar delakoan denok irizkide garela esanez, ez dut egiari hutsik egiten diodanik uste. Legebiltzarkideen behar hainbateko laguntza, eta Jaurlaritza berriaren ihardunerako funtsezko osagaitzat elkarren artean erabakitako egitarau-helburuak izanezko Jaurlaritza, noski. Helburu honen atzetik ibili gara denok. Hau esanik, gauza bat garbi dagoela esan daiteke: batzuk lortu dute, besteek ez. Eta, gutxiengoa izan arren, beste Jaurlaritza-aukera osatzen zutenek, beraientzat lankidetza eskatzen zuten era berean, gaur nik jarrera bera eskatzen diet guztiei: politika-alderdien ardura inoiz ez bezala behar dugu.

Une txar bat gainditu dugu. Ba dugu Jaurlaritza-aukera. Behar izanez gero, eman jipoia, baina ez gaitezen lur jo erazten saiatu. Ez gaitezen aurkako ekintzan aurka egiteko xede hutsez aritu. Une larrian aurkitzen gara. Denon artean atera gaitezke aurrera. Hemendik luzatzen diet eskua politika-alderdi guztiei. Elkarrizketa zabalezko eta elkar-langintzazko aldi berriari ekin behar gatzaizkio. Iraganean agian harremanik ez izatean zerikusia guztiok dugula aitortu behar dugu. Nere burua gaurtik aurrera denon arteko hurbiltasun eta elkarrizketa-giroari eusten saiatzeko eskaintzen dut eta, nik han zuei

buena acogida y esfuerzo por parte de todos.

El Partido Nacionalista Vasco y el Partido Socialista de Euskadi han llegado a un acuerdo. Sin renunciar cada uno de ellos a lo que constituyen objetivos y principios propios, unos y otros han encontrado puntos de coincidencia en los diferentes campos de acción política. Hay quien confunde llegar a acuerdos con asumir las posiciones de una parte, y esto no es un acuerdo, sino un pacto de adhesión. No es éste el caso. Por referirme al Partido Nacionalista Vasco, les diré que, en lo tocante al desarrollo autonómico, resulta evidente hasta la saciedad que mi partido caminaría con mucha más celeridad si de él dependiera de modo exclusivo. Pero es obvio que no es así.

Hemos llegado hasta un punto de acuerdo determinado que valoramos muy positivamente y que consideramos suficiente para comenzar a marchar. Otros no lo considerarán tal vez así. Quien les habla respeta, como es lógico, otras opiniones, aunque discrepe de ellas. Pero a continuación me gustaría recordar que, a la hora de comparar, no debe hacerse en función de las exigencias teóricas de partida, sino de los resultados finales de unos y otros a la llegada. En cualquier caso, conviene decir siempre que la autonomía es, además, un medio para resolver mejor los problemas de la sociedad vasca.

Hemos de ampliar, pues, el debate, y hablar con mayor énfasis del programa de soluciones que unos y otros presentamos en el momento de dar respuesta a los grandes problemas con los que se enfrenta el país. Les animo a hacerlo, porque, entre otras razones, en esta ocasión el debate puede ser más vivo y sugerente que en las investiduras precedentes: esta vez todos hemos escrito mucho, y vamos por fin a poder comparar los programas de unos y otros. En otras ocasiones, como es bien sabido, nos hemos encontrado con que tan sólo unos ofrecían, mientras los demás se dedicaban a criticarles, denunciar vacíos o presentar contradicciones. Hoy, por el contrario, todos han llegado a acuerdos programáticos y por escrito, que servirán sin duda de piedra ineludible de contraste a la hora de ver las respuestas que cada cual ofrece a los problemas del país.

No quisiera terminar esta primera parte del discurso sin decir que soy muy

azaltzen dizuedan era berean, zuen guztion aldetik ere behar hainbateko abegitasuna eta ahalegina jasotzea ere espero dut.

Euzko Alderdi Jeltzalea eta Euskadiko Sozialista-Alderdia hitzarmenera iritsi dira. Bakoitzak bere helburu eta sortarau dituenei ukorik egin gabe, bai batzuk bai besteek, politika-ekintzarako alor ezberdinetan irizkidetasuneko uneak aurkitu dituzte. Ba da hitzarmenetara iristea alde batekoen jarrerak jasotzea dela uste duenik, eta hau ez da hitzarmena, atxikitasun-itunea baizik. Baina orain ez dagokigu hau. Euzko Alderdi Jeltzalearen aipamen eginez, hau esango dizuet, autonomia-garakuntzari buruzkoan, huts-hutsik nere alderdiaren esku balego, askoz azkarrago joango litzatekeela garbi baino garbiago dagoela, alegia. Baina, argi dagoenez, gauza ez da horrela.

Oso onuragarritzat jotzen dugun eta bidea egiten hasteko nahikotzat jotzen dugun hitzarmen jakin batera iritsi gara. Besteren batzuk ez dira agian uste horretakoak izango. Mintzo zaizuen honek, arrazoizko denez, bestelako iritziei, nahiz eta horiekin bat ez etorri, begirune die. Baina ondoren hau gogora-arazi nahi nuke, alderaketa egiterakoan, hori ez dela irteeran izan daitezkeen baldintzen eretzean egin behar, bidearen bukaeran batzuk eta besteek lortutako azken-emaitzenean baizik. Nolanahi ere, beti zera esatea komeni da, autonomia euskal gizarteak dituen arazoak hobeto konpontzeko bidea dela, gainera.

Eztabaidaketa, beraz, zabalagotu eta, Herriak aurre egin beharreko arazo nagusiei erantzuna emateko orduan batzuk eta besteek aurkezten ditugun aterapide-egitarauei buruz sutsuago mintzo beharra daukagu. Hori egitera suzpertu nahi zaituztet, izan ere, beste arrazoiak beste, oraingo honetan eztabaidaketa orain arte izandako izendapenetakoa baino biziagoa eta gogopizgarriagoa izan daiteke eta: oraingo honetan denok asko idatzi dugu, eta halako batean batzuren eta besteen egitarauak erkatu ahal izango ditugu. Bestetan, jakina denez, batzuk baino ez bait zuten eskaitzen, eta besteak aurkeztutakoa maisiatzen, hutsuneak salatzen edo aurka-esanak ateratzen aritzen ziren. Gaur, ordea, denak egitarau-mailako idatzizko hitzarmenetara iritsi dira, eta herri honetako arazoentzat bakoitzak eskaintzen dituen erantzunak ikusteko orduan, zalantzarik gabe, ezinbesteko erkatze-bide izango dira.

Nire hitzaldiaren lehen-zati hau ez nuke batasun-Jaurlaritzak, eta oraingoan,

consciente de las dificultades que entraña en sí mismo un Gobierno de coalición, y en este caso con el partido que gobierna a nivel de Estado. Va a ser difícil, existirán contradicciones y los avances serán lentos, porque es mucho lo que nos separa a ambos partidos. Pero con la misma franqueza les digo que lo que se haga será sólido. Estoy convencido de que los nacionalistas trabajaremos con una nueva perspectiva, y de que los socialistas se acercarán también mucho más a los problemas de un país que es tan suyo como nuestro. Creo sinceramente que podrán comprobar la honradez de nuestros propósitos y las razones profunda que, en ocasiones, explican una cierta acritud en las manifestaciones nacionalistas. Confío en que consigamos, al menos, la misma cercanía y comprensión que se logró en tiempos de José Antonio Aguirre y que tan sólo se perdió, desgraciadamente, hace todavía no demasiados años. Ojalá no sea un encuentro efímero.

Con la mayor ilusión y solemnidad, aprovecho este discurso de investidura para invitar a todos los vascos a luchar con este Gobierno por lo que va a ser su objetivo fundamental: la obtención de una sociedad integrada y en paz.

Se ha dicho, y no sin razón en ocasiones, que la nuestra es una sociedad crispada. Tal afirmación es, sin duda, discutible, y muchas veces me asalta la pregunta a propósito de la responsabilidad que la clase política tiene en dicha crispación. No les oculto que, con frecuencia, buena parte de esta irritación no es sino la que proyectamos los políticos a través de los medios de comunicación. En cualquier caso, no podemos simplificar. No cabe duda de que existen en la sociedad vasca ciertos signos de conflictividad que la diferencian. Al margen propiamente del problema de la violencia, que trastoca y parece poner en cuestión en tantas ocasiones los cimientos mismos de nuestra sociedad, parece cierto que el debate político, laboral, educativo y social, en general, se tiñen en nuestro caso de colores más oscuros que los que frecuentan otros ámbitos y sociedades bien próximos a nosotros.

Pero hay algo más: sea o no así, lo cierto es que a Euskadi, hoy, se la identifica de este modo, y sin quererlo nos vemos envueltos en una vorágine que hemos de cortar o, al menos, comenzar a desactivar. Está en juego, no lo olvidemos, una oportunidad histórica que no podemos desperdiciar, porque no sabemos si se volverá a

Erresuma mailan agintean dagoen alderdiarekin egindakoak berez dituen zailtasunez oso jabetua nagoela esan gabe bukatu nahi. Zaila izango da, aurkakotasunik izango da eta aurrerakadak piskanakoak izango dira, bi alderdion arteko aldea haundia da eta. Baina beste hau ere zintzotasun beraz diotsuet, egin dena sendoa izango dela, alegia. Abertzaleok ikuspegi berriz arituko garenaz eta sozialistak ere gurea adina eurena den herri honen arazoetara askoz gehiago hurbilduko direnaz jabetuta nago. Gure asmoen jatorra eta abertzaleak bere adierazpenetan zenbaitetan garratz-samarrak izatearen zuripide diren arrazoien sakona egiaztuko duzuelako benetako ustea dut. Jose Antonio Agirreren garaitan lortu zen eta, zoritxarrez, oraindik urte asko ez direla galdu zen hurbiltasuna eta elkarrekiko adimena lortzeko ustea dut. Ez al da iraizeko topo egitea izango.

Ilusiorik haundienaz eta haundikiro, euskaldun denak Jaurlaritza honekin batera honen helbururik nagusiena izango denaren alde, bateratutako eta pakezko gizartea lortzearen alde, aldegia, saiatzera gonbidatzeko izendapen-hitzaldi honetzaz baliatzen naiz.

Inoiz esan izan da, eta ez da arrazoirik gabe izan, gure gizarte hau suminduta bizi dela. Baieztapen hori, zalantzarik gabe, eztabaidagarria da, eta askotan etortzen zait burura sumintasun horretan politikariek duten erantzun beharrari buruzko galdera. Haserre hori, neurri haundi batean, politikariok mezubideetatik zabaltzen duguna dela zergatik izkutatu? Nolanahi ere, ez dugu soilkerian erori behar. Euskal gizartean horrek bereizgarri dituen zenbait haserre-ezaugarri ba daudela ukatzerik ez. Izuekintza-arazoa bera alde batera utziz, honek gure gizartearen zimenduak berak azpikoz gora eta hainbat aldiz zalantzan ipintzen dituela bait dirudi, politikari, lanari, hezkuntzari eta, orohar, gizarteari buruzko eztabaidak, guri dagokigunekoan, guregandik oso hurbileko beste inguru eta gizarteetakoek izan ohi dituztenak baino ilunago bilakatzen direlakoak egia dirudi.

Baina ba da besterik: horrela izan ez izan, egia hau da: gaur Euskadi horrela ezagutzen dela eta, nahi ez dugula, moztu edo horri indarra kentzen behintzat hasi behar dugun zurrunbilo horretan murgilduta aurkitzen gara. Alperrik galtzen uzterik ez daukagun kondaira-mailako aukera da, ez ahaztu, jokoan dagoena, ez bait daukagu

repetir. Desgracidamente, a lo largo de la reciente historia de nuestro pueblo no hemos tenido tantas oportunidades como para que echemos por la borda un momento, que, si lo observamos con un mínimo de perspectiva, no ha hecho sino empezar. Todos nos ofuscamos con exceso con el día a día, nos confundimos y, lo que es peor, confundimos sin querer a los demás. Hay que decir bien alto, porque es verdad, que hemos acertado con el camino elegido, que existen razones más que suficientes para continuar luchando y que confiamos plenamente en nuestro pueblo, en nuestras gentes y en las jóvenes generaciones de vascos.

Dicho esto, es preciso decir que Euskadi, al igual que cualquier otro país de su entorno, sufre problemas que hunden sus raíces parte en razones comunes con las de los demás países, parte en su propio y peculiar devenir histórico. Y ambos grupos de razones son, indistintamente, de índole cultural, social y político.

El alto índice de paro, sobre todo juvenil, junto con los insuficientes sistemas de protección social para aliviar sus consecuencias, la frustación producida por las deficiencias de un sistema educativo que no es capaz de dar respuesta ni a las aspiraciones de conocimiento de los jóvenes ni a sus necesidades de inserción en el mundo del trabajo, la incitación incontrolada al consumismo, la quiebra de un sistema de valores ético-sociales en proceso de sustitución, la poca estimulación al consumo de los bienes culturales y la deficiente oferta de éstos, las escasas oportunidades de socialización en los núcleos urbanos, el hacinamiento de muchas viviendas y los todavía escasos espacios estimulantes de ocio y tiempo libre, el consumo de drogas, la desintegración de ciertos grupos sociales y otras variadas razones de muy diversa índole dificultan la convivencia en nuestra sociedad y la hacen, con frecuencia, tensa y conflictiva.

Estamos convencidos de que la situación que atravesamos desde hace ya algún tiempo no es ajena a esta conflictividad. El pueblo vasco se encuentra en un proceso ya antiguo, pero reavivado con la venida de la democracia, de reconstrucción y reestructuración de su identidad política, social y cultural. Está reconstruyendo sus instituciones propias, y comienza a tomarlas como punto de referencia de su identidad institucional y representativa. Está inmerso en una profunda, aunque a veces inerme, reflexión sobre su cultura. Pretende recu-

besterik izango dugunik esaterik. Zoritxarrez, gure herriaren azken-aldiko kondairan zehar ez dugu, gutxienezko ikuspegiz begiratzen badiogu, hasi besterik egin ez den unea ankaz gora botatzeko hainbateko egokiera-aukerarik izan. Egunean egunekoak gehiegi itsutzen gaitu guztiok, nahastu egiten gara eta, oraindik okerrago dena, ustegabe gainontzekoak nahasten ditugu. Aukeratu dugun bidea zuzena dela, borrokan jarraitzeko nahikoa eta gehiagoko arrazoiak daudela eta gure herriarengan, gure jendeengan eta euskal belaunaldi gazteengan bete-beteko ustea dugula ozenki esan beharra dago, egia da eta.

Hau esan ondoren, esan beharra dago Euskadik, bere inguruko beste edozein herrik bezalaxe, arazo latzak dituela, horietako batzuren sustraiak beste herritakoekin baterako arrazoietan, beste batzuk berebere eta berarizko kondaira-etorkizunean sartzen direla. Eta bi arrazoi-sortok, aukeran, kultura, gizarte eta politikazkoak dira.

Participación empresarial. En los nuevos modelos de unidades empresariales que están surgiendo en los países más avanzados se observa, en general, la tendencia a una mayor implicación de todos los componentes en las decisiones de ella, una más estrecha identificación con sus objetivos y sus problemas, y, en definitiva, una participación más activa de todos cuantos integran la empresa.

Se hace imprescindible avanzar, a través de los foros de diálogo y negociación existentes, en la definición de los que podrían ser puntos básicos en este orden de

rreratuenetakoarekin alderagarria dadin, norbanako-jabetzapeko eta herri-erakundeek eta enpresek bereziki, gero eta baliapide gehiago zuzendu beharko dituzte gaikuntza-ekintzetarako.

Bilakabide honen euskarri nagusia hezkuntza-erapidetzak osatzen du, eta sortzen joango direla uste daitekeen lantoki berrietara egokitzen joan beharko du honek. Alde honetatik, Jaurlaritzak honako asmo hauek ditu:

a) Dagoenekoz sortarazita dauden egitarau berezietan sakontzekoa.

b) Arduralaritza nagusiari, ihardutze-bidezko gaikuntzari buruzko agintepidea berehala eskuratu dezan akio egitekoa.

c) Lanbide-hezkuntza bere osoan hartuz, lanerako hezkuntza eraginkorragoa izaten lagundu ahal izateko, erapidetza ahalik gehien sartzen saiatuz, hezkuntza-modu horren antolakuntza aztertzekoa.

Gizarte-ekonomia. Eusko Jaurlaritzak, Europako Legebiltzarrarekin eta Eusko Legebiltzarrarekin bat etorriz, koperatibak eta gizarte-ekonomiaren jaurpidepeko enpresak lanbideak sortarazteko eta lan-baldintzak hobetzeko berarizko egokitasuna duten izaikitzat hartzen, eta ekonomia eta gizartearekiko gai guztietarako etenik gabeko solaskide direnez onartzen ditu. Alde honetatik, Koperatiben Kontseilu Nagusiari indar emango dio, hartutako bideari jarraiki, eta zehazki baterakundeak sortzeko eta bere jaurtze-erakundeak Arduralaritzarekiko atxikipenik gabe erabat demokraziazkotzeko bideari buruzkoan, erabateko burujabetza lor dezan lagunduz.

Enpresen partaidetza. Laterririk aurreratuenetan sortzen ari diren era berriko enpresetan, orohar, zera ikusten da, horietan hartzen diren erabakietan enpresaren osagarri diren guztiek gero eta gehiago eskuhartzeko, enpresako helburu eta arazoez gero eta gehiago jabetzeko, eta, azken batean, enpresa osatzen duten guztien partaidetza eginkorragoa izateko joera dagoela, alegia.

Dagoenekoz elkarrizketarako eta ituneketarako ba ditugun aukeren bidez, asmo hauei jarraiki, nahi dugun gizarte-politika aurrerakoia egiteko dauden joerei atxikiz,

ideas, de acuerdo con las tendencias de una progresista y deseada política social. En este sentido, el Gobierno impulsará el funcionamiento del Consejo Económico y Social como órgano de participación y consulta, asesor de la política económica y social como elemento conductor del proceso dinámico de planificación y concertación. Igualmente, propiciará la potenciación de organismos y mesas de encuentro en los distintos sectores, de forma que permitan la participación democrática y cercana de la sociedad en aquellas materias que les afectan.

Bienestar social. Una situación de crisis generalizada castiga a la sociedad en su conjunto, pero de manera especial a determinados individuos y colectivos. La Administración Pública no puede olvidar su compromiso y obligación de garantizar una vida digna a los ciudadanos. Medidas colectivas de carácter específico deberán tenerse como complemento irrenunciable de una política de empleo.

Nuevas tecnologías. Un elemento básico e ineludible en la evolución prevista de la economía mundial es la tecnología, tanto en lo que respecta a productos como a procesos de elaboración. Debemos procurar los incentivos adecuados que predispongan a los diferentes agentes sociales hacia la adopción de los avances tecnológicos que vayan surgiendo, así como animar la generación de ellos en las empresas y centros de investigación del propio País Vasco. Igualmente, deberá potenciarse la investigación científica en la Universidad y otras entidades del mundo de la cultura y de la educación, tratando además de establecer aquellos mecanismos que permitan una mayor y más fructífera interpenetración de las mencionadas instituciones con la estructura productiva en particular, y con el conjunto de la sociedad en general.

Unido a este tema de nueva tecnología, y en el marco de la macroingeniería, el Gobierno, consciente de la importancia que desde el punto de vista de la generación de empleo, la incorporación de nuevas tecnologías, el desarrollo de una nueva cultura industrial, la integración comunitaria y la rentabilidad social suponen los grandes proyectos infraestructurales, abordará la realización de los principales proyectos de que dispone. A tal fin, procurará la participación de la Administración central en el ámbito de sus competencias.

Investigación. En el campo de la investigación, la ciencia y tecnología, el Gobier-

oinarrizko izan litezkeen alderdien zehazketan teko lanean aurrera egitea ezinbesteko gertatzen da. Alde honetatik, Jaurlaritzak Ekonomia eta Gizarte Kontseilua eskuharmenerako eta argipiderako, ekonomia eta gizarte-politikarako aholku-ematezko saila, egitamuketa eta itune-bide oldarkoiaren baliapide artezgarria denez ihardunean jartzeari indar egingo dio. Halaber, alor ezberdinetan elkarrizketarako erakundeei eta tokiei indar ematen saiatuko da, doazkion gaiei buruzkoan gizarteak demokrazia-bidez eta bertatik bertara eskuhartzeari bide emateko eran.

Gizarte-ongundea. Orotariko larrialdiegoerak gizartea bere osoan zigortzen du, baina lagun eta sail jakin batzuk izaten dira zigortuenak. Herri-Arduralaritzak ez dauka herritarrentzat duintasunezko bizimodua bermatzeko emanda daukan agindua eta betebeharra ahaztuta uzterik. Lanbide-politikaren utzi ezineko osagarritarako izan beharko duten berarizkotasunezko bateango neurriak.

Teknologia berriak. Bai ekoizpideei bai egitebideei buruzkoan, teknologia da mundu guztiko ekonomiaren aurrerabidean funtsezko eta ezinbesteko den osagaia. Gizarte-sail ezberdinak sortzen joan daitezen teknologiazko aurrerapenak onartzeko gert jartzeko suzpergarri egokiak inguratu eta aurrerapen horiek Euskal Herriko bertako lantoki eta ikertegietan sortu daitezen bultz egin beharra daukagu. Halaber, Unibertsitateak eta kultura eta hezkuntza-alorretako beste erakundeek ekoizpide-egiturarekin bereziki, eta gizarte osoarekin orohar elkar-hartze haundiagoa eta oparoagoa izateko bide eman dezaten baliapideak gauzatzen saiatuz, esandako erakundeotan zientzia-mailako ikerkuntzak egiteari ere indar eman beharko zaio.

Teknologia berriekiko gai honekin batera, eta baltsango ingenieritzaren esparruan, lanbideak sortzearen, teknologia berriak sartzearen, industria-kultura berria zabaltzearen, elkartean sartzearen eta azpi-egiturazko egitasmo haundiek berekin dituzten gizarterako onurabideen ikuspegitik duten garrantziaz jabeturik, bere esku dituen egitasmo nagusiak eginbideratzeari ekingo zaio Jaurlaritza. Horretarako, Arduralaritza bere agintepideen eremuan partaide izan dadin saiatuko da.

Ikerkuntza. Ikerkuntzaren, zientziaren eta teknologiaren alorrean, Eusko Jaurlari-

no Vasco dirigirá sus esfuerzos a la planificación del desarrollo tecnológico, a estimular el poder científico y fomentar la actitud que soporta el sistema científico. Para ello, propiciará una nueva organización potenciadora de la innovación y la creatividad de todos los sectores tecnológicos y la iniciativa privada, ampliando la infraestructura tecnológica actual, consolidando los Entes Vascos de la Productividad y Estandarización, de la Tecnología y de la Informática ya iniciados, así como la definición e implantación de las Academias de Ciencias, Ingeniería y Tecnología que contengan el cuerpo científico.

Relaciones laborales. Las relaciones laborales constituyen un elemento esencial en toda política socio-económica. En este sentido, el Gobierno propiciará el pleno ejercicio de la autonomía de los agentes económicos y sociales, facilitando el diálogo en los diversos aspectos precisos para estructurar unas relaciones laborales adaptadas a la realidad industrial, social y política de Euskadi, a partir de los acuerdos e intereses de los interlocutores sociales, centrales sindicales y asociaciones empresariales. El Gobierno considera que es necesario continuar en la política de apoyo institucional a las representaciones sindicales del País Vasco.

Finanzas públicas. Pero, para poder efectuar este importante esfuerzo, es preciso garantizar el sustento financiero que lo soporta. Y todos sabemos que, desgraciadamente, la Administración central y la vasca se han enfrentado con ocasión de la negociación del Cupo, piedra fundamental de cualquier impulso económico que en este país quiera hacerse.

Es por esto que me complace comunicar que el Partido Nacionalista Vasco y el Partido Socialista han llegado a acuerdos importantes en lo que hace referencia al Cupo Provisional de 1987, leyes de Cupo y otros aspectos financieros. Es indudable que a partir de los acuerdos alcanzados en esta materia, y a pesar de las dificultades que tendremos que resolver, podemos contemplar el futuro con mucha mayor estabilidad, dado que hemos resuelto cuestiones que parecían difíciles de salvar hace tan sólo unos meses.

Cupo Provisional 1987: Para el cálculo de los Cupos Provisionales se tendrán en cuenta la disposición transitoria quinta del Concierto Económico, Ley 12/1981, y la metodología utilizada en años anteriores,

tzak teknologiaren hobekuntzarako egitamuketara, zientziazko ahalmena axukatzera eta zientzia-erapidetzaren euskarri den jarrera suztatzera zuzenduko ditu bere ahaleginak. Horretarako, gaur egungo teknologiaren azpiegitura zabalduz, hasiera emanda dauden Ekoizpiderako eta Arau-Baterakuntzarako, Teknologiarako eta Informatikarako Euskal Erakundeak sendotuz, teknologiazko alor guztien eta norbanakoen arioaren berrikuntza egitera bultzatzeko antolakuntza berria eta sormena lehiaraziko ditu, baita zientzia gaiak barne dituzten Zientzia, Ingenieritza eta Teknologia-Akademiak zermugatzea eta sortaraztea ere.

Lan-harremanak. Lan-harremanak gizarte-ekonomiazko politika guztietan funtsezko alderdi gertatzen dira. Alde honetatik, Jaurlaritzak, gizarte-sailen, sindikaritza-erakundeen eta enpresaritza-bazkunen hitzarmen eta nahietatik abiatuta, Euskadiko industria, gizarte eta politika-egoerari egokitutako lan-harremanak egituratzeko beharrezko diren alderdi bereziekikoan elkarrizketarik izateko bide eginez, ekonomia eta gizarte-sailak erabateko burujabetasunaz aritzea lehiaraziko du. Jaurlaritzaren ustez, Euskal Herriko sindikaritza-ordezkaritzei erakunde-mailako laguntza emanezko politika egiten jarraitu beharra dago.

Herri-ondasunak. Baina, ahalegin haundi hau egin ahal izateko, horren dirubidezko azpi-eustarria segurtatu beharra dago. Eta denok dakigu erresumako eta euskal Arduralaritza, zoritxarrez, herri honetan egin nahi den edozein bultzada ekonomikotarako oinarri den kupoaren ituneketa dela eta bekoz-beko jarri direla.

Horretxegatik, Euzko Alderdi Jeltzaleak eta PSE-PSOE-k 1987garreneko Behin-behingo Kupoarekikoan, Kupoaren legeekikoan eta dirubide-alorreko beste alderdiekikoan garrantzizko hitzarmenetara iritsi direla jakineraztea atsegin zait. Gai honekikoan lortu ditugun hitzarmenetatik abiatuta, eta konpondu beharreko eragozpenak izango ditugun arren, etorkizunari askoz iraunkortasun haundiagoz begira diezaiokegu, izan ere, direla hilabete batzuk gaindikaitzak zirudíten arazoei aterapide eman bait diegu.

1987garreneko Behin-behingo Kupoa: Behin-behingo Kupoaren haztaketarako Ekonomia-Itunearen aldibaterako boskarren erabakia, 12/1981 Legea, eta aurreko urteetan erabilitako ihardutze-arauak izango

siendo sustituidos los cupos así determinados por los que resulten procedentes al aplicar la ley de Cupo cuando ésta se apruebe. La cuantía de los Cupos Provisionales exigirá acuerdo entre las partes.

Leyes de Cupo: Mediante ley votada en las Cortes Generales en forma de artículo único, previo acuerdo con la Comisión Mixta de Cupo, que estará compuesta, de una parte, por un representante de cada Diputación Foral y otros tantos del Gobierno Vasco, y, de otra, por un número igual de representantes de la Administración del Estado, se procederá a la aprobación de las leyes de Cupo aplicables a los quinquenios 82-86 y 87-91 que, una vez aprobadas, darían lugar a las oportunas liquidaciones de los Cupos Provisionales.

La cuantificación del Cupo y sus liquidaciones resultantes del procedimiento antes descrito, y previo acuerdo de las partes, garantizarán el equilibrio económico y financiero del País Vasco y contribuirán al sostenimiento de las cargas no asumidas. La valoración de las cargas asumidas incluirá todos los créditos de gastos asociados a la transferencia, cualesquiera que fuera su naturaleza. También se estudiará en las futuras leyes de Cupo la financiación requerida por el ejercicio de competencias concurrentes, tales como estadística, etcétera.

Otros aspectos financieros: El Gobierno Vasco, a la vista de las previsiones existentes en relación con la posible desaparición de las condiciones privilegiadas de financiación y de la oportunidad económica de la decisión, considerará la conveniencia de ejercitar la competencia atribuida por el Estatuto de Autonomía respecto a la creación, financiación y puesta en funcionamiento del Instituto de Crédito Oficial Vasco.

Aspectos tributarios: El Gobierno presentará al Parlamento Vasco el proyecto de ley que regula la coordinación, armonización fiscal y colaboración mutua entre las instituciones de los territorios históricos, en los términos previstos en el Estatuto de Autonomía y el Concierto Económico.

Punto tercero, tercera parte: Defensa de los valores morales y democráticos.

Una sociedad integrada y en paz no es alcanzable mientras la violencia forme parte de su tejido y condicione la conviven-

dira kontutan, era horretan jarritako Kupoen ordez, Kupoaren legea onartu dadinean, hori indarrean jartzetik aterako direnak ezarriko direla. Behin-behingo kupoen hainbatekoak bi aldeen arteko hitzarmena eskatuko du.

Kupo-legeak: Alde batetik, Foru-Diputazio bakoitzetikako ordezkari batek eta Eusko Juarlaritzako beste hainbestek, eta, bestetik, Erresumako Arduralaritzaren izeneko beste hainbeste lagunek osatuko duten Kupoarekiko Askotariko Batzordearekin hitzarmenera iritsi ondoren, Gorte Nagusietan bototara atal bakarreko lege eran jarritako legearen bidez, 82-86 eta 87-91 bosturtekoetan ezarriko diren Kupo-legeak onartzera joko da; eta, horiek onartu ondoren, Behin-behingorako kupoen bidezko kontu-garbiketak egingo lirateke.

Kupoaren hainbaketak eta lehen esandako ihardunbidetik ateratako kontu-garbiketek, alde ezberdinetakoak irizkide jarri ondoren, Euskal Herriaren ekonomiazko eta dirubidezko oreka segurtatuko eta eskuratu gabeko zorpideei eusten lagunduko dute. Norberetzakotutako zorpideen haztaketan eskuraketarekin loturarik duten gastutarako diru-izendapen guztiak sartuko dira, horiek nolanahikoak direla ere. Hemendik aurrerako Kupo-legeetan bien agintepeko gaien, hona nola, estatistikaren, etabarren, erabilera dela eta beharko den dirubideketa ere aztertuko da.

Dirubidetzako beste alderdiak: Eusko Jaurlaritzak, dirubideketarako abantailazko baldintza eta erabakiak hartzeko ekonomiazko aukera agian kentzeari buruz dauden aintzin-usteak ikusi ondoren, Euskal Mailegu Ofizialaren Erakundea sortzeaz, horren dirubideak egiteaz eta ihardunbideratzeaz Autonomia-Estatutoak ematen duen gaitasunaz baliatzearen komenigarritasuna aztertuko du.

Zergapidetzazko alderdiak: Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrari, Autonomia-Estatutoan eta Ekonomia-Itunean ohartemandako neurritan egindako, Kondaira-lurraldeetako erakundeen arteko antolakidetza, zerga-erakidetza eta elkar-laguntza araupetzeko lege-egitasmoa bidaliko dio.

Hirugarren puntua, hirugarren zatia: Moralaren alorreko eta demokraziazko balioen aldezpena.

Izuekintza gizarte-egituraren zati izan eta horko kideen arteko bizimoduari eragiten dion bitartean, bateratutako eta pakez-

cia entre sus miembros. Debemos ser capaces de ofrecer una respuesta al problema de la violencia desde una vertiente positiva de reafirmación de determinados valores, de la ética, del cumplimiento responsable de las propias obligaciones, del derecho a la vida, a la libertad, a la discrepancia, a la integridad física y moral. Es preciso emprender seria e ilusionadamente la tarea de inculcar y expandir en Euskadi una auténtica regeneración moral. Es fundamental despertar y desarrollar el sentido de la responsabilidad de la sociedad vasca en la resolución ordenada y pacífica de sus propios problemas.

La violencia política, el hecho de su existencia y las consecuencias que de ella se derivan, es algo que no se puede por ningún concepto utilizar de modo partidista, con fines particulares o electoralistas. Lo contrario es colaborar objetivamente para que se cumplan los fines que la violencia y los violentos persiguen. No debemos permitir que la violencia consiga sus objetivos de condicionar de modo determinante la vida política. La violencia no puede convertirse en factor de referencia para la actuación política, y esto debe constituir un permanente esfuerzo en tal sentido por parte de las fuerzas políticas.

Lucha contra la violencia.

En coherencia con lo expuesto, una estrategia global frente al problema de la violencia debe comprender:

1. Un diagnóstico y una declaración de principios coincidentes con la declaración institucional del Parlamento Vasco de 15 de marzo de 1985. En acatamiento de lo expresado en dicha declaración, aprobada por unanimidad de los grupos parlamentarios, la denuncia de la falta de legitimidad de las organizaciones que utilizan la violencia para expresar la voluntad del pueblo vasco y, consecuentemente, el rechazo de su pretensión de negociar los problemas políticos del pueblo vasco, que únicamente deben serlo entre los partidos políticos con representación parlamentaria, el Gobierno Vasco y, en su caso, el Gobierno del Estado.

2. La concienciación de que, en un sistema de libertades en el que todas las ideologías pueden ser defendidas democrática y pacíficamente, no existe ningún tipo de justificación para la utilización de la violencia.

ko gizartea lortu ezinezko gertatzen da. Izuekintzaren arazoari erantzuna zenbait balio, hona nola, etikazkoa, bakoitzak bere betebeharrak arduraz betetzekoa, bizitzeko, askatasunerako, beste iritziko izateko, gorputz eta gogo-osasunerako eskubidea izatea sendotuzko alde baikorretik eskaintzeko gauza izan behar dugu. Euskadin morala benetan indar-berritzea suztatzeko eta zabaltzeko lanari benetan eta ilusioz ekin beharra dago. Euskal gizarteak bere arazoak arauzkotasunez eta pakebidez erabakitzeko izan beharreko erantzukizun-sena esnatu eta haunditzea funtsezko gertatzen da.

Politikazko indarkeria, hori izatea eta horri darizkion ondorioak, alderdikeriaz, inoren onerako edo hauteskundekeriazko xedez inola ere erabiltzerik ez dagoen gauza da. Alderantzizko jokabidea indarkeriaren eta indarkeriaz baliatzen direnen xedeak betetzeko benetako laguntza ematea da. Indarkeriari ez diogu bere helburuak politika-bizitzan erabateko eragina izanez lortzen utzi behar. Politika-ihardunean ez dago indarkeriari begira aritzerik, eta honek politika-indarren horretarako etengabeko ahaleginerako bide izan behar du.

Indarkeriaren aurkako borroka.

Esan dugunari gatxezkiola, indarkeriaren aurkako jokabide osoan honako hauek izan behar dute:

1. Igarketa eta Eusko Legebiltzarrak 1985garreneko martxoaren 15ean egindako aldarrikapenarekin bat etorrizko oinarri-irizpideen aldarrikapena. Legebiltzar-taldeek ahobatez onartutako aldarrikapen horri men eginez, euskal herriaren nahia adierazteko indarkeria erabiltzen duten erakundeen legezkotasunik ezaren salakuntza eta, beraz, euskal herriaren politikazko arazoak itunebidepean jartzeko duen nahia arbuiatzea, horiek Legebiltzarrean ordezkariak dituzten politika-alderdien, Eusko Jaurlaritzaren eta, hala behar izanez gero, Erresumako Jaurlaritzaren artean baino ez bait dira egin behar.

2. Pentsakera guztien aldezpena egin daitekeeneko askatasunezko erakuntza batean, indarkeria erabiltzeko inolako arrazoibiderik ez dagoenaz arduratzea.

3. El favorecimiento de las mejores condiciones de estabilidad política a través del desarrollo estatutario y de otras medidas que tiendan a la consolidación de las instituciones representativas.

4. La adopción y aplicación de las medidas propuestas en el informe sobre la violencia elaborado por la Comisión Internacional de Expertos (Informe Rose).

5. La defensa de la legitimidad de todas las ideas políticas y el rechazo de la utilización de métodos violentos y -en general- no democráticos para su defensa, de manera que se fortalezca su marginalización como fenómeno social y político.

6. Una acción política estrictamente democrática y amparadora y defensora de los derechos humanos.

7. El impulso y agilización en la vía de la reinserción social, con el respaldo consiguiente de las instituciones.

8. La definición como objetivo de los demócratas en la consecución de la integración política de los sectores sociales que en Euskadi legitiman la violencia de una u otra manera.

9. El apoyo político y protección necesarios a los ciudadanos amenazados o extorsionados.

10. Especial referencia al desarrollo y asunción de competencias por parte de la Ertzaintza, de acuerdo con lo previsto en el capítulo relativo al desarrollo autonómico, en relación con las medidas a que se refiere el Informe Rose anteriormente citado.

11. El establecimiento de una política de búsqueda del entendimiento con el Gobierno del Estado en la definición de la estrategia contra el terrorismo.

Política educativa.

La política educativa y cultural constituirán puntos fundamentales en lo tocante a la voluntad de defensa y generación de los valores morales y democráticos. En lo que hace referencia a la educación, a partir del artículo 16 del Estatuto de Autonomía, y dentro de este marco general, la Comunidad Autónoma organizará el sistema educativo vasco, adecuándolo a las ne-

3. Estatutoa osabideratuz iraunkortasun-politikarako aukerarik onenak eta ordezkotza duten erakundeak sendotzera joko duten beste neurriak erraztea.

4. Indarkeriari buruz Arituen Nazioarteko Batzordeak egindako txostenean (Rose txostena) aurkeztutako neurriak hartu eta betebideratzea.

5. Politika-pentsakera guztien aldezpena eta horien aldezpenerako indarkeriazko eta -orohar- demokraziaz besteko aritze-bideen erabilpena arbuiatzea, horien bazterketa gizarte eta politika-gertakari bilakarazi eta areagotzeko eran.

6. Demokrazia huts-hutseko eta giza-eskubideak babesteko eta aldezteko politika-iharduna.

7. Birgizarteratze-bideak suztatzea eta bizkortzea eta, horri darionez, erakundeen aldetikako laguntza.

8. Politika-bidean bat egitea demokrazia-zaleen helburu gisa hartuz, Euskadin era batera edo bestera indarkeria bidezkotzat jotzen duten gizarte-sailak zeintzuk diren zehaztea.

9. Meatxupeko eta indarkeriapeko herritarrei behar hainbateko politikazko laguntza eta babesa ematea.

10. Gorago aipatutako Rose txostenean esaten diren neurriei buruzkoan, autonomia osabideratzeari buruzko atalean ohartematen denaren arauera, Ertzaintzak bere gain hartu eta osabideratzeko agintepideen berarizko aipamena.

11. Izuekintzaren aurka eraman beharreko jokabidea zehazteko, Erresumako Jaurlaritzarekin elkar hartzea bilatzeko politika egitea.

Hezkuntza-politika.

Moral-alorreko eta demokraziazko balioak zaintzeko eta sortzeko asmoarekikoan funtsezko puntuak izango dira hezkuntza eta kultura-politika. Hezkuntzari dagokionekoan, Autonomia-Estatutoaren 16garren atala abiapuntu izanik, eta guztizko esparru horren barruan, Autonomia-Elkarteak euskal hezkuntza-eraketa bertako beharrei eta hemengo herritarren buru-

cesidades específicas del mismo y a la voluntad de autogobierno de sus ciudadanos.

Educación no universitaria: Partiendo de la existencia de la red pública, de la red privada y de la red de ikastolas, la reordenación del sistema educativo vasco no universitario tendrá como objetivo alcanzar la consolidación de una única escuela pública vasca, democrática, plural y de calidad, complementada con una única red privada de centros docentes, sostenida con fondos públicos mediante un régimen de conciertos.

Para alcanzar el objetivo fijado de la consolidación de una única escuela pública vasca, se procederá a la elaboración de una ley de integración de las ikastolas en la red pública. Se tomará como texto base para ello el documento consensuado en la ponencia correspondiente de la anterior Legislatura. Para que la ley permita la integración mayoritaria del sector de ikastolas, se tratará de buscar el acuerdo con los sectores afectados. Las ikastolas que no se integren en la red pública quedarán en igualdad de condiciones económicas que el resto de centros privados.

También dentro del objetivo fijado de la consolidación de una única escuela pública vasca, se procederá a la creación de los cuerpos docentes no universitarios propios de la Comunidad Autónoma, que serán los únicos existentes en esta Comunidad. Ello se hará dentro del marco de lo que establezca la ley de Función Pública del País Vasco, y teniendo en cuenta las normas básicas de la Ley 30/84, de Medidas para la Reforma de la Función Pública. De conformidad con el contenido del artículo 16 del Estatuto de Autonomía, la Comunidad Autónoma desarrollará los aspectos relacionados con la condición de acceso, provisión de plazas, desarrollo de la carrera docente, situación administrativa, dedicaciones y sistemas retributivos para la mejor adaptación a las necesidades y especificidades del sistema educativo vasco, teniendo como objetivo garantizar la igualdad entre todos los funcionarios docentes de la Comunidad Autónoma, con independencia de su Administración de procedencia.

En lo que respecta a la financiación de los centros concertados, el módulo de concertación se fijará en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma. En los módulos económicos por unidad se diferenciarán: los gastos de personal docente y no docente, incluidas las cotizaciones por cuo-

jabetza-nahiari egokituz antolatuko du.

Unibertsitateaz besteko hezkuntza: Herri-mailako eta norbanakoen jabetzapeko-mailako antolapideak eta ikastolen antolapidea badaudenez gero, unibertsitatekoaz besteko euskal hezkuntzaren birrantolakuntzarako helburuak honako hauek izango dira: euskal herri-eskola bakar, demokraziazko, askar eta ona finkatzea, horren osagarri, itunepeko jaurpidearen bidez herri-diruz eutsitako ikastetxe-sare bakar bat izanik.

Euskal herri-eskola bakar bat finkatzeko jarritako helburua lortzeko, ikastolak herri-mailako sarean sartzeko legea egiteari ekingo zaio. Horretarako oinarrizko idazki, aurreko legegintza-aldian horretarako lan-taldean irizkidetasunez egindako idazlana izango da. Legeak ikastolarik gehienak sartzeko bide eman ahal dezan, hori doakien sailekin hitzarmena lortzeko ahaleginak egingo dira. Herri-mailako sarean sartzen ez diren ikastolak gainontzeko norbanako alorreko ikastetxeen ekonomia-aukera berdinetan geratuko dira.

Euskal herri-eskola bakarra finkatzeko jarritako helburuaren barruan, Autonomia-Elkartearen berenezko unibertsitatekoez besteko iraskasle-sailak ere sortaraziko dira, eta Elkarte honetako bakarrak horiek izango. Hori Euskal Herriko Herri-Ihardunerako legean ezarriko denaren esparruan, eta Herri-Ihardunaren Aldakuntzarako Neurriei buruzko, 30/84 Legeko oinarrizko arauak kontutan izanik egingo da. Autonomia-Estatutoaren 16garren atalak dioenaren arauera, Autonomia-Elkarteak, sartzeko baldintzei, lantokiak betetzeari, irakaskuntzaren aurrera-bideari, arduralaritza-egoerari, euskal hezkuntza-eraketaren behar eta berarizkotasunei ahalik eta ondoen egokitu ahal izateko lanbideei eta lansari-moduei buruzko alderdiak osabideratuko ditu eta, hori, Autonomia-Elkarteko irakaskuntzarako herri-lanari guztien arteko berdintasuna bermatzea helburu izanez.

Itunepeko ikastetxeen dirubideketari gagozkiola, ituneketarako neurri-eredua Autonomia-Elkarteko Diruegitamu Nagusietan zehaztuko da. Ikastetxe bakoitzeko ekonomiazko neurri-eredutan honako hauek bereiziko dira: irakasleen eta irakasleez bestekoen gastuak, ugazaben bazkide-sa-

ta patronal y Seguridad Social; los gastos de funcionamiento y los ordinarios de mantenimiento y conservación, y los de reposición de inversiones reales.

El módulo fijado en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma constará del módulo básico fijado en los Presupuestos Generales del Estado y el módulo complementario específico de la Comunidad Autónoma. Dichas cantidades se fijarán con criterios análogos a los aplicados a los centros públicos de las mismas características.

Los centros acogidos al concierto deberán cumplir los requisitos exigidos en las convocatorias destinadas a tal efecto.

De acuerdo con el objetivo de extender el periodo escolar obligatorio de los 4 a los 16 años, asegurando la gratuidad según concierto pleno en el nivel de EGB, y cubiertas las necesidades previstas para el sector público educativo en estos niveles, se procederá durante la Legislatura a la ampliación de la fórmula de concierto pleno en los niveles comprendidos entre los 4 y 16 años.

La regulación de los órganos de participación y gestión de los centros públicos tendrá como objetivo garantizar un funcionamiento democrático de los mismos. Las propuestas que se recogen en este acuerdo se someterán a una negociación con los representantes de padres, profesores y, en su caso, de los alumnos.

Sin perjuicio de la posibilidad de autorizar modelos específicos ajustados a la idiosincrasia, vitalidad y especificidades de cada comunidad educativa, la acción de Gobierno se orientará:

1. A asegurar la participación de los diferentes sectores de la comunidad educativa en los órganos colegiados de gobierno. A tal fin se establecerá una normativa que, garantizando en todos los centros la existencia de unos órganos básicos -claustro y Consejo Escolar-, posibilite la existencia de otros -Asamblea de Centros, Comisión Permanente...- que satisfagan la voluntad de un mayor grado de participación de la comunidad educativa.

2. A posibilitar el máximo grado de autonomía pedagógico-didáctica y un grado limitado de autonomía financiera que permita la ejecución de proyectos es-

riagatikakoak eta Gizarte-Segurantzari ordaindu beharrekoak barne; ihardunerako gastuak eta zaingorako eta onean eusteko ohizkoak eta benetan egindako diruezarketak ordaintzearenak.

Autonomia-Elkartearen Diruegitamu Nagusietan zehaztutako neurri-extereduak Erresumako Diruegitamu Nagusietan zehaztutako oinarrizko neurri-eredua eta Autonomia-Elkarteak bere duen osagarrizko neurri-eredua izango ditu. Hainbateko horiek nolakotasun bereko herri-ikastetxeei ezarritakoak bezalakoxe irizpideez zehaztuko dira.

Ituneari atxikitako ikastetxeek horretarako egingo diren deialdietan eskatutako baldintzak bete beharko dituzte.

Erabateko ituneak dioenez, OHO mailan dohangotasuna bermatuz, eta maila hauetan hezkuntzako herri-alorrarentzat ohartemanda dauden beharrak bete ondoren, nahitaezko eskola-aldia 4 urtetik 16ra luzatzeko helburuari jarraiki, Legegintzaldi honetan, 4 urtetik 16rako mailetako erabateko itunebidea zabaltzeari ekingo zaio.

Herri-eskoletako eskuhartze eta eraentza-erakundeen araupeketak erakundeon demokraziazko ihardun bermatzea izango du xede. Hitzarmen honetan jasotzen diren saloak gurasoen, irakasleen eta, hala behar izanez gero, ikasleen ordezkariekin itunetzearen esku jarriko dira.

Hezkuntza-elkarte bakoitzaren berezitasunei, bizkortasunari eta berarizkotasunari egokitutako berarizko ereduak onartu ahal izatearen kaltetan gabe, Jaurlaritzaren ihardunak honako haueitara joko du:

1.- Hezkuntza-elkarteko sail bereziek Jaurlaritzaren bateango ihardutze-erakundeetan eskuhar dezatela segurtatzera. Horretarako, ikastetxe guztietan oinarrizko sail batzuk -irakasletaldea eta Eskola-Kontseilua-izatea bermatuz, hezkuntza-elkartearen partaidetza haundiagorako nahia beteko duten beste batzuk -Ikastetxe-Batzarra, Batzorde Iraunkorra...- izateko bide emango duen araupidetza egingo da.

2.- Guztietan dohangotasun eta borondatezkotasun-irizpideak izatea bermatuz, berarizko egitasmoak egiteratzeko bide emateko ahalik eta irakaskera-

pecíficos, garantizando en todos los principios de gratuidad y voluntariedad.

3. A la configuración de equipos de dirección que, designados con arreglo al sistema que se establezca, y con las competencias y funciones que les correspondan, garanticen una acción académica de acuerdo a los intereses generales de la comunidad educativa. El criterio a seguir en su composición será el de paridad entre padres, profesores y alumnos, corrigiendo la de éstos últimos en EGB, realizándose la elección en base al criterio de proporcionalidad.

Asimismo, se procederá mediante ley a la constitución de los Consejos Escolares de la Comunidad Autónoma y territoriales.

Para cumplir las disposiciones correspondientes a la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera, se llevará a cabo un plan de euskaldunización para que cada centro escolar esté en condiciones de ofrecer a los escolares los medios lingüísticos ofertados por la autoridad educativa. Para ello se continuará con la euskaldunización del personal docente y no docente en los centros escolares, mediante una planificación lingüística que será el resultado de los planes del centro, elaborados concertadamente entre Administración y comunidad educativa, de la demanda social existente y de la evaluación de los modelos lingüísticos. La evaluación e los modelos lingüísticos analizará su rendimiento en el aprendizaje y uso del euskera. También se analizará su rendimiento en las demás disciplinas curriculares, dentro del necesario análisis global de todos los factores que inciden en el rendimiento de estas disciplinas curriculares. A estos efectos, se propiciará el diálogo entre la Administración y los representantes de los trabajadores.

La planificación lingüística de la enseñanza actuará en coordinación con la planificación lingüística general que se establezca desde la Secretaría de Política Lingüística.

El servicio IRALE atenderá preferentemente a las necesidades previstas en la planificación lingüística.

La regulación legal de los modelos lingüísticos actualmente existentes tendrá en cuenta las conclusiones que se deriven de la evaluación mencionada.

rako eta irakaskuntzarako burujabetzarik haundiena eta dirubidetarako neurri bateko burujabetza izaten laguntzera.

3.- Finkatuko den erapidetzari egokituz eta beharrezko izango dituzten agintepide eta egiteko eta guzti izendaturik, hezkuntza-elkartearen zudu orokorren arauera irakaste-lana bermatuko duten artezte-taldeak osatzera. Hauen osakeran erabili beharreko irizpidea gurasoen, irakasleen eta ikasleen arteko kide-berdintasunezkoa izango da, OHO-ean azken urteotan izandakoa zuzenduz eta aukeraketa heintasun-irizpidean oinarrituz eginez.

Halaber, Autonomia-Elkarteko eta lurralde-mailako Eskola-Batzordeak legez sortaraziko dira.

Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeari dagozkion erabakiak betetzeko, euskalduntze-egitamua egingo da eta, hori, ikastetxe bakoitza eskolaumeei hezkuntza-agintaritzak eskainitako hizkuntza-baliapideak eskaintzeko moduan egon dadin. Horretarako ikastetxeetan, Arduralaritzaren eta hezkuntza-elkartearen artean itunebidez egindako ikastetxe-egitamuen, gizartearen aldetik dagoen eskearen eta dauden hizkuntza-ereduen haztaketaren ondorio izango den hizkuntza-egitamuketaren bidez, irakaslegoa eta irakaslez besteko lanarigoa euskalduntzeari jarraituko zaio. Hizkuntza-ereduen haztaketan horren euskera ikasteko eta erabiltzeko emankortasuna aztertuko da. Egindako ikasketen emankortasunean eragina duten alderdi guztiei buruz egin beharreko erabateko azterkuntzaren barruan, egindako gainontzeko ikasketetan izandako emankortasuna ere aztertuko da. Horretarako, Arduralaritzaren eta langileen ordezkarien artean elkarrizketak izateko ahaleginak egingo dira.

Irakaskuntzarako hizkuntza-egitamuketa Hizkuntza-politikarako Idazkaritzatik eratuko den hizkuntza-egitamuketa nagusiarekin batean arituko da.

IRALE zerbitzuak hizkuntza-egitamuketan ohartemandako beharrei egingo die berarizko arreta.

Gaur egun dauden hizkuntza-ereduen legezko araupeketa egitean, esandako haztaketari darizkion ondorioak kontutan izan beharko dira.

En cuanto a los criterios de admisión de alumnos en centros públicos concertados, estos serán los de la renta anual familiar, la proximidad domiciliaria y la existencia de hermanos en el centro prioritariamente. La condición de socio cooperativista será considerada como un criterio complementario importante de los anteriores.

Las solicitudes de matrícula se realizarán según los distintos modelos lingüísticos, adoptándose las medidas necesarias para procurar que la escolarización se realice en el modelo lingüístico solicitado.

Universidades: En esta materia, la acción del Gobierno se orientará a: la constitución inmediata del Consejo Social de la Universidad del País Vasco; elaborará una ley de Ordenación Universitaria de Euskadi como mandato legal de la ley del Consejo Social configurador del marco que defina la política universitaria del País Vasco en los aspectos de criterios de fijación de plantilla; criterios de distribución de estudios y centros en los tres "campus", política de Departamentos e Institutos Universitarios; criterios de fijación de subvención de la Comunidad Autónoma a la Universidad del País Vasco en los Presupuestos. La subvención global de la Comunidad Autónoma a la Universidad del País Vasco para 1987 deberá negociarse con el equipo rectoral.

Política cultural.

Los elementos conductores de la política cultural en marcha habrán de mantenerse procediendo a las siguientes actuaciones adicionales:

Potenciar el Consejo de Cultura mediante un nuevo decreto, haciéndolo más participativo, con funciones de coordinación y consulta previa de las disposiciones en materia de cultura.

Remitir al Parlamento, con carácter inmediato, la Ley General del Deporte.

Proponer y propiciar, en el marco de las atribuciones estatutarias de carácter cultural, convenios con la Comunidad Autónova de Navarra en áreas como arte, deporte, medios de comunicación, etcétera. En este mismo sentido, se realizarán las gestiones oportunas para dar cumplimiento a lo previsto en el artículo 6.5 del Estatuto de Autonomía.

Ikasleak herri-eskoletan eta itunepekoetan hartzeko irizpideei gagozkiela, horiek familiaren urteko irabaziei, bizitokitikako hurbiltasunari eta ikastetxean beste seniderik ibiltzeari batipat begiratuzkoak izango dira. Koperatibakide izatea gorago esandako irizpideen garrantzizko osagarritzat joko da.

Erroldeeratze-eskabideak hizkuntza-eredu ezberdinen arauera egingo dira, eskolatzea eskatutako hizkuntza-ereduan egiten ahalegintzeko behar diren neurriak hartuz.

Unibertsitateak: Gai honekikoan, Jaurlaritzak honako hauetara joko du: Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte-Kontseilua berehala sortzera; lanari-erroldea zehazteko irizpideen, ikasketak eta ikastegiak hiru "campus"-etan banatzeko irizpideen, Unibertsitate-Sailen eta Erakundeen politikaren, Autonomia-Elkarteak Diruegitamuetan Euskal Herriko Unibertsitatearentzako diruizendapena zehazteko irizpideen alderdie Euskal Herriak izango duen unibertsitatearekiko politika zehazteko esparrua itxuratuko duen Gizarte-Kontseiluari buruzko legearen legezko agindu gisa, Euskadiko Unibertsitate-antolakuntzarako legea egingo du. Autonomia-Elkarteak Euskal Herriko Unibertsitateari 1987garrenerako emango dion orohartuzko diru-laguntzaren itune-bideak erretoretza taldearekin egin beharko dira.

Kultura-politika.

Aurrera doan Kultura-politikaren gida diren osagaiei eutsi egin beharko zaie, honako gehigarrizko ekintza hauek bideratuz:

Dekreto berri baten bitartez, indartu Kultura-Kontseilua, Antolakidetza eta Kultura-gaiekiko manuak eman aurretiazko aholku emate-eginkizunak dituela gehiago parte hartu eraziz.

Kirolen Lege Nagusia Legebiltzarrera lehenbailehen bidali.

Estatutoko Kultura-mailako ahalpideen esparruan, Nafarroako Autonomia-Elkartearekin zenbait alorretan, hona nola, arte, kirol, mezubide, etabarrekikoan, ituneak egin. Alde honetatik bertatik, Autonomia-Estatutoaren 6.5 atalean ohartematen dena betetzeko beharrezko diren lehenengo bideak egingo dira.

Culminar el II Congreso Mundial Vasco, que tendrá lugar en las tres capitales de la Comunidad Autónoma, entre septiembre y diciembre del presente año.

Política lingüística.

La política lingüística que habrá de propiciar el nuevo Gobierno pasa por los siguientes puntos:

Avanzar en el proceso de normalización del euskera con el objetivo de llegar a una sociedad bilingüe de forma real y eficaz, en la que los ciudadanos vascos puedan conocer y usar las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma.

Los principios rectores de este proceso serán los siguientes:

Reconocimiento de que el plurilingüismo tiene que ser un factor de integración, siendo el euskera patrimonio de todos los vascos.

En una política que, teniendo en cuenta las distintas realidades sociolingüísticas existentes en el país, suponga una acción de promoción del euskera en todos los campos de la actividad social mediante la aplicación de criterios de voluntariedad y progresividad, y desterrando cualquier fórmula de división de la población en dos comunidades lingüísticas.

La normalización del euskera, además de objetivo lingüístico, constituye un objetivo político y social importante para la articulación de una única comunidad, siendo esta tarea responsabilidad de toda la sociedad.

Establecimiento de un proceso de planificación concertada a través de un consenso social y político lo más amplio posible, basado en la aplicación de la ley de Normalización y Uso del Euskera, con la voluntad de superar la desigualdad lingüística, siendo la igualdad el objetivo, y el tratamiento diferenciado y preferente del euskera el camino a seguir.

Los instrumentos para el desarrollo de dicho proceso son: Mapa Sociolingüístico elaborado sobre datos del padrón de 1986 y un amplio trabajo de campo; Mapa de Planificación Lingüística, elaborado en base a los datos resultantes del Mapa Sociolingüístico y con un amplio consenso entre los grupos políticos parlamentarios; promoción de la intervención en dicho proceso de Euskaltzaindia y de otras instituciones; el

Aurtengo irailetik abendura bitartean, Autonomia-Elkarteko hiru hiriburuetan egingo den II Euskal Mundu-Biltzarra burutu.

Hizkuntza-politika.

Jaurlaritza berriak lehiarazi beharko duen hizkuntza-politikak honako puntu hauek izango ditu:

Euskara normaltzeko bidean aurrera egin eta, hori, euskal herritarrek Autonomia-Elkarteko bi hizkuntza ofizialak jakiterik eta erabiltzerik izango duteneko, gizarte elebidun benetan eta era eraginkorrez, izatera iristeko xedez.

Bilakaera honetarako irizpide nagusiak honako hauek izango dira:

Euskara euskaldun guztion ondasun izanik, ele-aniztasunak bateratzaile izan behar duela aitortzea.

Herri honetan dauden gizarte eta hizkuntza egoera ezberdinak kontutan izanik, borondatezkotasun eta aurrerapenezkotasun-irizpideak erabiliz herritarrak bi hizkuntza-elkartetan zatitzeko edozein bideri itzuri eginez, euskara gizarte-ekintzako alor guztietan suztatzeko izan dadin politikan.

Euskara arauzkotzea, hizkuntza-helburu izatez gainera, elkarte bakar bat antolatzeko gizarte eta politika-mailako garrantzizko helburua da, lan hau gizarte osoari dagokiolarik.

Egiteko bidea berdintasuna, helburu eta euskerarekiko arreta berezia eta lehentasunezkoa izanik, hizkuntza-ezberdintasuna gainditzeko asmoz, Euskeraren Normalkuntzarako eta Erabilpenerako legea betebideratzean oinarrituz ahalik eta gizarte eta politika-irizkidetasunik haundienaren bidez itunetutako egitamuketa-bidea finkatzea.

Bide horretan aurrera egiteko lanabesak honako hauek dira: 1986garreneko biztanle-erroldeko xehapenak eta bertatik bertara egindako lan haundia oinarri hartuz egindako gizarte-hizkuntzako mapa. Gizarte-hizkuntzako mapatik ateratako xehapenetan oinarrituz eta legebiltzarkideak dituzten politika-alderdien arteko irizkidetasun zabalez egindako Hizkuntza-Egitamuketarako Mapa; Bilakabide horretan Eus-

Mapa de Planificación será el instrumento que permita la concreción de las diversas políticas sectoriales en materia lingüística.

kaltzaindiak eta beste zenbait erakundek eskuhartzeko bide egitea; Egitamuketa-mapa hori hizkuntzarekikoan egin beharreko alorkako politika bereziak zehazteko bide emango duen lanabesa izango da.

Al objeto de clarificar la dotación presupuestaria, se procurará la concentración de los recursos destinados a desarrollar la política lingüística.

Diruegitamuzko izendapena argitu ahal izateko, hizkuntza-politika gauzatzeko jarritako baliapideak bateratzeko ahaleginak egingo dira.

Promover un acuerdo con los medios orales y escritos, al objeto de conseguir la presencia continuada y progresiva del euskera en la prensa.

Euskera albistarietan etengabe eta gero eta gehiago izatea lortzeko xedez, mintzatuzko eta idatzizko mezubideekin hitzarmena egiteari bultz egin.

En cuanto a la normalización lingüística en la Administración, el Gobierno vasco asume la responsabilidad que, con arreglo a la legislación vigente, le corresponde en aras de garantizar el ejercicio efectivo del derecho reconocido a todos los ciudadanos a usar tanto el euskera como el castellano en sus relaciones con la Administración Pública, en el ámbito territorial de esta Comunidad Autónoma. Por consiguiente, procederá a la adopción de las medidas oportunas para la progresiva euskaldunización del personal afecto a su Administración y para la plena normalización del uso del euskara en sus distintos servicios y departamentos, promoviendo, asimismo, la adopción de dichas medidas en el resto de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma.

Arduralaritzako hizkunta-normalkuntzari buruzkoan, Eusko Jaurlaritzak, indarrean dauden legeen arauera, herritarrak Herri-Arduralaritzarekiko harremanetan, Autonomia-Elkartearen lurralde-eremuan, euskara nahiz gaztelera aukeran erabiltzeko aitortzen zaien eskubideaz benetan baliatu ahal izatea bermatzeko xedez dagokion erantzukina bere gain hartzen du. Horregatik, bere Arduralaritzari datxekon lanarigoa arian-arian euskalduntzeko eta bertako zerbitzu eta sail berezietan euskeraren erabilpena erabat normaltzeko egokiak izango diren neurriak hartuko ditu eta, halaber, neurri horiek Autonomia-Elkarteko gainontzeko Herri-Arduralaritzetan ere har daitezenari indar emango dio.

La plena normalización del uso del euskera en la Administración requiere la definición de los servicios y puestos de trabajo en los que debe existir personal bilingüe, y sobre esa base se definirán también los perfiles lingüísticos de los puestos de trabajo. El cumplimiento de los distintos perfiles se llevará a cabo de forma progresiva con arreglo a los criterios señalados en el Mapa de Planificación Lingüística.

Arduralaritzan euskararen erabilpena erabat normaltzeak hor lanari elebidunak beharrezko direneko zerbitzuak eta lantokiak zehaztea eskatzen du, eta hori oinarri hartuta zehaztuko dira hizkuntzaren aldetikako nolakoak ere. Nolako horien egiterapena arian-arian eta Hizkuntza-Egitamuketarako Mapan adierazitako irizpideen arauera egingo da.

De acuerdo con lo previsto en los apartados anteriores, se establecerán plazos razonables para el cumplimiento por el personal que acceda a la Administración de las condiciones establecidas en los perfiles lingüísticos, cuando los hubiere, de su puesto de trabajo. A este cumplimiento quedará supeditada también la adquisición plena de sus derechos funcionariales.

Aurreko zatietan ohartemandakoaren arauera, Arduralaritzara iristen diren lanariek euren lantokietarako hizkuntzaren aldetikako nolakoetan, horietakorik izango denean, jarritako baldintzak betetzeko, arrazoizko epeak zehaztuko dira. Herrilanari izateari dagozkion eskubide guztien jabe izatera iristeko ere baldintza hori bete beharko da.

El conocimiento del euskera a acreditar para el acceso a la Administración vendrá establecido por los perfiles lingüísticos, que deberán ser recogidos en las relaciones de puesto de trabajo.

Arduralaritzan sartzeko egiaztatu beharreko euskera-jakintzaren maila hizkuntzaren aldetikako nolakoek erabakiko dute, horiek lan-tokiaren harreman-mailatik jaso beharko direla.

Para los puestos de trabajo en la Administración que no requieran el conocimiento y uso del euskera, éste podrá ser valorado como mérito.

Hacia la Euskadi de los noventa.

istearen aldeko jarrera agertzeko. Eta orain esango dizut zergaitik: zeuek hemen ez zinetelako egon hori botatzeko. Horregatik izan zen, horregatik izan zen. Eta, beraz, zeuen ardura ez astindu eskuak garbituaz, zeren hemen egiten denagatik eta hemen egiten ez denagatik zeuek ere inplikatuak zaudete herriaren aurrean eta. Eta zuk dakizu inork baino hobeto askatasuna ez dela hitz hutsa, askatasuna ez zaigula iritsiko goitik behera egunen batean. Askatasuna landu egin behar dela egunero.

Aurkeztu diguzu zeuk aurrera eramango zenukeen programa hori, eta ez da esan beharrik ere ez dela erreza adostasunera iristea zuen eta gure artean.

Autodeterminazio hitza aipatu diguzu. Eta nik azpimarratu nahi nizuke hitz hori ez dela majikoa, hitz horrek, egiazko hitz horrek, konzeptu horrek interpretazio bikoitza duela: bata, herriari herriak berak bere etorkizunari buruz erabakiko duen gaitasuna ematea; eta bestea, herriaren erabakiak, erabaki bakoitza onartzea, errespetatzea. Eta zure interbentzioaren ondoren badirudi lehenbiziko interpretazioa bakarrik onartzen duzuela, ez bigarrena.

Behin eta berriz esango dizuegu gure herri hau egunero ari dela bere etorkizuna determinatzen, erabakitzen. Eta gure herri hau herritarron erabaki bakoitzean ari dela bere etorkizuna determinatzen. Eta behin eta berriz esango dizuegu herri honek, besteak beste, aukera egina duela: autonomiaren aldekoa, autonomiaren bidetik aukeratu duela askatasunerako bidea eta, beraz, autonomia zabaldu daitekeela, sakondu daitekeela nahi den beste, nahi adina, bainan ezinezkoa dela autodeterminazioa autonomiari kontra jartzea, ezinezkoa dela autodeterminazioaz hitz egitea, herri honek egunero eta bere garaian egin zuen aukerari uko egiten bazaio. Beraz, noski, marko juridikoa, marko juridiko politiko famatu hori sakontzea eta zabaltzea posible da, lejitimoa da, hitz batean, lejitimoa eta posible da marko juridiko hori aldatzea, bainan muga bat jar diezaiokegu, herriaren azken hitza. Eta orain arte herri honek eman duen hitza autonomiaren aldekoa izan da, eta ez kontrakoa.

Esana dut lehen ezin zaiola ezer inposatu herriari, ezin dela ezer jarri herriaren nahiaren gainetik, eta are gutxiago, esango nuke, biolentzia, bortxakeria erabiltzen bada. Herri batek, herri honek duen garra, askatasun nahaia, ezin da zikindu odolez. Herri honek ez du askatasunik lortuko herritar guztiok aske sentitzen ez garen bi-

fue capaz de mostrar una postura a favor del cierre de Lemoniz. Y ahora le voy a decir por qué: porque ustedes no estuvieron aquí para dar su voto. Fue por eso, por eso. Y, por lo tanto, no sacudan su responsabilidad limpiándose las manos, porque, delante del pueblo, ustedes también están implicados por lo que aquí se hace y no se hace. Y usted sabe mejor que nadie que la libertad no es una palabra vacía, que la libertad no nos llegará un día de arriba a abajo. Que la libertad hay que elaborarla a diario.

Nos ha presentado el programa que usted llevaría adelante, y no hay ni qué decir que no es fácil llegar a un acuerdo entre ustedes y nosotros.

Nos ha mencionado la palabra autodeterminación. Y yo quisiera recalcarle que esa palabra no es mágica, que esa palabra, ese concepto tiene doble interpretación: una darle al pueblo la capacidad para decidir, por sí mismo, su futuro; y otra, aceptar, respetar las decisiones, cada una de las decisiones del pueblo. Y después de su intervención, parece que ustedes sólo aceptan la primera interpretación, y no la segunda.

Una y otra vez les diremos que este pueblo se halla día a día determinando y decidiendo su futuro. Y que este pueblo está determinando su futuro con cada una de las decisiones de los ciudadanos. Y una y otra vez les diremos que este pueblo ha hecho opción, entre otras cosas, a favor de la autonomía, que ha elegido el camino para la libertad mediante la autonomía y, por lo tanto, que la autonomía se puede ampliar, profundizar tanto como se quiera, pero es imposible confrontar la autodeterminación con la autonomía, que es imposible hablar sobre autodeterminación, si se niega la elección que, a diario y en su momento, hizo este pueblo. Por ello, desde luego es posible, es legítimo profundizar y ampliar ese marco jurídico, ese famoso marco jurídico-político, en una palabra, es legítimo y posible modificar ese marco jurídico, pero podemos ponerle un límite, la última palabra del pueblo. Y la palabra que hasta ahora ha dado este pueblo ha sido a favor de la autonomía, y no contraria.

He dicho anteriormente que al pueblo no se le puede imponer nada, que no se puede establecer nada por encima del deseo del pueblo y mucho menos, diría yo, si se utiliza la violencia, la represión. El ímpetu, el deseo de libertad de un pueblo, de este pueblo, no se puede manchar de sangre. Este pueblo no conseguirá la liber-

tartean. Ez dugu askatasunik lortuko, armen arrazoirik eza erabiltzen badugu argumento bakartzat, ez dugu askatasunik lortuko gure artean Euskadi hitzarekin emozionatu eta heriotzaren, gorputz hilaren aurrean agertzen denean emozionatzen ez den pertsona bat gure artean dagoen momentutik. Biolentzia esku artean usteltzen ari zaigun gauza bat da, eta biolentziaren ustelketa horrekin hasiak dira usteltzen aspalditik gure arteko harremanak ere. Eta gehiago esango nuke: hasiak dira aspalditik usteltzen baita zuen arteko harremanak ere.

tad, mientras todos los ciudadanos no nos sintamos libres. No conseguiremos la libertad, si utilizamos como único argumento la falta de razón de las armas, no conseguiremos la libertad, mientras entre nosotros haya una persona que no se emocione con la palabra "Euskadi" y no se emocione ante la muerte, delante de un cadáver. La violencia es una cosa que se nos está pudriendo entre las manos, y con la podre de la violencia hace tiempo que nuestras relaciones también comenzarán a pudrirse. Y diría algo más: hace tiempo también que vuestras relaciones comenzaron a pudrirse.

Eta negoziazioa aipatu diguzu. Eta nik esan behar dizut -ez da izango hala ere lehenbiziko aldia-, inork ezin duela herria ordezkatu bere arazoak konpontzeko. Inork ezin du hori egin, demokratikoki aukeratutako instituzioak ez badira. Beraz, guk sekulan ez dugu onartuko edozeinek herri hau ordezkatzea, ez bada demokratikoki. Edozeinek esaten dut: nahiz armatua izan nahiz arma gabea izan. Argi dago zuen estratejia eta zuen jarreretan negozazioa bitarteko huts izatetik helburu izatera pasa dela. Eta orain duzue aukera bat. Zeuk ere aukera bat duzu esateko benetan, presoak eta erbesteratuak etxeratu nahi dituzuen ala izatez prest zaudeten zeuen buruak herri honek sekulan onartuko ez dituen bideak inposatzeko erabiliak izateko.

Y nos ha mencionado la negociación. Y yo le tengo que decir -y no será ésta la primera vez que lo digo- que nadie puede representar al pueblo para arreglar sus propios problemas. Nadie puede hacerlo, salvo las instituciones democráticamente elegidas. Por lo tanto, nosotros nunca admitiremos que nadie represente al pueblo, si no es democráticamente. Digo cualquiera: ya sea con armas, ya sea sin armas. Está claro que en su estrategia, la negociación a pasado de ser un simple medio a ser un objetivo. Y ahora tienen una oportunidad. A decir verdad, usted también tiene una oportunidad, si quieren que los presos y exiliados vuelvan a casa, o si están dispuestos a ser utilizados para imponer unos medios que este pueblo no aceptará jamás.

Hala eta guzti eta oker ez banago, ez zara etorri hona besteon botoa eskatzera. Eta izatez zuzen zaude, uste baduzu ez duzula jasoko Euskadiko Ezkerraren botorik. Dena den, Euskadiko Ezkerra prest dago geuk ordezkatzen dugun herri-zati horren izenean negoziatzeko, bainan hemen; prest dago negoziatzeko, bainan zuekin, hor eserita zaudetenekin eta sekulan ere ez beste inorekin. Ez gaude prest indar faktikorik demokraziaren kontra animatzeko, ez gaude prest indar militarrik bide zibilen kontra animatzeko.

Aun así, si no me equivoco, no ha venido aquí a pedir el voto de los demás. Y naturalmente está usted en lo cierto, si piensa que no va a contar con los votos de Euskadiko Ezkerra. De todas formas, Euskadiko Eskerra está dispuesto a negociar en nombre de esa parte del pueblo a la que representamos, pero aquí; está dispuesto a negociar, pero con ustedes, con los que están ahí sentados y nunca con ningún otro. No estamos dispuestos a animar ninguna fuerza fáctica contra la democracia, no estamos dispuestos a animar ninguna fuerza militar contra los medios civiles.

Dena den, uste dut denok daukagula argi zertara etorri garen eta, eztabaida honen ondoren, lotu behar natzaio izatez gaur egun Lehendakari-ohi eta gai dugun Jose Antonio Ardantzaren interbentzioari.

De todas las maneras, creo que todos tenemos claro a qué hemos venido y, después de esta discusión me tengo que referir a la intervención de Jose Antonio Ardanza, quien hoy es, naturalmente, expresidente y candidato a Presidente.

Nik esan beharko nuke, hasteko, ezer ez dudala ulertzen. Izatez ez dudala tutik ere ulertzen, bainan badakizu ez litzatekeela egia. Esan beharko nuke ez dudala ulertzen zertan eta zertarako konbokatu zenituen hauteskundeak. Esan beharko nuke zeuk dakizun gauza bat: hain bidaia motza

Yo, para empezar, tendría que decir que no entiendo nada. Que no entiendo nada de nada, pero ya saben que no sería verdad. Tendría que decir que no entiendo para qué se convocaron las elecciones. Tendría que decir una cosa que usted sabe: que para hacer un viaje tan corto no eran

egiteko ez zela horrenbeste trasteren beharrik. Gaur eskaintzen diguzuna bere alde instituzionalean eta bere alde programatikoan azaroan eskeintzeko kapaz izan ez bazinan, esan beharko nuke ez dudala ulertzen zergatik zatozen etorri zaren programarekin, etorri zaren proposamenarekin kanpaina elektoral gordin baten atzetik eta horrenbeste egunetan gauzak bertan behera utzi ondoren; eta esan beharko nuke hori dena ez dudala ulertzen, bainan badakizu ez dela egia, ulertzen dudala. Ulertzen dut; izan ere, azaroaren 30ean herri honi bi aukera edo bi gobernu-mota aurkezten zitzaizkion. Bata, zurea, noski, gauzak bertan behera utziaz, zeuden bezala utziaz, botere politikoa berezko helburutzat hartuaz jotzen zenutenona; bestea, besteona edo, behintzat, gauzak aldatzeko prest gaudenona. Eta gauzak joan diren bezala, izatez hautagai bakar agertu zara Parlamentu honetara eta zorionak.

Bainan, argi dago ez zarela zeu izan bi posibilidade horien arteko aukera egin duena; izatez zeuk sekulan ez duzu izan asmo handirik gauzak aldatzeko eta gaur ez diguzu horrelako asmorik behintzat agertu. Aukera hori beste batzuk egin zuten; kasu honetan zuen gobernu berri horretan zuen partaide izango diren Alderdi Sozialistako kideek. Beraiek egin zuten edo egin dute azkenik aukera hori. Eta ulertzen dut, zeren norbera ere nekatzen da askotan, eta badakigu nekeak eta beldurrak jarrera politikoa lotzen hasten direnean, aurrera egiteko behar den arnasa itotzen hasten direnean, ez dagoela ezer egiterik. Izatez, norbera boterean mantentzea edo hori norberaren alderdiarena nahi izatea beste gauza guztien gainetik jartzen denean, gauza gutxi dago egiteko.

Autogobernua bideratzeko, hala eta guzti, Euskadi nazio bezala eraikitzeko edo krisialdi ekonomikoari irteera egokia emateko, eskaintzeko, kultura berritzailea lantzeko, biolentziari berari aurre egiteko, nik uste dut, hala eta guzti, ez dela aholku egokiena beldurrarena; aldiz, uste dut aholku behar bat dagoela: ausardia eta kemena. Eta kontuan izan behar duzu, nahi eta nahi ez, gaurko Euskal Herria ez dela atzokoa. Azaroaren 30ean Euskal Herriak apostu egin zuela, egiaz, eta apostu horrek ez duela lehengo Euskal Herriaren aurpegi bera behintzat, ez duela itxura bera erakutsi. Eta bitartean, kanpaina eta negoziazioak tarteko, arazoak zeuden bezala geratu dira, konponbideak ez dira inondik inora abiatu eta, bitartean, hiru hilabete hauetan euskal gizartean zenbait kezka, desilusio

necesarias tantas alforjas. Si en noviembre no fue usted capaz de ofrecer, en sus aspectos institucional y programativo, lo que hoy nos ofrece, tendría que decir que no entiendo por qué viene usted con ese programa, con esa propuesta, después de una cruda campaña electoral y después de dejar las cosas tal y como estaban durante tantos días. Y tendría que decir que no entiendo todo eso, pero usted ya sabe que no es verdad, que lo entiendo. Lo entiendo, porque el 30 de noviembre se le ofrecían a este pueblo dos opciones o dos tipos de gobierno. Uno, por supuesto, el suyo, en el que, dejando las cosas tal cual, dejándolas como estaban, tomaban como objetivo el poder político; el otro, el de los demás o, por lo menos, el de los que estábamos dispuestos a cambiar las cosas. Y tal como han ido las cosas, ha aparecido en este Parlamento como único candidato, y, por lo tanto, felicidades.

Pero es evidente que no ha sido usted quien ha elegido entre esas dos posibilidades; naturalmente, usted nunca ha tenido muchos deseos de cambiar las cosas, y por lo menos hoy no nos ha mostrado ninguna intención de hacerlo. Esa elección la hicieron otros; los compañeros del Partido Socialista, quienes en este caso van a tomar parte en su nuevo gobierno. Ellos son los que hicieron o han hecho al final esa elección. Y lo comprendo, ya que a menudo uno mismo se cansa también, y sabemos que cuando el cansancio y el miedo comienzan a condicionar la postura política, cuando comienzan a ahogar el aliento que hace falta para seguir adelante, no hay nada que hacer. Naturalmente, cuando el mantenerse en el poder o el deseo de que el poder sea del partido de uno se sobrepone a todo lo demás hay poco que hacer.

Aun así, yo creo que para encaminar el autogobierno, para constituir Euskadi como nación, para elaborar la cultura renovadora, para hacer frente a la misma violencia, creo que el mejor consejo no es el del miedo, antes al contrario, creo que existe un único consejo: la valentía y la fortaleza. Debe usted tener en cuenta, aunque no lo quiera, que el País Vasco de hoy en día no es el de ayer. Que el 30 de noviembre el País Vasco apostó en verdad, y que dicha apuesta no tiene, por lo menos, la misma cara que el País Vasco anterior, que no ha mostrado la misma apariencia. Y mientras tanto, con campañas y negociaciones de por medio, los problemas han quedado tal y como estaban, las soluciones no han llegado de ninguna forma y, mientras tanto, durante estos tres meses han surgido algunas

eta frustrazio ere sortu dira. Eta zuk ondo dakizu hori horrela dela. Nik uste dut frustrazioari, desilusioari, kezkari aurre egiteko jarrera benetan ausarta behar dela, aktiboa, eta gehienbat irekia. Eta barka iezaidazu esaten badizut zeure eskaintzak ez duela garantizatzen aurre egite hori.

preocupaciones, desilusiones y también frustaciones en la sociedad vasca. Y usted sabe muy bien que eso es así. Yo creo que, para hacer frente a la frustración, desilusión y preocupación, se necesita una postura verdaderamente atrevida, activa y, sobre todo, abierta. Y, perdóneme, si le digo que su ofrecimiento no garantiza ese enfrentamiento.

Eta gainera ba dut nolabaiteko susmoa: gaizki hasten zaretelako susmoa. Gauzak landu beharrean, hemen azken orduko politika inposatu da. Ez dakit zenbait ordu egon zareten akordio hau izenpetzeko, baina ziur dakit ez direla nahikoak izan. Beharbada izango duzue orduren bat gehiago aurretik. Ziur dakit gure herriak dituen arazo larriei ez zaiela lotura egokirik bilatu, eta uste dut denok daukagula behintzat galdera bat egiko eskubidea: ea zertan egon zareten orain dela astebete arte, non egon zareten eta, azkenik, zertan erabili duzuen zeuen denbora. Horiena ba dakit zertan erabili duten, noski.

Y además tengo cierta sospecha: la sospecha de que comienzan mal. En vez de elaborar las cosas, aquí se ha impuesto la política de última hora. No sé cuántas horas habrán estado para firmar este acuerdo, pero estoy seguro de que no han sido las suficientes. Quizá tendréis alguna hora anterior. Estoy seguro de que no se ha encontrado una unión adecuada para los graves problemas que tiene nuestro pueblo, y creo que todos tenemos derecho a hacer una pregunta por lo menos: a ver qué han estado haciendo hasta hace una semana, dónde han estado y, por último, en qué han ocupado su tiempo. Esos ya sé en qué lo han utilizado, por supuesto.

Ba dago, gazteleraz, errefrau bat esaten duena "A ti te lo digo, Juan, para que me entiendas, Pedro", eta nik uste dut horrelako zerbait gertatzen ari zaigula gaur, zeren, izatez argi dagoenez, hautagai bati erantzutean bi alderdiei erantzun behar diegu. Beraz, "A ti te lo digo, José Antonio, para que me entiendas, José Mari" Izatez Jose Mari bezala agertu bait zara paktoaren ondoren.

Existe, en castellano, un refrán que dice "A tí te lo digo, Juan, para que me entiendas, Pedro" y yo creo que hoy nos está sucediendo algo por el estilo, porque es evidente que, al responder a un candidato, tenemos que responder a dos partidos. Por lo tanto, "A tí te lo digo, José Antonio, para que me entiendas, José Mari", pues, después del pacto, ha aparecido usted como José Mari.

Creo que es la segunda vez, en poco más de dos años, que el señor Ardanza se presenta ante esta Cámara con un acuerdo debajo del brazo. Es verdad que las circunstancias han cambiado, son distintas. Y es verdad además que el acuerdo que hoy se presenta aquí no es tan enigmático como aquél que nos presentaba el propio señor Ardanza hace más de dos años. Y no es tan enigmático sobre todo porque se ha mostrado la parte más visible del edificio, el tejado de las 12 carteras, repartidas bajo el conocido criterio de "lo mío, mío, y lo tuyo, para los dos".

Nik uste dut, bi urtebeteren barruan, Ardantza jaunak besapean itune bat duelarik Legebiltzar honen aurrean aurkezten deneko bigarren aldia dela. Eta egia da zernolakoak aldatu direla, ezberdinak direla. Eta egia da gainera, gaur hemen aurkezten den itunea, orain dela bi urte baino gehiago Ardanza jaunak berak aurkezten zigun bezain iluna ez dela. Eta ez da hain iluna gertatzen, izan ere, eraikuntzaren alde nabarmenena erakutsi delako, "nerea neretzat eta zurea, biontzat" oinarri-irizpideari jarraituz banatutako 12 sailean teilatua erakutsi delako.

Y como quiera que en este país no se puede hacer nada que parezca importante sin que tenga referencias históricas o pueda ser calificado como tal, no le han faltado a este acuerdo explicaciones basadas en la trascendencia de aquel Gobierno Vasco de la Segunda República. Yo creo que cada cual tiene derecho a consolarse como puede. En cualquier caso, nosotros, Euskadiko Ezkerra, yo mismo, no nos vamos a conso-

Eta herri honetan historia mailako oinarriak izan edo horrela mugatu ez daitekeenetik kanpo ezer egiterik ez dagoenez, itune horrek Bigarren Errepublikako Eusko Jaurlaritza haren garrantzian oinarritutako azalpenik eza ez du izan, eta, nik uste dudanez, norbere buruari ahal duen erara poza eman diezaioke. Halaber, guk, Euskadiko Ezkerrak, neronek, ez diogu gure buruari pozik emango itune honek, bai herria-

lar negando la importancia y negando incluso la trascendencia de este acuerdo, tanto para el país como, por supuesto, para los partidos firmantes.

Jamás, y lo sabéis, hemos criticado ni vamos a criticar ahora el hecho de un acuerdo. Todo lo contrario, lo aplaudimos. Pero comprenderéis que no estemos dispuestos a aplaudir la forma en que se ha producido este acuerdo y que no estemos dispuestos a aplaudir los resultados institucionales y programáticos que de él se derivan. Porque me parece que se nos ha olvidado ya la campaña electoral o los programas, y yo creo que sería realmente sano, realmente clarificador que echásemos un vistazo y una pensada sobre las hemerotecas de los últimos meses, para darnos cuenta de que lo que se hace, lo que se ha hecho, no tiene en absoluto nada que ver con lo que se ha dicho, y que lo que se dice, lo que se ha dicho, poco tiene que ver con lo que se ha hecho realmente en estos meses.

Ni el candidato a Lehendakari que se nos presenta, ni su propuesta política para la elección de Gobierno, son, creo yo, algo nuevo para este país. Reflejan una voluntad fundamentalmente de continuidad, respecto a un periodo determinado por los dos últimos años y por el pacto de Legislatura. Pero, sobre todo, refleja una voluntad de preeminencia de determinadas estrategias que entienden el poder como un fin en sí mismo, aunque yo, desde luego, no voy a negar que no haya novedades. Y a ello me referiré al tratar las cuestiones más programáticas, aunque yo creo que todos coincidiremos en que la novedad más importante, realmente importante, de este acuerdo, es que por fin hay un acuerdo firmado por el señor Arzallus.

Desde nuestra disposición, reconocida y conocida, a plantear sinceramente nuestro acuerdo con todo lo que de positivo se pretenda realizar, y en la medida en que lo propuesto no es algo nuevo, me permitirá el señor candidato que le adelante que, desde Euskadiko Ezkerra, este programa, esta propuesta, no merece un periodo de gracia, un margen de confianza. En definitiva, Euskadiko Ezkerra no está dispuesta a darle un margen de confianza, pero sí nos permitimos preguntarle cuál es el margen de confianza que en el tiempo se da a sí mismo el candidato a Lehendakari.

Se nos ha presentado la propuesta de Gobierno como una propuesta de estabilidad, pero me da la impresión de que la

rentzat, bai izenpetu duten alderdientzako noski, duen garrantzia eta neurriz gaineko garrantzia ukatuz.

Inoiz, eta zuok ba dakizue, ez dugu eta orain ere ez dugu itune bat gaitzetsiko. Alderantziz, txalotzen dugu. Baina ulertuko duzue itune hau egiteko modua eta hortik irtetzen diren erakunde-mailako eta egitarau-mailako ondorioak txalotzeko prest ez egotea. Izan ere, jadanik hauteskunde aldia eta egitarauak ahaztu ditugula iruditzen zait, eta nik uste dut azken hilabetetako aldizkaritegiak pixkat begiratu eta horietaz pentsatzea benetan ona, argigarri izango litzatekeela, horrela egiten denak, egin denak esandakoarekin zerikusirik ez duela, eta esaten denak, esan denak, hilabete hauetan zehar egin denarekin zerikusi handirik ez duela ohartzeko.

Ez aurkezten zaigun Lehendakarigaia, ez Jaurlaritza hautatzeko horrek egindako politika-saloa, ez diote, nik uste, herri honentzat gauza berririk. Legegintza-ituneak eta azken bi urteek mugatutako aldiarekiko jarraipen nahia agertzen dute. Bainan, batez ere, agintea berezko xede bezala ulertzen duten zenbait jokabideri lehentasuna eman nahia azaltzen du, halaber, berrikuntzak daudenik ez dut ukatuko, noski. Betebetean egitarau mailako diren gaiak aipatzean horretaz arituko naiz, baina nik, itune horren gauza berririk garrantzitsuena, benetan garrantzitsua, azkenik Arzalluz jaunak izenpetutako itune bat izatea dela esatean denok ados egongo garen ustetan nago.

Egin asmotan izan daitekeen onurazko guztiarekin gure irizkidetasuna benetan adierazteko aitortzen eta ezaguna zaigun gure jarreratik eta aurkezten dena zerbait berria ez den neurrian, hautagai jaunak hau esatean utziko dit: Euskadiko Ezkerra taldearen aldetik, egitarau horrek, salo horrek, itxarote eperik, neurri bateko uste onik ez duela merezi. Azken finean, Euskadiko Ezkerra ez dago neurri bateko uste onik emateko prest, baina Lehendakarigaiak denboran zehar bere buruari zein uste-neurri ematen dion galdetzera ausartzen gara.

Jaurlaritzaren saloa iraunkortasun salo gisa aurkeztu zaigu, baina iraunkortasun hori geldoegitzat jotzen dela uste dut, ara-

estabilidad se entiende como algo demasiado pasivo, desde una actitud pasiva de evitar los problemas y, en definitiva, de aplicar la política de "no lo muevas, que es peor". Y, en todo caso, yo tengo la impresión de que va a ser precisamente este Parlamento quien va a sufrir las consecuencias de la pretendida estabilidad, las consecuencias de la parálisis a tenor de una actitud excesivamente pasiva.

Creo que todos coincidimos en la necesidad de un clima de normalidad y estabilidad para Euskadi, pero las discrepancias persisten en el terreno de los contenidos. Y podríamos empezar a descender a ese terreno. Y podríamos descender precisamente empezando por algo que esta Cámara no ha tenido oportunidad de comentar, de discutir, y es la referencia inmediata de su propia acción de gobierno. Cuando el pasado 26 de septiembre el ahora candidato a la Presidencia del Gobierno Vasco, señor Ardanza, procedió a disolver la Cámara vasca y a convocar elecciones, explicó su decisión por lo insostenible de una situación cuya culpabilidad recaía, según él, en los socialistas y en los entonces escindidos de su propio partido. Y además hizo un balance de su propia gestión que no fue precisamente autocrítico. Afirmó que se había conseguido estabilizar el empleo -creo que las cifras no dicen precisamente eso-, que se había conseguido estabiliar las relaciones entre el Gobierno Vasco y las Diputaciones -yo creo que por los pelos, y con concesiones a las posiciones foralistas-. Se refirió a la transferencia de la Universidad y al acierto en la negociación del IVA, por lo menos discutible; a la creación de un nuevo canal de Televisión Vasca, que se hizo a espaldas del propio Parlamento y del propio Consejo de Administración de EITB. Y se refirió, a continuación, a toda una serie de proyectos de ley acordados por el Gobierno, la mayoría de los cuales no han llegado a tramitarse o, incluso, no han llegado siquiera a la puerta de este Parlamento.

Y ha leído, y se lo agradecemos, un texto. No ha hecho una exposición personal, sino que ha leído precisamente el texto del acuerdo, y, por tanto, se lo agradecemos porque todos sabemos ahora lo que está atado y lo que no parece, por lo menos, que se haya acordado.

Se ha referido al desarrollo autonómico, y a mí me da la impresión de que el pacto de Estado que propugnaba el Partido Nacionalista Vasco durante la campaña electoral ha sufrido una importante recon-

zoak eragozteko jarrera geldotik eta, azkenik, "Ezazu mugitu, okerrago da ta" politika erabiltzetik ateratzen dena. Eta, dena den, nere zera iruditzen zait, Legebiltzar hau izango dela hain zuzen nahi izandako iraunkortasun horren ondorioak eta geldotasun handiko jarreraren arauera sortutako gelditzearen ondorioak jasango dituena.

Eta Euskadirentzat erazkotasun eta iraunkortasun-giroaren beharra dagoela esatean denok ados gaudela uste dut, baina edukien arloan ez-adostasunek irauten dute. Eta arlo horretan sartzen has gintezke. Eta hain zuzen ere, Legebiltzar honek hitz egin eta eztabaidatzeko aukerarik izan ez duen gauza batetik hasiz sar gintezke, eta hau jaurpide-ihardunaren beraren bertanbeherako aipamena da. Joan zen irailaren 26an, orain Eusko Jaurlaritzako Lehendakarigai den Ardanza jauna Eusko Legebiltzarra ezabatu eta hauteskundeen deia egiteari ekin zitzaienean, egoera jasanezina zela eta bere erabakia azaldu zuen, berak esan zuenaren arabera, egoera horien errua sozialisten eta orduan bere alderditik irten berriak zirenen gain zegoelarik. Eta, gainera, bere buruarekiko kritikoa izan ez zen azken azterketa egin zuen. Lana orekatzea lortu zela baieztatu zuen -uste dut zenbatekoek ez dutela zehazki hori esaten-, Eusko Jaurlaritzaren eta Diputazioen arteko harremanak orekatzea lortu zela -nik uste dut justu-justu eta foru-jarrerei amore emanez-. Unibertsitatearen eskualdaketa eta IVAri buruzko elkarrizketaren egokitasuna aipatu zituen, hau eztabaidagarria delarik, behintzat; Euskal Telebistaren irrapide berri baten sorpenaz aritu zen, hau Legebiltzarrak berak eta EITBaren Arduratze-Batzorde berak jakin gabe egin bait zen. Eta ondoren, Jaurlaritzak itundutako lege-egitasmo pilo osoz aritu zen, horietatik gehienek bideak egin gabe dituztela edo, are gehiago, Legebiltzarraren atera ere ez direla heldu.

Eta idazki bat irakurri du, eta guk eskertzen diogu. Ez du bere azalpenik egin, aitzitik zehazki itunaren idazkia irakurri du, eta, horregatik eskertzen diogu, izan ere orain denok bait dakigu zer dagoen lotuta eta zer itundu gabe dagoela dirudiena behintzat.

Autonomia-osabideraketari buruz aritu da, eta neri zera iruditzen zait, hauteskunde-aldian Euzko Alderdi Jeltzalea taldeak aldarrikatzen zuen Erresuma-hitzarmenak eraldaketa garrantzitsua jasan duela, ale-

versión por la que ni siquiera se contempla una cláusula de garantías. Pero creo que hay algo más importante, aunque ciertamente sutil, en el acuerdo. Y es que se establece un mecanismo de negociación interna en el seno de la coalición de Gobierno para la formulación definitiva de la política autonómica. Luego parece que tal política autonómica no está del todo acabada, ni mucho menos, y, por tanto, evidentemente, huelgan las cláusulas de garantía exigibles al Gobierno central.

No se contempla el desarrollo de la Ertzaintza más que como transcripción del propio Estatuto. No se contempla actitud alguna respecto a la legislación del Estado en lo que pueda afectar y vulnerar a la Comunidad Autónoma, a la Autonomía vasca. Se nos presenta una fórmula excesivamente indeterminada de relaciones con la CEE, cuando las cosas tienen, en la Comunidad Económica Europea y aquí, nombres y apellidos: se llaman Comités Consultivos de la Comisión y del Consejo, y por tanto hay que decir si estamos dispuestos o no a reivindicar y a conseguir una línea de relación con ellos. Y me da la impresión de que, si este tema no se clarifica en ese terreno institucional o institucionable, ustedes van a seguir hablando de la Europa de los Pueblos, y los que están enfrente, ustedes, van a seguir hablando de los Estados en Europa. Y ni siquiera se menciona un problema que creo que sigue vigente, claramente vigente, por mucho que haya perdido quizá el dramatismo de otras épocas, que es el problema de la Administración periférica del Estado y, en definitiva, el problema de los Gobernadores Civiles.

Y se habla de Seguridad Social, y se ha llegado a un acuerdo. Por fin se ha llegado al acuerdo en el tema quizá más fetichizado de todas las cuestiones que se han planteado en todo el proceso de negociación posterior a las elecciones autonómicas. Pero les tengo que decir que lo que ustedes han firmado en materia de financiación del INSALUD y del INSERSO, en definitiva, supone aceptar hoy la filosofía de siempre, o quizás nueva, de la Administración central, de imputar vía gasto la financiación de las competencias. Y han cambiado el 6,12 por el 6,24: luego hablaremos. Pero creo que claramente se han olvidado de introducir la filosofía del convenio en la distribución de los recursos propios de la Seguridad Social. Creo que hay, en definitiva, una renuncia expresa del convenio y, por tanto, del propio Estatuto de Autonomía -supongo que el señor Ardanza tendrá luego posibilidad de usar la pala-

gia, horretan bermapide txatalik ere jasotzen ez delarik. Baina itunean, benetan somaria izan arren, garrantzitsuagoa den zerbait dagoela uste dut. Eta hau da: Autonomia-politika behin-betiko taiutzeko, Jaurlaritza-baterakundearen baitan barneitaunbideketarako bide bat ezartzen dela. Gero ekonomia-politika hori guztiz bukatu gabe dagoela ematen du, ez da gutxiago ere, eta, beraz, nabarmena denez, Erresuma-Jaurlaritzari eskatu dakizkioten bermapide-txatalak ez dira beharrezkoak.

Ez da Ertzaintzaren osabideraketa jasotzen, Estatutoaren birridazkera bezala baizik. Erresumako Legegintzari buruz, Autonomia-elkartearen gain, euskal autonomiaren gain izan dezakeen eraginari dagokionez, ez da jarrerarik jasotzen. C.E.E.-rekiko harremanetarako modu zehaztugabeegia aurkezten zaigu, Europako Ekonomia Elkartean eta hemen gauzak berarizko izen eta abizenak dituztenean: Batzorde eta Kontseiluaren Lantalde Aholku-emaileak deitzen dira, eta beraz haiekiko harremanetarako bide bat eskatu eta lortzeko prest gauden ala ez esan beharra dago. Eta nere iduriko, gai hau iraspen-mailan edo erakundegai den mailan argitzen ez bada, zuok Herriez eratutako Europari buruz hitz egiten jarraituko duzue, eta zuok, aurrean zaudetenok, Europako Erresumei buruz hitz egiten jarraituko duzue. Eta nere ustez indarrean jarraitzen duen arazo bat ez da aipatu ere egiten, agian beste garai batzuetako larritasuna galdu badu ere, argi eta garbi indarrean jarraitzen duena, eta hori Erresumaren Tokiko Arduralaritzaren arazoa dugu eta, azken finean, Probintzia-Gobernarien arazoa.

Eta Gizarte-Segurantzaz hitz egiten da, eta hitzemate batetara heldu da. Autonomia-hauteskundeen ondorengo itunebidean gertatu diren arazo guztietatik sasigarrantzi handiagoa eman zenion gaiari buruzko itune bat lortu da azkenik. Baina hau esan behar dizuet: INSALUD eta INSERSO-ren dirubideak egiteari buruz izenpetu duzuena, azken batean, Erresumako Arduralaritzaren betiko, edo agian berria den filosofia onartzea dakar, aginteen dirubideketa gastu-bidearen kontuan ezarriz. Eta 6,12aren ordez 6,24-a, jarri duzue: gero hitz egingo dugu honetaz. Baina Gizarte-Segurantzaren berarizko eskuarteen banaketan argi eta garbi, hitzarmenaren filosofia sartzea ahaztu zaizuela uste dut. Azken batean, hitzarmenaren berarizko uztea dagoela uste dut, eta, beraz, Autonomia-Estatutoarena berarena -gero Ardanza jaunak hizpideaz baliatzeko aukera izango duela pentsatzen dut, ez da ala?-. Gainera,

bra, ¿no?-. Además, creo que esta fórmula está hipotecando y va a hipotecar la posibilidad de una asunción posterior del INSS ajustada a convenio. Y no se dice nada del INEM, que es, en definitiva, uno de los instrumentos más importantes de cara a una política social autónoma. Ni una palabra se ha dicho al respecto.

bide hau gerora hitzarmenpeko INSS-ez jabetzeko aukera arriskuan jartzen ari da eta jarriko du. Eta INEM-i buruz ez da ezer esaten, izan ere autonomiadun gizarte-politikari begira, azken baten, hau baita da tresnarik garrantzitsuenetariko bat. Horri buruz ez da tutik ere esan.

Y se ha hablado de desarrollo institucional interno. No se nos ha presentado un plan de actuación; se nos ha presentado un programa de estudios, se nos ha planteado la necesidad de examinar. Y, en todo caso, es de recibo y agradecemos y compartimos la idea de que es necesario un consenso para la definición del marco institucional interno entre todos los partidos, y compartimos la idea de la creación de tal mesa. Yo creo que, en todo caso, lo criticable es que el Partido Nacionalista Vasco se haya dado cuenta de esto a estas alturas, después de siete años en los que precisamente se ha negado a cualquier tipo de consenso respecto al desarrollo institucional interno. Ni una mención a las leyes electorales a Juntas.

Eta iraskunde-alorreko barne-osabideraketaz hitz egin da. Ez digute ihardutze-egitamurik aurkeztu; ikasketa-egitarau bat aurkeztu digute, aztertu beharra azaldu zaigu. Eta, dena den, alderdi guztien arteko irizkidetasuna denon artean iraskunde-alorreko barne-esparrua zehazteko beharrezkoa delako ideia hartu, eskertu eta horrekin bat gatoz, eta Mahai hori sortarazi behar delako ideiarekin bat gatoz. Dena den, nik uste dudanez, arbuiagarria Euzko Alderdi Jeltzalea Taldea, zazpi urte ondoren, hain zuzen ere, urte horietan zehar iraskunde-alorreko barne-osabideraketarekiko edozein irizkidetasun ukatu duela, orain horretzaz ohartzea arbuiagarria da. Ez eta Batzarretarako hauteskunde-legeen aipamenik ere.

Y podemos seguir bajando al terreno de los hechos, a los aspectos de la política que afectan más directamente a los ciudadanos. Podríamos descender a los hechos de la política industrial, y creo que cabría una pregunta, una pregunta sobre la consideración de que la política industrial en este país se ha desarrollado en estos últimos años con una enorme dispersión de esfuerzos, con situaciones de duplicidad y con una clara falta de criterios, o, por lo menos, de criterios suficientes. Podríamos referirnos, en definitiva, a la creación del Departamento de Promoción y Desarrollo Industrial de la Diputación de Vizcaya, una cuestión concreta. Y podríamos preguntarnos si el señor Macua va a transferir a la Consejería de Industria del Gobierno Vasco la capacidad de fomento que en su día arrancó a dicha Consejería, precisamente cuando la ostenaba un miembro de su propio partido.

Eta gertaldien-arloan jarrai gaitezke, herritarrengan bete-betean eragina duten politika-xehetasunen arloan sartuz. Industria-politikaren egintzen alorrera sar gaitezke, eta galdera bat legoke, nik uste, azken urte hauetan zehar herri honetan osobideratu den industria-politika ahaleginen barreiapen haundiz, bikoiztasun-egoeretan eta oinarri-irizpiderik eza nabarmenaz, edo beharrezko oinarri-irizpiderik gabe behintzat egin denari buruzko galdera bat. Azken batean, arazo zehatz bat aipatu genezake, Bizkaiko Foru Aldundiko Industria-eragintzapide eta hazkunderako sailaren eraketa. Eta gure buruari hau galdetu geniezaioke: Makua jaunak, bere egunean, hain zuzen ere bere alderdiko kide batek zuenean, Sailburugo horri kendu zion suztatze ahalmena eskuratuko dion.

Y no se ha hecho ni una sola mención a la situación de fraude fiscal, lo cual...

Eta zerga-lapurretari buruzko aipamenik ez da egin, eta honek...

El Sr. **PRESIDENTE:** Aulestia jauna, bukatzen joateko eskatuko nizuke. Pasatu da eta denbora.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Señor Aulestia, le rogaría que vaya finalizando, porque el tiempo ha concluido.

El Sr. **AULESTIA URRUTIA:** Bai, dena den, euskarari ere denbora bat ematen zaionean...

**AULESTIA URRUTIA** Jaunak: Sí, de todas formas, cuando se le dedica cierto tiempo al euskara...

El Sr. **PRESIDENTE:** Bai, piska bat utziko dizut, baina... joan zaitez bukatzen, faborez.

El Sr. **AULESTIA URRUTIA:** Y se podría pregunta si es que consideran ustedes, los firmantes del acuerdo, que la fiscalidad está justamente administrada en Euskadi, si especialmente lo consideran así los miembros del Partido Socialista.

Y podría seguir enumerando, una tras otra, toda una serie de cuestiones que delimitan el marco del acuerdo que se nos ha presentado. Pero, obviando toda una serie de cuestiones, incluido el tema violencia, que en este Pleno en todo caso tiene un tratamiento específico quizá en la discusión precedente, hay una cosa que no entiendo -ésta sí que no la entiendo-, que es el acuerdo en el terreno de la educación, de la política educativa. Y es que estamos -y lo tengo que decir- básicamente de acuerdo con el acuerdo alcanzado entre el Partido Nacionalista Vasco y el Partido Socialista. Además, no podía ser de otra forma, porque es que ¡lo hemos redactado nosotros! (Risas.)

Y, por tanto, hay una cosa que no se explica... Me alegro de que los compañeros del Partido Nacionalista Vasco tengan un sentido del humor tan acusado, pero me da la impresión de que este acuerdo tiene algo que no está claro.

No vamos a reivindicar nosotros, por supuesto, los derechos a la propiedad intelectual. En todo caso, en este proceso de acuerdos y desacuerdos hay un patrimonio común posiblemente a los cuatro partidos que estamos aquí, a cuatro de los partidos que estamos aquí, y ese patrimonio común creo que ha sido uno de los logros más importantes del desarrollo de las conversaciones. Pero lo que no sé es si esto es un ejercicio de travestismo programático, o si realmente el PNV se desdice no sólo de lo que ha venido diciendo, sino también de lo que ha venido haciendo hasta ahora.

Porque con este acuerdo, fíjense bien, van a tener ustedes que derogar todos los decretos aprobados por el Gobierno Vasco, por su Gobierno: el decreto de Conciertos Educativos, el decreto de Consejos Escolares, el decreto de Admisión de Alumnos... Y yo creo que va a tener que hacer usted lo que durante siete años no se ha hecho: la LOENU, la ley de Consejos Escolares Territoriales, la planificación lingüística en materia educativa... Yo creo que la histo-

**LEHENDAKARI** Jaunak: Sí, le dejaré un poco, pero... vaya terminando, por favor.

**AULESTIA URRUTIA** Jaunak: Eta galdegin liteke zuen ustez, akordioa izenpetu duzuenon ustez, Euskadin ikuskaritza zuzentasunez administratua dagoen, bereziki Alderdi Sozialistakoek hala uste duten.

Eta bata bestearen atzetik aipa nitzake aurkeztu zaigun akordioaren esparrua mugatzen duten hainbat arazo. Baina hainbat arazo, Osoko Bilkura honetan aurreko eztabaidan beharbada portu berezia izan duen indarkeriaren arazoa barne, alde batera utzirik, bada ulertzen ez dudan zerbait -benetan ulertzen ez dudana-, hots, hezkuntza-alorreko, hezkuntza-politikari buruzko akordioa. Eta hauxe gertatzen da -eta esan egin behar dut-, alegia, funtsean bat gatozela Euzko Alderdi Jeltzalearen eta Alderdi Sozialistaren artean lortutako akordioarekin. Gainera, ezin zen bestela izan, guk geuk idatzi bait dugu! (Barreak.)

Eta, beraz, bada argitzen ez den zerbait... Eta pozten naiz Eusko Alderdi Jeltzaleko kideek hain gogaldi onean egoteaz, bainan akordio honek argi ez dagoen zerbait duela iruditzen zait.

Guk ez ditugu, noski, jakinduria-jabegoaren eskubideak guretzako eskatuko. Nolanahi ere, bat etortze eta bat ez etortzezko bide honetan bada, segurazki, hemen gauden lau alderdien, hemen gauden alderdietako lauren bateango ondarea, eta bateango ondare hau izan da nere ustez egindako elkarrizketen lorpenik garrantzitsuenetakoa. Bainan ez dakit hau egitarauei buruzko itxuraldaketa-ihardun den ala EAJk esan duenaz ezezik, egin duenaz ere benetan atzera egiten duen.

Akordio hau dela eta, ohartu zaitezte, Eusko Jaurlaritzak, zuen Jaurlaritzak onartutako Dekreto guztiak baliogabetu beharko bait dituzue: Hezkuntza-Ituneen Dekretoa, Eskola-Kontseiluen Dekretoa, Ikasleak Onartzezko Dekretoa... Eta nere ustez zazpi urtetan zehar egin ez dena egin beharko duzu: LOENU delakoa, Lurraldekako, Eskola-Kontseiluak, hezkuntza alorreko hizkuntza egitamuketa... Zure Jaurlaritzak hezkuntza-alorrean egindakoa paper hone-

ria de su Gobierno en materia educativa es todo lo contrario a lo que en este papel se nos presenta como propuesta. Y me alegro, en todo caso, de que se nos presente así. Pero la pregunta creo que está en el aire y creo que está en la calle: ¿qué tiene que ver este papel con el conflicto de la ikastola Intxisu y con la actitud mantenida por ambos partidos ante ese conflicto? Absolutamente nada. Y ¿qué tiene que ver esto con la actitud que mantuvo su Gobierno ante la proposición de ley de integración de las ikastolas propuesta por Euskadiko Ezkerra allá por el año 84, en mayo concretamente? Absolutamente nada. Y creo que de ITB y de otras cosas podríamos hablar más adelante.

tan salo modura aurkezten zaigunaz guztiz bestelakoa delakoan nago. Eta pozten naiz, nolanahi ere, horrela aurkeztu izanaz. Baina galdera aidean dagoela eta kalean dagoela uste dut: honek ba al du zerikusirik Intxisu ikastolako auziarekin eta bi alderdiok auzi horren aurrean izandako jokabidearekin? Ezertxo ere ez. Eta ba al du honek zerikusirik Euskadiko Ezkerrak ikastolak barneratzeari buruz 84eko maiatzean egindako lege-saloaren aurrean zure Jaurlaritzak izandako jokabidearekin? Ezertxo ere ez. Eta EITB eta beste zenbait arazo aurrerago aipa genitzakeela uste dut.

Zeure asmoak adierazi dizkiguzu eta derrigorrezkoa deritzait, eta egokia dela uste dut geure asmoak azaltzea. Lehenik esan behar dizut geuregan confidantza jarri duten herritarren botoa ez duzula jasoko, ez dugula zureganatuko. Esan beharrik ere ez dago. Kontuan izan, ordea, guregan beti aurkituko duzula, guretzat betidanik baliogarria izan den eta baliogarria izaten jarraituko duen zintzotasuna. Badakizu, badakizue ez garela sekulan mututuko, bainan badakizue ere gure ahotik ez dela alferrikako ohiurik aterako sekulan. Gugan ez duzu etsairik aurkituko, oposiziorik leialena baizik. Ahaleginduko gara oposizio hori kemenez eta koerentziz zuzentzen, oposizio hori irekia eta erresponsablea izan dadin. Ez zu ez eta zure eskaintza ere ez zarete herri honentzat, eta guretzat bereziki, berriak eta ez iezaguzu, beraz, konfidantza marjenik eskatu. Azken urteotan egin duzuna eskaintzera etorri zarenez, urte horietan eman dizugun erantzuna jasotzeko prest egon beharko zenuke. Dena den, autogobernurako Euskal Herriak erakutsi duen nahia, borondatea defendatzeko prest agertzen zaren momentutik zurekin edukiko gaituzu, dudarik gabe. Bainan, motelkeriarik azaltzen duzun heinean, ez duzu jasoko geure laguntzarik. Krisialdi ekonomikoari irteera berdintsu eta justua ematen ahalegintzen zaren neurrian zure ondoan aurkituko gaituzu. Bestela, badakizu erantzuna zein izango den. Eta Euskadi bat eta indartsua eraikitzeko prest agertzen zaren momentutik biok elkarrekin joateko posibilidadea edukiko dugu, baina foralismoa edo probintziakeria nagusitzen uzten badituzu, espero ezazu kontrako jarrerarik gogorrena, dudarik gabe.

Nos ha dado a conocer sus intenciones y me parece necesario, creo que conveniente, explicar las nuestras. En primer lugar tengo que decirle que no obtendrá el voto de los ciudadanos que han depositado su confianza en nosotros. No hace falta ni decirlo. Tenga en cuenta, sin embargo, que en nosotros siempre encontrará la lealtad que siempre la hemos considerado y que seguiremos considerándola como válida. Usted ya sabe, ya saben ustedes, que nosotros nunca enmudeceremos, pero saben también que nosotros nunca proferiremos gritos en vano. En nosotros no encontrarán enemigos, sino la oposición más leal. Nos esforzaremos en dirigir dicha oposición con vigor y coherencia, para que sea una oposición abierta y responsable. Ni usted ni su oferta son nuevos para este pueblo, y en especial para nosotros, y, por lo tanto, no nos pida un margen de confianza. Ya que ha venido a ofrecernos los que ha hecho durante los últimos años, debería estar dispuesto a recibir la respuesta que le hemos dado durante dichos años. De cualquier manera, desde el momento en que se muestre dispuesto a defender el espíritu, la voluntad de autogobierno que ha demostrado Euskal Herría nos tendrá a su lado, indudablemente. Pero, en la medida en que demuestre inacción, no contará con nuestra ayuda; en la medida en que se esfuerce en dar una solución equilibrada y justa a la crisis económica nos tendrá a su lado. De no ser así, ya sabe cuál será la respuesta. Desde el momento en que se muestre dispuesto a una Euskadi única y fuerte tendremos la posibilidad de caminar juntos, pero si permite que prevalezca el foralismo y el provincialismo, no dude que tendrá la oposición más dura.

Eta, azkenik, Administralgo efikaz eta garbia eraikitzeko prest zauden momentutik beste bederatzi parlamentariren indarra

Y, por último, desde el momento en que esté dispuesto a construir una Administración eficaz y honesta contará a su lado

izango duzu alboan, baina, korrupzio eta zikinkeriarik nabaritzen bada zure gobernu horren jokabidean, benetan diotsut, gure aldetik behintzat, jai izangao duzula. Mila esker.

con el apoyo de otros nueve parlamentarios; pero, si en la actuación de su gobierno se percibe corrupción y juego sucio, se lo digo sinceramente, no tendrá nada que hacer, al menos por nuestra parte. Muchas gracias.

El Sr. **PRESIDENTE:** Eskerrik asko, Aulestia jauna.

Por el Grupo Parlamentario de Eusko Alkartasuna tiene la palabra el señor Carlos Garaikoetxea, por un tiempo máximo de 30 minutos.

**LEHENDAKARI** Jaunak: Muchas gracias, señor Aulestia.

Eusko Alkartasuna Legebiltzar-Taldearen izenean Carlos Garaikoetxea da hizpidearen jabe, 30 minutuz gehienez ere.

El Sr. **GARAIKOETXEA URRIZA:** Lehendakari jauna, parlamentari jaun-andreok, nere lehendabiziko oroimena baita ere gure lagun zintzo zen Jesus Vianari. Harentzako nere omenaldirik bihozkorrena eta haren emazte, sendiko eta lagun guztientzat nere saminik sakonena.

Hautagai jaunok, eta, Ioldi jauna, hain zuzen. Zure hitzaldia entzun ondoren, ikuspegi orokor batzuk azaldu nahi nituzke. Alderdi politiko batek zaindu beharrezko alde asko ditu: helburu garbi batzuei eustea, ideal batzuen alde borrokatzea eta, ezin besteko denean, epe motzeko eragozpenen gainetik luzarora helburu horiek mantentzen jakitea, noski. Bainan testimonio hutsezko politika egin eta egunez egun aurreratu ezean, ez da gertatzen politika zuzen eta seriorik, nere iritziz. Ez da egiazko politika.

Baita ere, Ioldi jauna, herrikideek dituzten problema larri eta premiazkoenei erantzun bat ematea da benetako politika. Aberriaren askatasuna bezelako ideal ederraren alde borrokatu, bai, baina gure politikak ez badu herrikideen langabezia gutxiagotzen eta jubilatuen irabazia gehitzen edo beharrezko diren eskola kopuruak sortzen, edo euskera desagertu ez dadin hala beharrezko zutabeak jartzen, hemen eta orain zer politika egiten ari gara? Gure eskuetan ditugun tresnaz baliatu gabe, langabeziak txarreratu, inbertsioak ihesi eta euskera hil zorian gure herria irteera gabeko kale itsu batera bortxatzea, gure politika molde hori ez litzateke serioa eta erreala izango. Bai testimoniala eta demagojikoa.

Esaten diguzunez, erabide politiko hau hautsi behar omen da, marko politiko hau hautsi behar omen da, bainan nola hautsi? Horixe da ez dakiguna. Nahiz eta urriak

**GARAIKOETXEA URRIZA** Jaunak: Señor Presidente, señoras y señores parlamentarios, yo también quiero recordar en primer lugar al que era fiel amigo nuestro Jesús Viana. Vaya mi más sentido homenaje a él y mi más profundo pésame para su esposa, familiares y todos sus amigos.

Señores candidatos, y más concretamente, señor Ioldi. Después de oír su discurso, quisiera exponer unos puntos de vista generales. Un partido político tiene que cuidar muchos aspectos: mantener unos objetivos claros, luchar por unos ideales y, cuando sea necesario, saber mantener evidentemente esos objetivos de cara al futuro por encima de impedimentos de corto plazo. Pero llevando a cabo una política puramente testimonial sin avanzar día a día, no se da, en mi opinión, una política justa ni seria. No es una política verdadera.

La auténtica política, señor Ioldi, supone también dar respuesta a los problemas más graves y urgentes de los ciudadanos. Luchar por un ideal tan hermoso como la libertad de la patria, de acuerdo, pero, si nuestra política no palía el paro de nuestros ciudadanos, ni aumenta las pensiones de los jubilados o no crea las escuelas necesarias, o no establece los pilares para que el euskera no desaparezca, ¿qué política estamos desarrollando aquí y ahora? Forzar a nuestro pueblo llevándolo a un callejón sin salida en el que, por no hacer uso de los mecanismos que poseemos, el paro vaya a peor, las inversiones desaparezcan y el euskera se encuentre a punto de extinción, ese tipo de política no sería ni serio ni real. Sería testimonial y demogógico.

Usted nos dice que hay que romper este marco político, pero ¿cómo hay que romperlo? Eso es lo que no sabemos. ¿Dejando a un lado todos los mecanismos de

izan, gure herriak lortuak dituen autogobernurako tresna guztiak alde batera jaurtiz? Eta birtartean zer? Gure hazienda, adibidez, Madrilera itzuli?, gure hezkuntza sistema, gure euskalduntzearen aurrerapena eta euskerazko komunikabideak erabat baztertu, utzi? Hasi berri den ertzaingoa ere Gobernu zentralaren eskutan utzi? Denok, hemen gauden denok gutxienez etxera bagoaz, nork erantzungo lieke bihar krisian dauden lantegietako langileen deiei hemen, Euskal Herrian? Nork ikastolek dituzten beharkizunei? Daukagun erabide politiko hau apurtzeak gure instituzioak erdeinatu eta kalean gelditzea esan nahi baldin badu, agian ondo joango gara testimonioaren aldetik, baina ez horrenbestean politikazko bidetik. Herritarren gehiengoak ere ez liguke ontzat emango halako gure jokabiderik, herriaren gehiengoa bera izan bait da zer egin behar dugun agindu diguna. Hona, Gobernura, Diputazioetara, hitz batez, instituzioetara bere interesak defendatzera, bere problemei aterabide bat bilatzera, herriaren askatasuna barne dela, bere ilusioei erantzun bat ematera etortzeko agindua herri-gehiengoaren agindua izan da. Eta hori, egunez egun aurrreraka eginik.

Bainan, Ioldi jauna, bada beste ikuspuntu garrantzitsu bat garbitu beharrekoa. Politikan ez dute helburuek bakarrik balio; ez da nahiko zilegi eta, nahi baduzue, ezin ederragoak diren helburuak izatea. Helburuak bezain garrantzitsuak dira politikan erabil daitezen bitartekoak. Ez da politika zuzenik, ez baditu bere helburuak zuzen eta garbiak. Baina, horren pareko indarrez ahozkatu beharra beste hau ere bada: ez dagoela politika garbi eta zuzenik erabiltzen diren baliapideak garbi eta zuzenak ez diren artean. Jomuga batek ezin ditu sekula bitartekoak zuritu. Hau sarritan ahozkatu eta errepikatzen den zerbait izan arren, agian egunero eta maizago errepikatu beharraren premia izanen dugu gure gizarte honetan.

Ioldi jauna, gure gizartearen elkarganatzea da gure ametsa. Zurea ere bai, ziur aski. Bizikidetasun zuzenago batetan gure herriaren askatasuna irrikatzen dugu. Erbestea eta espetxeak jasatzen dituzten euskaldun eta herriko familien atsekabeak sentitzen ditugu. Herria bera izan dadila bere arazoen konpontzaile. Hori da nahi duguna.

Lege Antiterroristaren aurka eta horrek baimentzen zituen gehiegikeria edo abusoen aurka egon gara beti. Torturak

autogobierno conseguidos por el pueblo por limitados que éstos sean? ¿Y mientras tanto, qué? ¿Devolver nuestra Hacienda, por ejemplo, a Madrid? ¿Renunciar totalmente al avance de la euskaldunización y a los medios de comunicación en euskera? ¿Dejar asimismo la incipiente Policía Autónoma en manos del Gobierno central? Si todos, al menos todos los que aquí estamos, nos vamos a casa, ¿quién respondería el día de mañana aquí en Euskal Herria a las voces de los trabajadores de empresas en crisis? ¿Quién respondería a las necesidades de las ikastolas? Si romper el actual marco político significa despreciar nuestras instituciones y quedarnos en la calle, tal vez vayamos por buen camino desde el punto de vista testimonial, pero no tanto por el de la vía política. La mayoría del pueblo tampoco nos aceptaría una actividad semejante, ya que ha sido esa misma mayoría del pueblo la que nos ha mandado lo que debemos hacer. El venir aquí, al Gobierno, a las Diputaciones, en una palabra, a las instituciones a defender sus intereses, a buscar una solución a sus problemas, incluido el de la libertad del pueblo, a dar una respuesta a sus ilusiones ha sido un mandato de la mayoría del pueblo. Y ello, avanzando día a día.

Pero, señor Ioldi, existe también otro punto de vista importante que hay que aclarar. En política no sólo valen los objetivos, no es suficiente con contar con objetivos que son lícitos y, si quieren, hermosísimos. Tan importantes como los objetivos son los medios que se utilicen en política. No hay política justa, si no tiene claramente definidos sus objetivos. Pero también hay que decir con la misma energía que no hay política clara y justa, si los medios que utiliza no son al mismo tiempo claros y justos. Un fin nunca puede justificar los medios. Aunque esto sea algo que se dice y repite mucho, en esta sociedad tendremos la necesidad de repetirlo a diario y más constantemente.

Señor Ioldi, nosotros soñamos con un acercamiento mutuo de posturas en nuestra sociedad. Usted seguramente también. Deseamos vivamente la libertad del pueblo en una convivencia más justa. Sentimos las aflicciones de los vascos y de las familias del pueblo que sufren el exilio y la cárcel. Queremos que sea el mismo pueblo el que solucione sus problemas.

Siempre hemos estado en contra de la Ley Antiterrorista y de los abusos que la misma permitía. Hemos condenado las tor-

kondenatu ditugu, nahiz GAL, nahiz ATE nahiz edozein izan, orain arte soldatapeko euskaldunen erailtzaileen salaketa egin dugun bezala salatuko ditugu aurrerantzean ere. Bainan ezin ditugu gaitzetsi gabe utzi ETA-ren erailketa, tortura eta bahiketak. Epaimahi batek erabaki arren ere, beti izan gara heriotz-zigorraren aurkako, eta ezin izango dugu sekula ere epaimahi gabeko heriotz-zigorrik zurikatu. Eta hau da bizi dugun errealitatea.

turas, seguiremos condenando, como lo hemos venido haciendo hasta ahora, a los asesinos a sueldo de vascos, llámense GAL, ATE... Pero no podemos dejar de condenar los métodos, torturas y secuestros de ETA. Siempre hemos sido contrarios a la pena de muerte, aunque la decida un tribunal, y tampoco podremos justificar nunca una pena de muerte sin juicio. Y esta es la realidad que vivimos.

Señor Ioldi, yo le he escuchado a usted con todo el respeto de que he sido capaz, y algunas de sus frases -y quiero decirlo en castellano, para que lo entiendan todos- creo que no han estado investidas del mismo respeto, lo cual no suele obstar para que uno defienda sus ideas con igual galanura. Cuando usted ha dicho "estas sucias poltronas"-"poltrona zikin hauek"-, a mí me han dado ganas de constestarle que hasta el momento por lo menos han estado limpias. Espero que sigan estándolo a partir de hoy.

Ioldi jauna, nik ahal izan dudan errespetorik handienaz entzun dizut, eta zure zenbait esaldik -eta gazteleraz esan nahi dut, denok uler dezaten- ez dute, nere ustez, errespeto bera izan, nahiz eta batek bere ideiak pareko gizaidez aldezteko eragozpen ez izan hori. Zuk "poltrona zikin hauek" esan duzunean -"estas sucias poltronas"-, orain arte behintzat garbi egon direla eta gaurgero ere garbi egotea espero dudala erantzuteko gogoa izan dut.

Yo le he expresado en términos generales, para no ir punto por punto, cuál es mi punto de vista sobre, en definitiva, todo lo que aquí ha expuesto usted, que se resume en esas consideraciones, a mi entender. Pero hay dos o tres cosas que a mi entender no pueden dejarse de señalar aquí. Primero, que cuando ustedes hablan del pueblo, y cuando ustedes niegan que los demás representamos al pueblo, tienen que recordar que ustedes representan lo que representan: ustedes representan esa cantidad, nada desdeñable ni irrelevante, de un 17, un 18 por ciento, no recuerdo exactamente cuánto es. Y si ustedes se arrogan nuestra representación y dicen con desprecio a este Parlamento, como han dicho hoy, que no representamos al pueblo, están asumiendo exactamente las mismas actitudes que asumía un dictador recientemente en este país, cuando se arrogaba, sin que nadie se lo diera, la representación de aquellos que no se la habían dado. Perdone la referencia, porque es dura, pero sus palabras no han sido menos duras, y creo que tenemos que hablar entre nosotros con respeto, pero con la dureza que elijamos ambas partes en todo momento.

Orohar azaldu dizut, punturik-puntu ez joatearren, zein den zuk azaldutako guztiari buruz dudan ikuspegia nere ustez gogoeta horietan laburtzen dena. Baina ba dira bizpahiru gauza nere ustez hemen aipatzeke utzi ez daitezkeenak. Lehena, zuek herria aipatzen duzuenean, eta gainontzekuok ez dugula herria ordezkatzen esaten duzuenean, zuek zeren ordezkari zareten izan behar duzue gogoan: zuek inola ere erdeinagarria ez den ehuneko 17a, edo 18a, ez dakit zehatz-mehatz, ordezkatzen duzue. Eta zuek gure ordezkotza zuena egin eta Legebiltzar honi mespretxuz, gaur egin duzuen bezala, ez dela herri honen ordezkari esaten badiozue, zuen jokabidea eta herri honetan oraintsu zapaltzaile batek zituen jokabideak berdin-berdinak dira, honek, inork eman gabe, herriaren ordezkotza bere egiten bait zuen. Barka aipamena, gogorra eda eta, bainan zure hitzak ez dira bigunagoak izan, eta, nere ustez, gure artean errespetoz bainan uneoro biok aukeratzen dugun gogortasunaz hitz egin behar dugu.

Usted ha dicho que nos olvidamos de nuestros objetivos, y yo le decía antes que los objetivos a largo plazo son importantes, pero que uno tiene que saber distinguir entre el largo y el corto plazo. Y ustedes también lo distinguen, porque en toda su alocución de esta mamañna, salvo una alusión al "Zazpiak-Bat", usted no ha hablado de Euskadi Norte, ni ha introducido en su

Gure helburuak ahantzi ditugula esan duzu, eta esan dizut lehen epe luzerako helburuak garrantzitsuak izan arren, epe luzea eta laburra bereizten jakin behar dela. Eta zuek ere bereizten duzue, zeren gaur goizeko mintzaldi osoan, "Zazpiak-Bat"-i buruzko aipamena salbu, ez bait duzu Ipar Euskadi aipatu, eta zure egitarau eta epe laburreko estratejian eta zure es-

programa y en su estrategia a corto plazo y en sus reivindicaciones, en su programa en concreto, a Euskadi Norte. ¿Por qué? Porque consideran, con pragmatismo polftico, evidentemente, que es un objetivo complicado, y entonces actúan en polftica con pragmatismo. Admitan ustedes el pragmatismo de los demás cuando creemos que avanzamos hacia nuestros objetivos y nuestros ideales definitivos, dando pasos con ese mismo pragmatismo que ustedes se autoadjudican, por ejemplo, al hablar de Euskadi Norte.

Ustedes saben distinguir también en ocasiones, supongo, entre el largo y el corto plazo. Supongo que cuando -no sé si ustedes, o creo que era el Segundo Congreso de HASI- dicen: "Nuestros objetivos estratégicos como pueblo vasco, con los del resto del mundo, conducen al logro de una sociedad comunista", supongo que no lo dicen para hoy ni para mañana. Y yo no critico eso porque no sea un ideal legftimo, pero supongo que no lo piensan hacer en un programa como el que nos estaban explicando esta mañana, porque al menos no lo han incluido tampoco. Y supongo que, como Euskadi Norte, eso también pertenece al campo de lo que por pragmatismo hay que ir difiriendo, y no sacando a relucir en las proclamas y los programas que se anuncian hoy aquf o en cualquiera de sus múltiples comparecencias públicas en este pafs.

Ustedes han hablado de la escuela pública vasca, pero nosotros, mientras ustedes hacfan testimonio -lo hacfan, y respeto que lo hicieran, porque habfan elegido esa estrategia por ahf-, nosotros metfamos 500 profesores euskaldunes cada año en el sistema educativo, y gracias a eso hacfamos polftica real por el euskera. Ustedes criticaban estas instituciones, pero nosotros hacfamos la Euskal Telebista, y sus compañeros en Navarra -y yo les aplaudfa- reclamaban la Euskal Telebista que nosotros hacfamos aquf, para que el euskera pudiera estar presente en esa Navarra entrañable nuestra, tan entrañable por lo menos para mf como para ustedes.

Y, hablando de Navarra, ustedes dicen que hemos negado a Navarra el derecho a participar de este cuadro polftico, y no es cierto. Si algo dice el Estatuto de Autonomfa, cosa que no decfa el del 36, donde algún respetado por mf excompañero de ustedes participó en aquel cuadro estatutario, por cierto, si algo dice este Estatuto que no decfa el del 36 es que tiene igual derecho que Guipúzcoa, Alava y Vizcaya. En el terreno de los principios no puede ser

kakizunetan, zure egitarauan zehazki, hor ere ez duzu Ipar Euskadi sartu. Zergatik? Zuen eritziz, daitekeenari helduz, noski, helburu zaila bait da, eta beraz politikan daitekeenari helduz jokatzen duzue. Onar ezazue zuek, esate baterako, Ipar Euskadik hitz egiterakoan zuek egiten duzuen pragmatismo beraz urratsak emanez gure azken xede eta asmoetarantz aurrera egiten dugula uste dugunon pragmatismoa ere.

Zuek ere zenbaitetan epe luzea eta epe laburra bereizten ba dakizuelakoan nago. Pentsatzen dut -ez dakit zuek, edo HASI-ren bigarren Biltzarra zela uste dutzuek "Munduko beste herrialdeekin batera, Euskal herri garenezko gure estratejia-helburuek gizarte komunista lortzera garamatzate", diozuenean, pentsatzen dut ez duzuela ez gaurko ez biharko esaten. Eta nik ez dut hori legez kanpoko xede delako jorratzen, bainan ez dut uste gaur goizean azaldu diguzuen bezalako egitarauaz egitea pentsatzen duzuenik, ez bait duzue behintzat han sartu. Eta pentsatzen dut hori ere, Ipar Euskadi bezala, ditekeenari helduz gerokotu beharreko alorreko dela, eta ez direla gaur hemen edo herri honetan hain ugari diren zuen jendaurreko azalpenetan iragartzen diren aldarrikapen eta egitarauetan azaldu behar.

Zuek euskal herri-eskolaz hitz egin duzue, bainan zuek, lekukotasunez ari zineten bitartean -hala ari zineten, eta errespetatzen dut, estratejia hori aukeratu bait zenuten-, guk urtero 500 irakasle euskaldun sartzen genituen hezkuntza-erabidetzan, eta horri esker, egiazko politika egiten genuen euskararen alde. Zuek erakunde hauek jorratzen zenituzten, bainan guk Euskal Telebista egiten genuen, eta Nafarroako zuen kideek -eta nik txalo egiten nien- guk hemen egiten genuen Euskal Telebista eskatzen zuten, euskera, neretzat zuentzat bezain kutun gutxienez den Nafarroan bertan egon ahal zedin.

Eta, Nafarroaz ari garela, Nafarroari politika-esparru honetan eskuhartzeko eskubidea ukatu diogula diozue, eta ez da egia. Autonomia-Estatutoak, 36.ekoak esaten ez zuen zerbait esaten badu, hain zuzen ere, Estatuto-esparru hartan nere begiruneko zen zuen kide ohi batek eskuhartu bait zuen, Estatuto honek 36.ekoak esaten ez zuen zerbait esaten badu, Gipuzkoak, Arabak eta Bizkaiak duten eskubide berbera duela esaten du. Eta gu gaudeneko ba-

más explícito. Y marca un camino que no es el de la mayoría cualificada que era el del Estatuto del 36 precisamente, para la incorporación de los navarros a este proyecto político común en el que nosotros estamos.

Yo comprendo que a ustedes les consuma la impaciencia, como a mí, tanto como a mí. Más que a mí no, desde luego, porque yo vivo el problema de Navarra por lo menos tanto como el que más de ustedes. Pero ¿qué vamos a hacer en Navarra? ¿Romper las urnas? ¿Qué procedimiento quieren ustedes establecer para que, haciendo política real, Navarra comparta con nosotros este cuadro, este proyecto nacional vasco? Desde luego, yo les aseguro, desde mi experiencia de navarro que ha vivido entre navarros, que la extrategia de la violencia, para mí, tengo la convicción de que ha creado un "ghetto" en el nacionalismo en Navarra, y un muro impenetrable para que las gentes sencillas de Navarra pueden haber ido asumiendo la idea de una unidad vasca atractiva. Por el contrario, ha creado rechazo, y ha servido de instrumento de manipulación a los enemigos tradicionales del nacionalismo vasco en aquella tierra.

No voy a seguir rebatiendo todos y cada uno de sus puntos, porque mi tiempo es limitado, señor Ioldi. Con todo el respeto yo le digo que celebro que hoy haya podido expresar usted, y ojalá pueda hacerlo en numerosas ocasiones en el futuro, sus ideas en esta Cámara. Pero le digo con todos los respetos, como le ha dicho mi antecedor en esta tribuna, que nadie puede decidir por este pueblo sin haber sido mandatado por él en las urnas. Por consiguiente, que no hay interlocutores con el Ejército, ni con nadie fuera de este país, si no existe un mandato de la mayoría de nuestro pueblo. Ojalá vengan ustedes a compartir con nosotros ese mandato, que tienen una cuotaparte importante del mismo, para hacer muchas cosas que estoy seguro querríamos hacer en identidad de objetivos.

Señor Lehendakari en funciones y señor candidato, habida cuenta de la realidad política, económica y social en la que nos encontramos, sería bienvenido un Gobierno estable, estable naturalmente, y capaz de sintonizar con las aspiraciones políticas de la mayoría de nuestro pueblo, y en particular del electorado que les ha traído a ustedes aquí, a ustedes que han formado este Gobierno. Pero yo tengo que decir -no sé si con la urgencia del tiempo que me queda, que no sé cuánto es- que yo me

teango politika-egitasmo honetan nafarrak sartzeko bide bat jartzen du, eta ez da hain zuen ere 36.eko Estatutoko gehiengo soilezkoa.

Nik ulertzen dut ezinegonaz ni bezain urduri egotea. Ez ni baino gehiago, noski, Nafarroaren auzia zuetariko edonork adina bizi bait dut. Bainan zer egingo dugu Nafarroan? Atabakak hautsi? Zein iharduera ezarri nahi duzue, egiazko politika eginez, Nafarroak euskal nazio-egitasmo honetan, esparru honetan gurekin bat egin dezan? Izan ere, ziurtatzen dizuet, nafarren artean bizi izan naizen nafar naizenez, indarkeriaren estratejiak, nere ustez, Nafarroako abertzaletasunean "ghetto" bat eta Nafarroako herri xeheak euskal batasunaren ideia erakargarria beretzakotu ahal izateko hesi iragan ezina sortu ditu, horretaz jabeturik nago. Aitzitik, arbuioa sortarazi du, eta herri hartako euskal abertatzaletasunaren ohizko etsaiei azpijokoa egiteko bide eman die.

Ez dut zure puntu bakoitza eztabaidatzen jarraituko, nere denbora mugatua delako, Ioldi jauna. Begirune osoz esaten dizut pozten nauela zuk gaur Biltzar honetan zure ideiak aditzera eman ahal izanak, eta etorkizunean ere hainbatetan gauza bera egiterik izango ahal duzu. Bainan begirune osoz diotsut, nere aurretik mintzatoki honetan aritu denak bezala, inork ez duela herri honen ordez erabakitzerik honek atabaketan agindu ezean. Beraz, ez dagoela Gudarostearekiko ez eta herri honetaz kanpoko inorekiko solaskiderik, gure herriaren gehiengoak agindu ezik. Etorriko ahal zarete agindu hori gurekin elkar hartzera, haren zenbateko garrantzitsua bait duzue, helburu berdinez, ziur nago, egin nahi genituzkeen hainbat gauza egiteko.

Lehendakari baiteango eta hautagai jauna, gaudeneko politika, ekonomia eta gizarte-egoera kontutan izanik, ongi etorria litzateke Jaurlaritza iraunkorra, iraunkorra noski, eta gure herriaren gehiengoaren, eta bereziki Jaurlaritza hau osatu duzuenok hona ekarri zaituzteten hautatzaileen politika-helburuei atxikitzeko gai izan ledina. Bainan esan behar dut -geratzen zaidan denboraren premiaz beharbada, ez bait dakit zenbat den- Jaurlaritza honek iraunkor izaterik eta hitzarmen hau izen-

temo que este Gobierno no pueda ser estable ni sintonice muy en especial con las bases de algunas de las partes que han suscrito este pacto.

petu duten alderdietako hainbat jenderi bereziki atxikitzerik izango ez duelako susmoa dudala.

Yo no quiero remontarme al pasado, ni siquiera al pasado más reciente, para justificar esta aseveración. Desde luego, como ha recordado el señor Aulestia, cuando usted, señor Ardanza, convoca las elecciones -por cierto, con cuatro diputados más que ahora en los escaños que le sostienen-, usted dice -y esto fundamenta algo mi escepticismo sobre la estabilidad de este Gobierno- cosas tan graves como que "los socialistas no apoyaron con lealtad el espíritu de su pacto, no contribuyendo a la gobernabilidad", y que, en efecto, "las propias divergencias internas del PSE-PSOE ante el pacto mismo de un lado, y su dependencia sucursalista respecto del Gobierno central de otro, han hecho que el espíritu del pacto, entendido como contribución a la gobernabilidad de este pueblo, mediante la profundización de su autogobierno, haya quedado sofocado bajo la palabrería de un apoyo puramente verbal a su más vana literalidad. Porque, a pesar del pretendido cumplimiento del pacto por parte del PSE-PSOE, el Gobierno central, apoyado en este caso muy en serio por ese mismo partido, no ha hecho el más mínimo esfuerzo por modificar un ápice su interpretación cicatera", etcétera, etcétera. Es su programa electoral, de elecciones al Parlamento Vasco de 1986.

Ez dut iraganera jo nahi, ezta araintsuko iraganera ere, baieztapen hau arrazoipetzeko. Izan ere, Aulestia jaunak gogorarazi duenez, zuk, Ardanza jauna, hauteskundeetarako deia egin zenuenean -zure oinarri diren jarlekuetan hiru diputatu gehiago zenituelarik, hain zuzen ere-, zuk -eta horrek oinarritzen du nolabait Jaurlaritza honen irankortasunari buruzko nere sineskaiztasuna- honelako gauza larriak esan zenituen, hots: "sozialistek ez zioten leialtasunez eutsi hitzarmenaren muinari, eraengarritasunaren kaltetan", eta, izan ere, "hitzarmenaren beraren aurreko PSE-PSOEren barne ezberdintasunek berek alde batetik, eta Jaurlaritza nagusiaren ordezkari denezko menpetasunak bestetik, burujabetasuna sakonduz herri honen eraengarritasunaren alde egite gisa ulertutako hitzarmenaren muina hitz hutsetan utzi dute hitz hutsezko laguntza eman bait diote. Zeren, PSE-PSOEk ustez hitzarmena bete arren, Jaurlaritza nagusiak, kasu honetan alderdi horren beraren erabateko laguntzaz, ez bait du ahaleginik txikienik ere egin bere ulerkera murritza apurtxo bat ere aldatzeko", etabar, etabar. 1986.eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako zuen zabalkundean.

Añaden algo muy importante a continuación. Dicen: "Cualquier pacto exige el compromiso directo del Gobierno central. El PSE-PSOE es sólo una sucursal del PSOE". Y dicen más ampliamente: "Cualquier pacto que no trascienda de las fuerzas políticas de la Comunidad Autónoma y no comprometa directamente al Gobierno central tendrá pocas garantías de conseguir avances de importancia en la profundización deseada del autogobierno de nuestro pueblo". Página 7 de su programa de gobierno.

Ondoren oso gauza garrantzitsua diozue. Honela diozue: "Ezein itunek eskatzen du hertsiki Jaurlaritza nagusiak artez hitza ematea. PSE-PSOE ez da PSOEren ordezkaritza besterik". Eta zabalago diozue: "Autonomia-Elkarteko politika-indarrak gaindi ez ditzan eta Jaurlaritza nagusiari artez hitz eman erazten ez dion edozein itunek berme gutxi izango ditu nahi denez gure herriaren burujabetasuna sakontzeari dagokion aurrerapen garrantzitsurik lortzeko". Zure jaurlaritza-egitarauko 7. orrialdea.

No son, por consiguiente, fútiles mis temores de que la estabilidad de este compromiso esté más que en entredicho. Por añadidura, en su campaña ustedes hicieron una campaña del miedo. Ustedes dijeron: "¡Que viene el coco!" Todavía hay pinturas por ahí por las paredes referidas poco amablemente a sus actuales compañeros de Gobierno, de los que -no es por nada, ya que se sonríen- en más de una ocasión yo dije, cuando decían esas cosas sus socios actuales: "También son hijos de este pueblo

Ez da funtsik gabea, beraz, hitzarmen honen iraunkortasuna oso kolokazkoa delako susmoa. Gainera zuek hauteskundeetan izuaren ekitaldia egin zenuten. Honela zenioten: Mamua datorrela! Hor daude oraindik hormetan adeitasun gutxiz egungo zuen Jaurlaritzakideei buruzko pintaketak, hauei buruz -izan ere, irribarretsu ageri bait dira- behin baino gehiagotan, zuen egungo kideek gauza horiek esaten zituztenean, zera esan bait nuen: "Sozialistak ere herri honetako seme dira", hori esaten nuen nik

los socialistas", solía decir yo cuando les atacaban sus actuales compañeros en esos términos. (Risas y murmullos.)

Tras cuatro meses, yo no sé -lo celebraré- si han ganado en fiabilidad para ustedes sus compañeros -lo celebraré muy sinceramente-, o si es que se ha hecho un matrimonio, ya que esa palabra estuvo muy de moda, de conveniencia, y, consiguientemente, esa estabilidad está, como digo, más que en entredicho.

Como ha recordado quien me ha precedido en el uso de la palabra, y como he leído aquí mismo en su programa, ustedes consideraban necesario -y lo decía, si no me equivoco, el señor Arzallus- ese pacto de Estado. Si no se comprometía el Gobierno central, no había manera de estabilizar un compromiso en este país. ¿Han cambiado sus ideas al respecto? Porque yo sigo pensando, en consecuencia con lo que hicimos en ese largo y penoso periodo negociador, que esa dicotomía imaginaria entre el Partido Socialista de Euskadi y el Partido Socialista en Madrid y su Gobierno es eso, es una dicotomía ficticia, imaginaria, que no se sostiene.

Tan ficticia quizá -y, no sé, ojalá el tiempo desmienta mi pesimista predicción- como puede ser, pues, que mientras ustedes están en armoniosa compañía en el Gobierno, pues el Partido Socialista de Alava se dedique a censurar a cinco diputados y hasta a anunciar que a lo mejor lleva a los tribunales a un diputado del Partido Nacionalista Vasco. O que el Partido Nacionalista Vasco no acepte una ley electoral europea hecha por el Partido Socialista y hasta pueda boicotear las elecciones, como lo ha anunciado. O que una Diputación del Partido Nacionalista Vasco impugne una ley electoral hecha por el Partido Socialista, o suscrita -y por el momento parece que mantiene su compromiso- por el Partido Socialista. O que el Partido Nacionalista pueda seguir siendo fiel a su concepción y compromisos con las ikastolas, que luego hablaremos de eso un momento si tenemos tiempo, consideradas por una alta representación del Partido Socialista como una escuela de terroristas, cuando la cartera de Educación va a estar en manos de los socialistas. La verdad es que uno tiene que ser necesariamente escéptico ante la estabilidad de un pacto de esta naturaleza. O que, en definitiva, puedan convivir desde convicciones tan dispares como se han puesto de manifiesto, por ejemplo -y tengo que referirme por necesidad a conversaciones y posicionamientos de los que hemos

zuen egungo kideek hala erasotzen zizuetenean. (Barre eta marmarrak.)

Lau hilabete pasatakoan, ez dakit, poztuko naiz zuen kideek zuekiko fidagarritasuna irabazi badute -benetan poztuko naiz- edota komenigarritasunezko eztaia egin badute, oso puntakoa izan bait zen hitz hori, eta, beraz iraunkortasun hori, diodanez, oso kolokan badago.

Nere aurretik hitz egin duenak oroitarazi duenez, eta hementxe zuen egitarauan irakurri dudanez, zuek beharrezkotzat jotzen zenuten -eta, oker ez banago, hori Arzalluz jaunak zioen- Estatuko itune hori. Jaurlaritza nagusiak ez bazuen hitzik ematen, ezinezkoa zen herri honetan hitzarmenei eustea. Aldatu egin al dira horri buruzko zuen ideiak? Nere ustez oraindik, itunebideketa-aldi luze eta penagarri horretan egin genuenari jarraiki, Euskadiko Alderdi Sozialistaren eta Madrileko Alderdi Sozialista eta bere Jaurlaritzaren arteko ametsezko bikoizkeria hori, hain zuzen ere, ametsezko, irudimenezko, oinarririk gabeko bikoizkeria bait da.

Adibidez -eta, ez dakit, gezurtatuko al du denborak nere iragarpen ezezkorra- zuek Jaurlaritzan bata bestearen ondoan egokiro zaudeten bitartean, Arabako Alderdi Sozialistak Euzko Alderdi Jeltzaleko bost diputatu gaitzestea eta baita beharbada alderdi bereko diputatu bat epaitegietara eramango duela ere iragartzea bezain ameskeriazkoa. Edota Euzko Alderdi Jeltzaleak Alderdi Sozialistak egindako Europa mailako hauteskunde-Legea ez onartzea eta, iragarri duenez, agian hauteskundeak galeraztera iritsi ahal izatea. Edota Euzko Alderdi Jeltzalearen Diputazio batek Alderdi Sozialistak egindako edo izenpetutako -eta ba dirudi oraingoz eutsi egiten diola emandako hitzari- hauteskunde legeari jazarri egitea. Edota, honetaz denborarik badugu gero hitz egingo dugun arren, Euzko Alderdi Jeltzaleak, Alderdi Sozialistaren goi mailako ordezkari batek terroristen eskola deituriko ikastolekiko ulerkera eta hitzarmenei leial izaten jarraitu ahal izatea, Hezkuntza-Saila Sozialisten esku egongo delarik. Egia da, batek sineskaitza izan beharra dauka honelako itune baten iraunkortasunari begira. Edota, azken buruan, adibidez, Kondaira-Lurraldeen Legeaz hitz egiterakoan -eta oraintsu gu geu lekuko izan gareneko elkarrizketa eta jarrerak aipatu behar ditut nahitaez-azaldu diren hain buruzpide ezberdinez elkarrekin bizi ahal izatea; lege hori zela eta, Alderdi Sozialis-

sido testigos recientes nosotros-, al hablar de una ley de Territorios Históricos para la que el Partido Socialista, hace sólo unos días, negociando para ese famoso Gobierno tripartito nonato, pues, propugnaba modificaciones tan radicales como las de no sólo hacer una modificación a corto plazo, que consideraban necesaria, naturalmente, modificando la ley de Aportaciones y haciendo una serie de cosas, sino modificándola también, en una segunda etapa, en su capítulo de Hacienda y en sus propios capítulos competenciales. Los documentos andan por ahí, los puede ver cualquiera.

¿Quién ha cambiado aquí? En siete días, o en seis, o en 48 horas, ¿se puede cambiar radicalmente, o es que los acuerdos, porque no ha cambiado nadie en el fondo, son ficticios o inestables? Esta es una pregunta, señor candidato, que todos nos tenemos que hacer y para la que, naturalmente, el tiempo nos dará una respuesta que ojalá, ojalá sea positiva. Positiva en el sentido de la estabilidad, claro está.

Señor candidato, la capacidad de transacción, me dirá usted, es importante, pero la capacidad de transacción no tiene demasiado que ver con los giros copernicanos al mantener posturas políticas. Y entonces surge la sospecha, esa sospecha que se ha estado manejando como piedra arrojadiza contra quien ahora les dirige la palabra y sus compañeros, surge la sospecha de que a lo mejor, más que un reparto de responsabilidades, sea un reparto de poder para el que incluso hay que aumentar las carteras, aunque ello no sea ejemplar del todo, desde el punto de vista de la austeridad en el gasto público.

Temo que esa falta de pacto de Estado, esa falta de solución a las profundas diferencias a las que me estoy refiriendo, determine esa inestabilidad que también temo, y que usted -ojalá no sea así- tenga que hacer esa nueva convocatoria que todos hemos tratado de evitar, a más o menos largo plazo. Pero temo -y me refiero al segundo aspecto, que señalaba al principio- más que su Gobierno no sintonice con las aspiraciones de un electorado que se ha guiado, entre otras cosas, por esas promesas o por esos posicionamientos que en los programas electorales, como antes señalaba, hemos hecho todos, entre ellos ustedes.

Me voy a referir en primer lugar al problema económico. El sector público tiene que jugar un papel importante a la hora

tak, orain dela egun gutxi, jaio ez den hirutariko Jaurlaritza famatu horretarako itunebideak egiterakoan, erabateko aldaketak eskaintzen bait zituen, hala nola, beharrezkotzat jotzen zuten epe laburreko aldaketa, hots, ez Ekarketen legearena eta beste zenbait arazori buruzkoa eginez bakarrik, baita, halaber, bigarren aldi baten, Herriogasun atalburuan eta bere agintepide-atalburutan aldakuntza aginez ere. Agiriak hor barna dabiltza, nornahik ikus ditzake.

Nor aldatu da hemen? Alda al daiteke mutur batetik bestera zazpi edo sei egunen buruan, edo 48 orduren buruan, ala ez ote dira, funtsean inor aldatu ez delako, ameskeriazko edo iraunkortasunik gabeko akordioak? Galdera hau denok egin beharrekoa dugu eta beroni, jakina denez, denborak erantzungo dio, eta baikorra izaten ahal da. Iraunkortasunaren aldetik baikor, noski.

Hautagai jauna, tratu gaitasuna garrantzitsua da, esango didazu, bainan tratu-gaitasunak ez du zerikusi handiegirik politika-jarrerez erabateko birak egitearekin. Eta orduan sortzen da susmoa, orain mintzo natzaizuen honen eta nere kideen kontra harri jaurtigai modura erabili den susmo hori, hots, agian erantzunkizun-banaketa baino areago aginte-banaketa izango delako susmoa, horretarako sail gehiago ere egin behar izanik, hori herri-xahupenekiko hersturaren ikuspegitik oso eredu ona ez bada ere.

Estatuko itunerik ezak, aipatzen ari naizen ezberdintasun sakonekiko irtenbiderik ezak somatzen dudan iraunkortasunik eza eta zuk -ez ahal da hala gertatuko- denok eragozten saiatu garen epe labur nahiz motzerako deialdi berria egin behar izana ekarriko duelakoaren susmoa dut. Bainan -eta haseran adierazten nuen bigarren alderdiaz ari naiz- zure Jaurlaritza, besteak beste, lehen nioenez, denok eta baita zuek ere hauteskunde-egitarauetan egindako agindu edo jarrerei jarraitu dieten hautatzaileen xedeei atxikiko ez zaieneko areagoko susmoa dut.

Lehenik ekonomia-arazoaz hitz egingo dut. Herri-alorrak zeregin garrantzitsua du jokabide-arauak argitasunez ezarri eta adi-

de establecer reglas de juego con claridad y diseñarlas de manera inteligente. Creo que estamos en eso de acuerdo todos, y ustedes han anunciado un programa... No sé cómo lo han denominado exactamente; podría ser un programa de desarrollo regional, o algo por el estilo. Ahora bien, ¿va a ser un programa como los señores socialistas hace dos semanas se comprometían con nosotros, porque consideraban que era indispensable que fuera así -o lo entendían y no lo negan, al menos-, que vincule al Gobierno Vasco, a las Diputaciones e incluso a los grandes Ayuntamientos para que este país funcione? ¿O no? ¿O han cambiado sus socios del Partido Socialista? ¿O va a reverdecer esa concepción contradictoria, que creo que lo es con la de ustedes, al cabo de poco tiempo?

El programa del Partido Nacionalista Vasco, por ejemplo, decía en su página 33 -porque no me estoy inventando nada- que es difícil, "con las limitaciones que por culpa del Partido Socialista existen, llevar adelante una política económica adecuada frente a la crisis y el paro" -decían ustedes textualmente-. "La Administración central no tiene una política de empleo para Euskadi, y actúa de espaldas a una estrategia europea de empleo. El PNV tiene que denunciar una vez más la actitud irresponsable del PSOE, que, como consecuencia del sistemático ataque al Estatuto del País Vasco, viene impidiendo la transferencia de competencias de la importancia del INEM, de la Seguridad Social", etcétera, etcétera. Y más adelante, más adelante ustedes, refiriéndose al importantísimo papel del sector público, decían ni más ni menos que "lamentablemente, una vez más, y en este capítulo fundamental, debemos constatar el desprecio del Gobierno de Madrid y del partido que lo sustenta por el desarrollo del Estatuto en una materia tan importante como es la relativa al sistema financiero", y a continuación hablaban del Instituto de Crédito Oficial que reivindicaban, etcétera, al que nos referiremos luego a continuación.

O, en otro orden de cosas, y hablando de las dificultades que uno adivina para que esto pueda funcionar, hace unos días nosotros hablábamos con los socialistas, y veíamos una refractariedad absoluta hacia la aceptación de un marco autónomo de relaciones laborales, hacia el reconocimiento de un marco socio-laboral diferenciado para la Comunidad vasca. Yo creo que el Partido Nacionalista Vasco esto lo ha mantenido siempre como una cuestión de principio. No sólo eso: ha dicho que hay que

menez taintzerakoan. Horretan denok bat gatozelakoan nago, eta zuek egitarau bat iragarri duzue... Ez dakit zehazki zein izen eman diozuen; eskualde-garapenerako egitaraua, edo antzeko zerbait izan liteke. Bainan, Sozialista jaunek duela bi aste guri hitza ematen zigutenez, hala izatea derrigorrezkotzat jotzen bait zuten -edo hala uste eta ez bait zuten ukatzen-, herri hau ibiltzeko Eusko Jaurlaritza, Diputazioak eta baita Udal haundiak ere behartuko dituen egitaraua izango al da? Ala ez? Ala aldatu egin al dira Alderdi Sozialistako zuen kideak? Ala berpiztu egingo al da denbora gutxiren buruan nere ustez zuenaren kontrako den ulerkera?

Euzko Alderdi Jeltzalearen egitarauak, adibidez, honela zioen 33garren orrialdean -ez bait naiz deus ere asmatzen ari-: "zaila da Alderdi Sozialistaren erruz dauden trabengatik kinka eta langabeziaren aurrean ekonomia-politika egokia gauzatzea". Honela zenioten hitzez-hitz: "Administrazio nagusiak ez du lan-politikarik Euskadirentzat, eta Europa mailako lanestrategiari bizkar emanez jokatzen du. EAJ-k salatu egin behar du berriro ere, PSOE-ren jokabide arduragabea, besterik gabe Euskal Herriko Estatutoari erasoz, INEM, Gizarte-Segurantza bezain ahalmen garrantzitsuen eskuraketa galerazten ari baita. Eta aurrerago, aurrerago, zuek, herri-alorraren zeregin txit garrantzitsuaz ari zinetela honela zenioten hain zuzen ere: "tamalez, eta atalburu nagusi honetan, dirubidetzari buruzkoa bezain alor garrantzitsuan Madrileko Jaurlaritzaren eta eusten dion alderdiaren Estatuto-garapenarekiko mespretxua ikusi beharrean gaude berriro ere", eta ondoren Mailegu Ofizialaren Erakundea eskatzen zenutela aipatzen zenuten, eta hortaz gero hitz egingo dugu.

Edota, beste maila batetan, eta honek ihardun ahal izateko pentsa daitezkeen zailtasunez hitz eginez, duela egun batzu sozialistekin hitz egin genuen, eta lanharremanetarako esparru autonomiaduna onartzearekiko, euskal elkartearentzat gizarte eta lanbide-esparru berezia onartzearekiko arbuioa ikusten genuen. Nere ustez, Eusko Alderdi Jeltzaleak hau oinarri-irizpide izan du beti. Eta are gehiago: LOLS delakoa aldatu behar dela eta euskal Sindikaritza baztertua suertatzen ari dela,

modificar la LOLS, y que el sindicalismo vasco está resultando discriminado, y que hay que evitar esa discriminación. ¿Cómo vamos a ver resuelta esta antinomia entre ustedes, de la que somos testigos de excepción, repito, hace unos días nosotros mismos?

Acabamos de ver algunas facetas que pueden dificultar ese programa económico. Y podemos sacar la conclusión, por algunas cosas que yo leía y repetía aquí, de la gran interrelación que hay entre los problema económicos y el problema del autogobierno. Como la hay entre el problema de la violencia y la pacificación y el problema del autogobierno, por ejemplo, en todo lo relativo al desarrollo policial, la sustitución de los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado, y en general de una política policial que se pueda hacer de acuerdo con lo que este pueblo desea.

Pero aquí se produce un fenómeno curioso. Nuestro compañero parlamentario Aulestia ha hablado de que ustedes han plagiado algunas partes -por lo menos el índice; no las soluciones, ciertamente- del programa. Pero es curioso, y lo hemos observado en todas las negociaciones, que los temas realmente complicados, en los que uno no tiene las claves para su resolución con seguridad, como pueden ser los problemas relacionados con la crisis económica, o incluso con temas educativos o de la pacificación, que contienen elementos inciertos, no dependientes de la voluntad de los que llegan a un acuerdo, de los que están negociando, esos aparecen siempre como los acuerdos más viables. Porque, naturalmente, uno no tiene la responsabilidad de responder con las claves de la solución exacta del problema. En cambio, el problema del autogobierno, que depende enteramente de la voluntad política de las partes, y de una de las partes en concreto, ese problema en el que todas las claves las tiene en este caso el Partido Socialista y su Gobierno, ése es el que se revela siempre más difícil de solucionar. Es la gran paradoja de estas negociaciones. Y es la gran paradoja y la más triste de las paradojas.

Porque, además, hemos dicho muchas veces todos, por cierto, o casi todos, que más del 70 por ciento de este pueblo está exigiendo, como mínimo -y ya sabemos todos como máximo-, está exigiendo, como mínimo, las posiciones que algunos hemos defendido, de desarrollo del autogobierno sin romper el marco político-jurídico, con la esperanza de irlo democráticamente superando con el tiempo, que es una aspira-

eta bazterketa hori galerazi behar dela esan du. Nola ikusiko dugu ebatzirik, eta berriz diot, duela egun batzu gu geu lekuko berezi izan gareneko zuen arteko aurkakotasun hori?

Ikusi berri ditugu ekonomia egitarau hori traba dezaketen zenbait alderdi. Eta, nik hemen irakurri eta errepikatutakoengatik, honako ondorioa atera dezakegu, hots: ekonomia-arazoen eta burujabetasunaren arazoaren artean dagoen zerikusi handia. Zerikusi bera baitago, esate baterako, indarkeria eta pakebideratzearen eta burujabetasunaren arazoan, ertzaingo-garapenari, Estatuko Segurantza-Talde eta Indarren aldaketari eta, orohar, herri honek nahi duenaren arabera egin daitekeen ertzaingoari buruzko politikari dagokionez.

Bainan hemen fenomeno bitxia gertatzen da. Egitarauko zenbait zati kopiatu dituzuela esan du Aulestia gure legebiltzarkideak -aurkibidea, behintzat; ez irtenbideak, noski-. Bainan bitxia da, eta itunebideketa guztietan ikusi ahal izan dugu, benetan korapilotsuak diren gaiak, hauetan ez baita segurki haien irtenbiderako gakorik eduki izan ohi, hala nola, dudamudazko elementuak dituzten akordio batere iristen diren borondatearen araberako ez diren ekonomia-kinkari buruzko edo hezkuntzari edo pakebideratzeari buruzko arazoak, horiek agertu ohi dira beti akordio egingarrienak bait liran. Zeren, jakina, batek ez bait du arazoaren irtenbide doi-doiaren gakoez erantzuteko betebeharrik. Halabaina, erabat aldeen politika-borondateen baitan, eta zehazki alde baten baitan dagoen burujabetasunaren arazoak, kasu honetan giltzari guztiak Alderdi Sozialistak eta horren Jaurlaritzak dituzteneko arazo hori da beti ebazten nekezena bezala agertzen den arazoa. Hori da itunebideketa hauen gezurrantz handia. Gezur-antz handia eta gezurantzik tristeena.

Gainera, denok, edo gehienok, esan dugu askotan, izan ere, herri honen ehuneko 70etik gora, gutxienez -eta denok dakigunez gehienez- batzuk aldeztu ditugun jarrerak eskatzen dituela hertsiki, hots, politika eta lege-esparrua hautsi gabe burujabetasuna garatzea, denboraren poderioz berau demokraziabidez gainditzeko itxaropenaz, hori inork kenduko ez digun legezko helburu bait dugu. Halabaina, hor, itunebi-

ción legítima que nadie nos va a arrancar. Pues, bien, ahí donde todas las claves las tiene una parte negociadora, ahí no hay acuerdos concretos. Todo lo demás se zanja aparentemente con entera satisfacción de las partes.

derako giltzarri guztiak alde batek bait ditu, hor ez dago akordio zehatzik. Gainontzeko guztia aldeen erabeteko asebetez ebazten da antza.

Yo voy a hacer un ligero repaso de los problemas más importantes, a mi entender, que desde luego quedan absolutamente en el aire y que, desde luego, yo creo que, con los compromisos que algunos -entre ellos ustedes- hemos contraído con nuestro electorado, difícilmente van a tener solución. No voy a referirme a las desconfianzas, una vez más, que ustedes han mostrado cuando decían en su programa que "el PSOE no sabe qué hacer con el Estado de las Autonomías", que "no quiere llegar a un verdadero Estado autonómico", que el Gobierno "se resiste a aceptar la especificidad del Estatuto vasco..." Lo estoy leyendo todo textualmente. Y, por ejemplo, una cosa muy clara: persecución del euskera. Un ejemplo: "Incluso el euskera, por diferenciador, parece estimular la resistencia de la Administración socialista. Este pueblo ha venido sufriendo recientemente una verdadera persecución a través de recursos contenciosos impuestos por los Gobernadores", figura absolutamente superflua en nuestra estructura autonómica y que ustedes, por cierto, han reivindicado reiteradamente que desaparezca de la escena de la Comunidad Autónoma.

Nere ustez arazorik garrantzitsuenak direnak berrikusiko ditut arinki, hauek izan ere erabat aidean gelditzen bait dira eta, nere ustez, batzuok -zuek barne- gure hautatzaileei eman diegun hitza eman diegula, nekez izango bait dute irtenbiderik. Ez naiz, berriro ere, azaldu dituzuen mesfidantzez ariko, zuen egitarauan honela zeniotenean: "PSOE-k ez daki zer egin Autonomien Estatuarekin", ez du benetako autonomia-Estatura iritsi nahi", Jaurlaritzak "ez du euskal Estatutoaren berezitasuna onartu nahi..." Hitzez-hitz ari naiz irakurtzen. Eta, esate baterako, oso gauza argia: euskerarekiko jazarpena. Hona adibide bat: Badirudi, euskerak ere, bereiztaile denez, Administraritza Sozialistaren jazargoa suztatzen duela. Herri honek benetako jazarpena jasan izan du oraintsu gobernadoreek ezarritako auzipide-jazarpenen bidez"; guztiz alperrikako kargua berau gure ekonomia-egitarau eta zuek, hain zuzen ere, Autonomia-Elkartetik desagertzea behin eta berriz eskatu duzuena.

Bien, dejando esto a un lado, vamos a cosas concretas, porque, desde luego, no se ha concretado, por cierto, la desaparición de los Gobernadores Civiles. No he creído entender eso en el repaso que usted ha hecho de su programa, señor candidato. Vamos, por ejemplo, a ese asunto ya casi topicudo de la Seguridad Social.

Hau alde batera utzirik, goazen gauza zehatzetara, zeren, izan ere, ez bait da zehaztu, hain zuzen ere, gobernadore zibilen desagertzea. Ez dut holakorik ulertu, hautagai jauna, zure egitaraua berrikusi duzunean. Goazen, esate baterako, ia arrunkeriazko den Gizarte-Segurantzaren arazo horretara.

Ustedes dicen de la Seguridad Social en su programa, con palabras concretas: "Los convenios para la asunción del régimen económico de Seguridad Social a que hace referencia la disposición transitoria quinta, etcétera, han de entenderse referidos al sistema de Concierto Económico. Todas las relaciones económico-financieras entre nuestra Comunidad y la Administración central han de pasar por ese sistema. Reivindicamos, en consecuencia, para la transferencia de la Seguridad Social, análoga autonomía recaudatoria y presupuestaria que para el régimen tributario de Hacienda, así como análogos criterios de aportaciones".

Zuek zuen egitarauan hitz zehatzak esaten dituzue Gizarte-Segurantzaz: "Boskarren aldibaterako erabakiak aipatzen dituen Gizarte-Segurantzaren ekonomia-jaurpidea eskuratzeko ituneak Ekonomia-Kontzertuaren sistimari egokitutzat hartu behar dira. Gure Elkartearen eta Administraritza Nagusiaren arteko ekonomia eta diru-harreman guztiek sistima horren bidezkoak beharko dute izan. Beraz, Gizarte-Segurantza eskuratzeko, Herriogasuneko zergabidetza-jaurpiderakoa bezalakoxe dirubilketa eta diruegitamu-autonomia, eta baita ekarketa-erizpide berak ere eskatzen ditugu".

